

JOXE MANUEL ODRIOZOLA LIZARRIBAR

**HIZKUNTZA, KULTURA
ETA GIZARTEA**

Mikel Zarate Saria 1997

Euskaltzaindia
Bilbao Bizkaia Kutxa
Bilbao
1998

© JOXE MANUEL ODRIOZOLA LIZARRIBAR

© FUNDACION BILBAO BIZKAIA KUTXA

Gran Vía, 30

48009 BILBAO

I.S.B.N.: 84-89476-59-4

D.L.: BI-612/98

*Joseba Jaka zenari
euskal kulturaren gurdiari*

AITZINSOLASA

Hizkuntz komunitatearen egitura ez da hizkuntzara murrizten den izaria. Edota, bestela esanda, komunitate horren sistemak, gutxien-gutxienez, hiru instantzia edo maila ditu. Horietako bat mintzaira berarena izango litzateke; bigarrena, kulturaren sistema sinbolikoak osatuko luke; eta, azkenik, gizarte egituraren izari soziala kokatuko genuke beste bien zimentarri moduan.

Hizkuntza, nik dakidala, ez da gainegitura subjektiboaren mailan definitzen den giza errealitatea. Bere izatearen sustraiak ondo asko errotzen ditu sistema sinbolikoaren unibertsoan, eta honen bidez, gizarte-egituraren harreman orotara iristen da bere egitekoa eta oihartzuna. Kultura ez ezik gizarte-sistema bera ere hizkuntzaren bidez jasotzen eta eraikitzen baita; mintzaira ez baita mintzatzeko soilik, egin ere berari esker egiten du hiztun-subjektuak, egin beharreko gizarte-jarduna. Esan eta izan, biak, hizkuntzaren eskutik mamitutako errealitateak dira.

Noiz egiten du porrot hizkuntz komunitate batek? Besteak beste, eta modu berezian, hiru instantzia horien arteko lotura azpimarratu nahi izan dut idazlan hauetan barrena. Hain zuzen ere, hizkuntzaren izate soziala maila kulturalarekin eta sozialarekin uztartzeko gogo, neuri bederen, uztarri horren iruditik datorkit. Hiruren arteko batasuna egokia eta eraginkorra denean, euskal komunitatearen mendez mende-

ko ibilbideak erakusten digun bezala, hizkuntz komunitatearen iraupena eta jarraipena bermatua egongo da oinarri tinkoetan. Alabaina, delako komunitate horren instantziaren bat bere ohiko trinkotasuna galtzen hasten bada, luzaro gabe hasiko dira desintegrazioaren lehen zantzuak nabaritzen. Osotasunari zor dio hizkuntz komunitateak bere prozesu historikoan egindako ibilbidea.

Ez dirudi, beraz, euskararen zoria Saussuren harako “barne hizkuntzalaritzaren” ikerbidearekin ezagutuko genukeenik. Ezta, bidena-bar esanda, hiztun-subjektuaren baitako sistema-maila psikologikoan arakaturik ere. Horien laguntza ezinbestekoa izango da, dudarik gabe. Baina hizkuntzaren zoriak erro sakonagoak dauzkala ohartuko ginateke bere joan-etorri historikoaren dialektikan. Osotasuna begiz jotzen ez duen metodoak argibide laburra eskainiko digu hizkuntz gatazkaren zurrunbiloan.

Nondik dator, ordea, hizkuntz komunitatearen gafbidea? Gurearen eredura makurtuko litzatekeen problematika bati so eginik, kulturaren eta gizarte-egituraren arteko korrespondentzia tirabiraka hasten denean somatzen dira lehendabiziko kontraesanak. Alegia, hizkuntzaren betidaniko oinarri eta sistema izan den batasun hori, nola edo hala, pitzatzen hasten da; jadanik ez datoz bat sistema kulturala eta gizarte-egitura. Arrazoiak, bistan denez, ugariak dira: egitura ekonomikoaren eraberritzea izan liteke bat (ordurarteko sistema kulturala ez da egokia berrikuntzan abiatu den sistema ekonomikoari erantzuteko); sistema politikoaren ordezkapena izan liteke beste zergati bat (honekin bat ez datorren nazio-kultura izan liteke kontraesanaren zioa: adibidez, orokortzen ari den Estatu-nazioaren baitako etni-kultura baten kasua); edota, delako hizkuntz komunitate hori bere kabuz moldatzeko gai ez izatea nazioarteko sistema sozio-kulturalaren barruan (dependentziaren murrizketak erakarritako menperakuntza). Komunitatearen iraungipenak, hortaz, eragile-multzoz anitza du bere jardunean, eta sarrienik eragile horietako bat baldin bada ere eragile (edo desegile) matrizea, prozesuaren konplexutasuna izan ohi da arau honelako fenomenoetan.

Nola ote dabil gurean konplexutasun hori osatzen duen sistema? Zenbaterainokoa ote da gizarte-egitura materialen eragina euskararen ordezkapenean? Zenbaterainokoa sistema kulturalaren baitan erabakitzen dena? Horra, hain zuzen, gogoan izan ditudan gaiak eta kezkek lan hau burutzean. Nahas-mahas itxura duen gogoeta-saio honek, itxurak itxura, badu bere ardatzaren harian hizkuntzaren zoria erabakitzen duten instantzia horien arteko dialektika bat aurkezteko intentsioa. Intentsioak, ordea, ez du xederik lortzen harako bidean egoki eta taxuz aritu ez bada. Eta, jakina, xede horren lorpena amets huts izan den ala ez, irakurleak esan behar. Zurea da hitza orain.

* * *

Zilegi bekit, ordea, aitzinsolas hau bukatu baino lehen, ene planteamendu teorikoaren funtsa modu didaktikoagoz azaltzea. Behinola Xalbador bertsolariak sortu zuen irudiak bide emanik, anatomi metafora haten eraikuntza izango litzateke saio honen helburua. Harako "herria da gorputza, hizkuntza bihotza" hari, nik neure aldetik kultura-arteriaren osagaia erantsiko nioke hizkuntza komunitatearen egitura taxutzeko. Gisa horretara, ikuspegi teoriko honek hiru zutabe izango lituzke euskaldungoaren zimentarritzat: a) gorputza-herria; b) bihotza-hizkuntza; eta c) arteria-kultura.

Tesi honen arabera, hortaz, hiru oinarri ditu hizkuntza-komunitateak edo hizkuntz nazioak, eta oinarri horiek bereiztezinak dira euren artean. Alabaina, euren arteko egitura pitzatzen hasten bada, gorago genioen bezala, euskal izatearen sarea desintegratzen hasiko da eta herri-nortasunaren ehuna birrindu egingo da halaberharrez: "bertzetik bereixtean bitarik bakotxa, izaite horrendako segurra hil hotza".

Bihotza-euskarari esker bizi da gorputza-herria, haina bihotza ez da deus gorputzik gabe. Hizkuntza ez da ezer herri-gizartenik gabe. Bihotza gorputzean baitago, eta haren baitan baizik ezin baita bizi. Bihotza-hizkuntzak (euskarak) damaio gorputza-herriari (euskal herriari)

berezko herri-nortasuna, euskal taupada. Haatik, euskararen bizia eta iraupena herriaren existentzian datza. Euskarak egiten omen gaitu euskaldun; eta hori egia da zentzu batean. Baina ez nolana eta noiznahi. Gainera, euskarak bakarrik ez gaitu egiten euskaldun; are gutxiago, jakina, euskarak bere bakardadean. Eta bakardade hori aspaldikoa du euskaldungoak euskal lurraldearen eremu zabaletan. Orain Iparraldea dugu bakardade latz horren basamortua.

Kulturaren kontzeptua eta lanabesa hil ala bizikoa da, orobat, gizartearen euskaltasuna atxikitzeko. Ez ordea kulturaz orohar uler-zen duguna ulertuta; bai, halere, euskaltasunaren zainetan odolaren eginkizuna ezarrita. Kulturaren kontzeptua, arteria-kulturatzat irudika-tuta, ondo adieraziko genuke esan nahi dugunaren muina. Horretara, izan ere, delako arteria-kultura hori gorputza-herria eta bihotza-hiz-kuntza elkartzen eta lotzen dituen sare-sistema izango bailitzateke. Hirugarren osagai hau gabe beste biak ezin dira ibili. Herriak eta hiz-kuntzak noraezekoa dute kulturaren funtzionamendu egokia biziko badira. Hain zuzen ere, nola biziko da bada bihotza (hizkuntza), gor-putz baten barruan (herria), bien arteko uztardura ahalbideratzen duen arteria-sistematik (kulturarik) gabe?

Euskal kulturarik gabe euskarak ez dauka zer eginik. Ezta Euskal Herriak ere, herri hori euskal den bezainbatean. Besterik da, noski, herri-gizarte hori besterik den neurrian. Horregatik guztiagatik, kultu-ra kontzeptuaren zentzu eragiukorra aukeratu behar dugu une oro, izen horren atzean dagoen nahas-mahasak gal ez gaitzan. Neuri dagokide-nez, ez nuke alde batera utziko Claudi Esteva antropologoaren defini-zio hau: "El bilingüismo es así al biculturalismo lo que una cultura es a una sociedad: una trama inextricable donde la correspondencia mutua se da en función de su interdependencia".

Derragun, bada, hiru osagaion arteko lotura dialektikoan, sistema nagusi orokorra, beste biak bere baitan dituena, gorputza-herria dela. Ikuspegi materialista hau ezin da, nire uste apalean, alde batera utzi. Azpistema izanik, bihotza-hizkuntza eta arteria-kultura ez dira euren

kabuz, euskari materialik gabe (gorputza-herria), dimentsio sinboliko-abstraktuan bizi. Herria (gizartea) da osotasuna, sistema osoaren determinazio-gune nagusia, autonomia duen sistema bakarra; baina, hori bai, sistema irekia. Hizkuntzak eta kulturak, azpisistema direnez, ez dute autonomiarik; hots, ez dira autoerreproduktzen gizarte-sistematik at, horretarako beregaintasun askirik ez dutelako. Herri-gizartearen beregaintasuna, esan bezala, erlatiboa da noski, sistema irekia denez, baina honen eta haien estatus objektiboa arras bestelakoa da gizarte-harremanen eremuan. Kontua, bistan denez, zera izango da: delako herri edo gizarte horrek bere baitako osagaiekiko (kultura, hizkuntza...) zenbaterainoko kontrola eta boterea daukan sistema orokor eta oso bezala elementu osagarri horiek berritzeko. Horra bizi-iraupe-naren legea.

Hiru instantziok (herria, kultura eta hizkuntza) nahitaezkoak ditu euskal herriak noizbait Euskal Herri izango bada. Euren arteko harremanen izaeran eta batasunean datza euskal izatearen jarraibidea. Eta atariko azalpen-gogoeta hau amaitu aurretik, hiru osagai horien arteko batasunaz ohartxo bat egin nahi nuke. Inondik ere, eta hemen frogatu samartzat jotzen denaren kontra, instantzia horien arteko batasuna etengabeki zalantzan eta auzipean ipini ohi da batetik eta bestetik. Batetik, ideologia espainolista hegemonikoaren eraginez: ez dezagun euskara kultura eta gizartearekin nahastu, ez dezagun instrumentalizatu eta politizatu. Bestetik, euskaltzale gehiegitxoren asmo oneko tolesgabetasunak bultzatuta. Eta gezurra badirudi ere, bi jokabideok bat datoz puntu honetan bederen: euskararen auzia gizartearen eta kulturaren dimentsiotik at planteatzeko joera makurra, hizkuntzaren balizko autonomiaren izenean zurriz da. Lehendebizikoena, jakina, jukutria hutsa da; euskaltzaleena, berriz, hizkuntzari buruzko kontzeptu soziolinguistiko eta soziokultural okerra.

EUSKALTZAINDIA EDO CORPUS PLANGINTZAREN BIDEGURUTZEA

Euskaltzaindiak antolaturiko XIII Biltzarrean (Leioa, 1995) egoteko parada izan dudanez, ez nuke aukera hori galdu nahi hizkuntzaren soziologiatik gogoeta xume bat egin gabe lagatzeko. Euskalgintzan diharduen askok ederkitxo daki, nolabait ere, bi disziplina horien artean dagoen etena, zoritxarrez, guztiok nahi genukeena baino areago dabilela. Bihoazkie, horretara, honako ohar kritiko hauek, gure aztergai den **estatus plangintzaren** aldetik, **corpusaren plangintzan** diharduten euskaltzain eta euskaltzale guztiei. Lokarriak behar ditugu bi sail horien artean, eta ahalik eta agudoen. Horretara, eta ez bestela, lortuko baitugu euskarari zor diogun plangintza orokorraren diseinua; **estatusaren** eta **corpusaren** osagaiak oinarrisko planteamendu bateratuan egokiro uztartuko dituen.

Euskara batuaren ezari-ezariko joan-etorria ez da alferrikako lana izan, eta aurrerapen horren lekuko ederrak izan ditugu entzun ditugun hainbat txosten hornitu-jantzien aurkezpenak. Hizkera bera ere, ez sinesteko moduan zehaztu eta finkatu da: txostengileen hizkera tekniko-a garai batekoarekin erkatuz arras bestelakoa da bere xehetasun-ñabardurretan.

Euskara batuaren estandarizazioak bere baitan dituen oinarrizko osagaien ikerketa, honezkero, eta atal guztietan garapen-maila bera ez badago ere, oinarri sendoetan jasotako lana da. Bejoandeiola Euskal-

tzaindiari! Beste horrenbeste nahi genuke, alajaina, euskararen gizarterapena bideratzeko oinarri teorikotzat; gure sailean ere, egia esan, aurrerabide ohargarriak burutu dira azken urteotan, eta hor daukagu guztien buru José María Sánchez Carrionen ekarpen apartak. “Txepetx” aipatu dugunez, galdera bat egingo nioke Euskaltzaindiari begirune osoz: zergatik ez du jada inolako lekunerik soziolinguistikaren gaiak Euskaltzaindiaren Jagon sailaren barnean? Zergatik zokoratu *corpusaren* auziak hain hurbil eta, are barruan, daukan disziplina hau? Edota euskararen barne-arauztapena kanpoko gizarte-normalkuntzatik landa dago? Ez dirudi. Ea bada berandu baino lehen uziartzen diren bi alderdian gauzatzen diren urratsak.

Bihar-etzikoko euskara: euskañola

Biltzarren haseratik beretik kezka bat gailendu zen oroz gain: daramagun bidea eramanda, euskararen barne-higadura berritza ikusita, dagoeneko nagusitzen ari zaigun euskañola baizik ez dela izango bihar-etzikoko euskara-eredu hedatua. Ditugun zantzu nabarmenen argitan, izan ere, euskararen barne-izaera jatorra luzaro gabe errotik erautzia izango dela iruditzen zait. Ez bide dago, hegoaldean behinik behin, erdaratik datorren eragin-interferentziari buru egiteko bitarteko-ahalmenik (Ibon Sarasola). Hori eta horrenbestez, euskararen barne-diglosia geldiezinari aurre egiteko honako proposamen hau egin zigan Sarasolak: alde honetako hiztunen euskara-eredua errotik bestelakotzen hasia denez, eredu horren bila Ipar Euskal Herriko hiztunengana jotzea. Hangoek, nahiz eta elebidunak izan hemengnak bezala, badirudi hizkuntz galbahe zorrotzagoa daukatela bi hizkuntzen artean. Itxura denez, frantsesaren “erdarakadak” ez bide dira hemengo hiztunen artekoak adinakoak. Hango esatarien buru-muinetan, Sarasolaren esanei bagagozkie, hemengoengan ez dagoen hizkuntz autonomia egongo litzateke; gurean, iritzi horren arabera, espainiera hizkuntza nagusimenderatzaileak euskal hiztunaren defentsa guztiak birrindu ditu. Ezin bada euskal senari eutsi.

Egoki deritzot Iparraldeko aldizkari eta liburuak irakurtzeko gomendioari, baldin eta Hegoaldean darabilgun euskararen *corpusa* osatzeko hemen ordainetan behar adinako baliabide linguistikorik ez badugu. Alegia, erdal mailegu arrotzera jo aurretik, Iparraldeko euskara-ondareaz baliatu. Hor, bistan denez, zalantza izpirik ez dago; zentzuzkoa dirudi proposamenak. Haatik, horrelakoetan ez izatekotan, ez dirudi logika zorrotzik duenik Iparraldeko hizkuntz eremura jotzeak.

Euskararen barne-kemena dago auzitan, eta horri aurre egiteko euskalki “kutsatugabeetara” joateko deia egiten zaigu. Badirudi, horrenbestean, Hegoaldeko euskara-*corpusaren* bestelakotzea dialektologiaren izariko neurritz konpondu nahi dela; edota, bestela esan, *corpus*-arazoa dena, maila bereko sendabidez konponbidean jarri nahi litzatekeela. Eta, nik uste, hipotesi hau ez da erabat zuzena. Hizkuntza baten gaitasun linguistikoak gainbehera egiten duenean, gurean bezalako herri-mintzairen kasuetan, hizkuntza horren baldintza soziolinguistikoei erreparatu behar zaie gertatua zergatik gertatu den jakiteko. Mintzaira horren *estatus*-egoerari alegia. Bere gizarterapen-sustraiari. Bere gizarte-legitimitateari.

Euskañolari aurre egiteko mintzabidearen sena zaindu behar baldin bada, euskara mordoiloaren azpijanari ataka jartzeko, egokiagoa dirudi behiala Seber Altubek egin zuen proposamena. Euskaltzain fin eta jakintsu haren planteamendua ez baitzen, dakigunez, euskararen barne-higadura sendabidean ipintzeko, *corpusaren* alorreko neurrietara soilik mugatu. Hagitz ezaguna denez, nolabaiteko euskal eremua osatzeko eta berrmatzeko aurreideia plazaratu zuen, non euskaldungoak bere gizarte-giroaren atal guztietan euskaraz bizitzeko aukera izango zuen. Are gehiago; lekunea ere, neurri batean bederen, zehaztu nahi izan zuen, Goierrri aldeko eskualdea izendatuz.

Euskaltzain batzuen arabera euskararen egungo egoeraren kinka larririk azpimarragarriena bere barne-interferentzien (faserik bortitze-nera iritsi da; eremu semantikora alegia, eta ondorioz joskera-egiturak azpijanaren mende daude) higadura bada, deus gutxi aitzineratuko da

corpusaren alorreko neurriak hartzearekin. Kontua ez baita, bistan denez, idazle edo esatari talde batek euskal senaren estiloa ahalik eta osokien gordetzea, edota euskalkien arteko ondare-altxortari maila formalean (hizkuntz funtzio jaso-landuen eremuan) eustea. Ez horixe! Kemen-indarra galdu duen hizkuntzari eta hiztunleriari ez diete mesede handirik egingo maila formaleko neurribideok. Eta ez dezagun ahantzi, *corpusaren* normalkuntza maila formalari (arautze-modernizazioari, alegia) dagokiola.

Iparraldeko idazle-esatariaren eredia erreferentzia gisa hartzeko ideiari, jakina, eta beste neurribide batzuen artean, ez deritzogu gaizki. Hortik ez dugu ondorioztatzen, ordea, Iparraldeko hizkuntz harrobira jota, hegoaldeko hizkuntz higadura mozteko urratsik ematen denik. Horregatik, baina ez horregatik soilik, munta handiko gauza bat ahazten dela iruditzen zait guzti honetan. Diogun, labur beharrez, honako honetara garamatzala auziaren iltzeak: ba ote dago, egon, Iparraldeko hizkuntz eremu ito-munitzean euskalgintzaren gurdia eskatzen duen masa kritikoa eraikitzeko giza-dinamikarik. Ez dezagun ahantzi, izan ere, euskara batu-egokitu-modernizatuaren erronkarik behinena masa kritikoaen gilzarrian datzala.

Beñat Oihartzabalen eskutik jaso dugu kezka hauen inguruko azken mezua (Egunkaria, 1995-VI-30). Eta mezulariak, gaiaren itzulingu ihardun ondoren, Iparraldera jotzeko gomendioaren abantailok izendatzen ditu:

a) "Alde batetik, hango (iparraldeko) euskaldunek, (...) zenbait kasutan euskal ordainak emanez hiztegian, edo zenbait jokabide aberasgarri perpausgintzan edo estilistikan ere. Egia erran aski mugatua bide da laguntza mota hau, idatzi literarioetarik kanpo bederen;

b) Beste aldetik, espainolaren mendean ez diren euskaldun batzuen ikusmoldea eskainiaz". Nolanahi ere den, abantail gutxi eta alde makur asko ikusten dituen auzigai honetan, amaierako gomendio-proposamen honekin datorkigu euskaltzaina. Alegia: "Bi erdararen menpe

egoiteak badu anitz alderdi txar, eta arras guti baizik ez onik. Gut horien artean, huraxe hain zuzen: erdaren arteko aldeek euskararen hobeki zaintzeko aukera emaiten digutela. Zergatik ez balia? Ez, baitzpada, batzuei urrikaltzeko edo plazer egiteko, baina denen, erran nahi baita euskararen, oneko” (“Iparraldeko euskararen itzala: mitoak eta arrazoiak”).

Gaitzaren azal-nabardurak eta gaitz-erroak

Gure tesiaren oinarritzko ideian, corpus plangintzaren gorabeherak estatus plangintzaren mendeko izanik, ulergaitz samarra egin zaigu Leioako Batzarrean estatusaren inguruko txosten bakanik ez aurkeztea. Badakigu jakin, usuario zaharra baitu honek hizkuntzalaritzaren teoriagintzan, hizkuntzalari-jendea ez dela prest egoten bere barrunbeto ez denaz mintzatzeko. Eta inoiz edo behin urrats hori ematen badu, damurik, soziologo “espontaneoaren” hizkera erabiliak garbitu nahi izango ditu, nola edo hala, hizkuntza-gatazkak.

Egingo nuke, eta nahiago nuke oker egon, Euskaltzaindiaren oinarritzko filosofia, jakinaren gaineko aitorenpenik gabe noski, mimetismoaren lerrotik hurbil samar dagoela. Esan nahi baita, aldeak alde, inoizko estandarizazio-prozesuen ispiluan gehiegi begiratzen duela euskararen batasun-modernizazioa finkatzeko unean. Alabaina, inoizko prozesu horiek, estatu-nazioen eraikuntzan gorpuztutako hizkuntza nazionalaren egokitzeapena alegia, ez dute inolako zerikusirik gure egoerarekin. Haiek, guk ez bezala, gizarte-boterearen hegemoni-lanabesei esker bideraturiko hizkuntz normalakuntzaren gurdia zeukaten, gurdi hori nahi zuten neurrian eta cran betetzeko. Ez dirudi, hortaz, estatu-boterearen estatuturik gabeko hizkuntza baten estandarizazio-egokitzeapena, gurean bezala, premisa berberetik abiatzen denik. Bereztasun hauxe da, hain zuzen, haien eta gurearen artean dagoen egiturazko desberdintasun politikoa; eta, aldagai nagusi horren arabera, ez

da zentzuzkoa eta arrazoizkoa *corpusaren* auzi-mauziak irizpide bere-tsuen galbahetik neurtzea.

Euskararena existentzi-arazoa denean, "Txepetxen" hizkeraz baliaturik, ulergaitza egiten da hizkuntz plangintzaren oinarrizko filosofia orokorrik eza. Oinarrizko filosofia soziolinguistikorik ezak, inondik ere, eta adierazle franko dago diogunari funtsa bilatzeko, *corpusaren* eta *estatusaren* arteko behar adinako koordinaziorik eza ekarri du. Gertaera makur hau egiaztatu ondoren, gure soziolinguista murtziarraren hitzondo hau aldatu nahi nuke hona arazoaren egiazko neurriaz jabe gaitzen. Ikus, zer dioen:

"Instituciones de tanta importancia para la normalización del Euskera como Euskaltzaindia, la Universidad Pública Vasca o el Consejo Asesor del Euskera (por no hablar del propio Gobierno Vasco, donde la (pre)ocupación hacia el Euskera sigue siendo secundaria) se mantienen aún hoy como instituciones en las que la post- y pre-ocupación hacia la 'naturaleza del idioma' priva con mucho sobre la pre- y post-ocupación hacia su misma existencia. Para decirlo de otra manera, en las que la carga y la vitalidad de la filología es dominante, y la ausencia de la verdadera sociolingüística hiriente y vergonzante en un país cuyo problema medular es la recuperación social de su idioma" ("La Herencia de Koldo Mitxelena").

Orain arteko koordinazio-saioak ezerezean ahitu dira. Horietakoa azkenetakoa, "Normalkuntzaindia" deiturapean egindako ahalegina izan da. Menturaz, glotopolitikaren edo hizkuntz makropolitikaren auzigai hau ez da Euskaltzaindiaren eskuko erantzukizuna; esan nahi baita, erakunde publikoen egitekoa dela glotopolitikaren diseinua itxuratzea eta ondoriozko neurbideak ezartzea. Bakoitzari berea, giza legea. Eta guk ez diogu Euskaltzaindiari berez egotz ezin dakioken ardurarik bizkar gainean jarriko; ez hurrik eman ere.

Direnak direla, eta hau bai ohartarazi nahi diogula, euskararen burne-gabeziak eta arauzlapen-kontuak ezin dira *corpusaren* alor iso-

latuan begiz jo. Gaitza, hondarraren hondarrean, ez baita euskalkiak eta euskara batuaren arteko harremana, edota gure mintzairaren finka-
penik eza bere egiturazko eta lexikozko osaketan. Autonomia erlatiboa
baizik ez duten hizkuntz normalkuntzaren alderdi formalok, zabalagoa
eta orokorragoa den egitura soziolinguistikoaren barrutian aztertu eta
ikertu behar dira golpe huts egin nahi ez bada.

HIZKUNTZ ERABILERAREN AZTURAK

Ez da ohiko terminologia Pierre Bourdieu-k darabilena, ez horixe. Besteak beste, eta hauek bakan batzuk besterik ez dira, era honetako kontzeptuak darabiltza soziologo frantsesak: hizkuntz kapitala, hizkuntz merkatua, bortxa sinbolikoa... Ez da gauza erraza, hortaz, gure burmuinetan hitz-adiera horien esanahia zentzu hertsian erabiltzea; eta, jakina, are gaitzagoa egiten zaigu modu argi eta zehatz batean erabiliaz, elkar aditzeko bidea egitea. Zernahi delarik ere, ezin ukatu dugu bere pentsabidearen irispen luze-sakona; izan ere gure hizkera sozio-linguistiko arruntak eskuarki bereganatzen ez dituen ñabardura esanahitsuak azaltzeko ahalmena baitauka. Bere irizpideen aterpean gabiltza, eta aterpe horren babesean jorratu nahi ditugu hizkuntz erabileraren zokondo batzuk. Beto, bada, argibide diren neurrian.

Hizkuntz interakzioa

Leben-lehenik, hizkuntz interakzioaren auzia planteatuko dut. Gure artean nagusi diren ideiek muzin egin arren, biztun-esatarien arteko interakzioa ez da mugatzen mintzaideen aneko komunikazio-ekintza soilera. Hori da bebintzat Bourdieuren ustea: "Hizkuntza mintzatuaren bitartez, hizkuntza bat edo bestea mintzo diren esatariengan gauzatzen den hizkuntz interakzioan, gizarte egitura oso-oso dago presente".

Gizarte-egitura osoaren agerpena da, bada, hizkuntz jarduna, eta ez dirudi zilegi denik bere izaera maila linguistiko hutsera murriztea. Hizkuntz jardun hori, nolanañikoa delarik ere, sistema asimetrico batean oinarriturik egongo dela esango digu gero. Hots: alde batetik, A eta B hiztunek darabilten hizkuntzen (egoera diglosiko batean, adibidez) hierarki-maila mendekotasunezkoa izango da; eta, bestetik, gauza bertsua jazoko da hiztun horietako bakoitzari dagokion komunitateen artean ere. Bata nagusi, bestea esaneko: orekarik ez dago beraz honelakoetan, eta honelakoak izan ohi dira egitura soziolinguistikoaren barruko harremanak.

Euskal Herriko abagadune soziolinguistikora so eginez, aurrera dezakegu, txit bestelakoak direla euskaldunaren eta erdaldunaren hiztun-estatutuak. Lehenengoa, hain justu, mendeko estatututik mintzo da euskaraz ari denean (ez ahortzi, esan berri dugunez, gizarte-egitura osoa islatzen dela hizkuntz interakzioaren maunikuntzan); bigarrena, aldiz, gizarte-hegemoniak damaion legitimitate-babes guztiarekin ariko da. Hizkuntz erabileraren auzigaiak zentzu honetara bilduz, ez da zaila pentsatzea hiztunen arteko mintza-jarduna gizarte osoari darion efektu gisa hauteinan behar litzatekeela alegia. Hitz egitea ez da hizkuntzalaritzak argi dezakeen gizarte-fenomenoa; eta beste horrenbeste esan beharko genuke psikolinguistikaren inguruko ikerbideez.

Hizkuntz praktikaren giltzarri ezkutak

Bigarren puntu honetan ere, orobat, arras bestelakoa da Bourdieuren ikuspegia; zer ikusi urria baitauka, dakigunez, gure arteko iritzi nagusienekin. Goldeak lurra iraultzen duen bezala iraultzen ditu gure ikuspuntuak; gure pentsakeran hain funtsezkoak diren egitateak, berean gainazaleko erreinu dira. Hizkuntz normalkuntzaren strategi ildo ez ihardutean hitzetik hortzera darabiltzagun herri-ekimena eta erakunde publikoen eragin-efektuak ez dirudite hain erabakigarriak direnik. Ikus, bestela, zer dioen: "Gisa honetara, hizkuntzaren erabile-

ra-hedakuntzarako usatzen diren erakunde eta mekanismo publikoak nahiz presio-taldeak (herri mugimendua, alegia), guztionen gainazaleko alderdia baizik ez dira”.

Hizkuntzaren ezagupen-aitorpen legitimoa, hau da, hizkuntza horren zinezko errealtate sozio-politikoa, ez da inolako borondate-gogoarekin parekatu daitekeen auzia. Hizkuntza baten alde egin daitezkeen borondate-aitorpenek ez dute fisik ere aldatzen oinarri-oinarrian mintzaira horren estatus soziala. Hemen, dirudienez, boluntaris-moaren ideologiari eraso nahi dio, ideologia honen hizkuntz planteamenduek inolako sustrairik ez dutelakoan.

Bat dator, etorri ere, lege-dekretuen eragin-indarra hutsaren hurrengo delá azpimarratzerakoan: beti ere, noski, legetasun hori izari formalerá murrizten denean. Hizkuntz ohiturak ez dira neurri formalean eraginez eraldatzen; aitzitik, hiztunaren abantail soziokulturalak izan ohi dira ezarian-ezarian harririk gogorrena ere zulatzen dutenak. Bourdieuren hitzok dira esandakoaren oinarri: “Praktika-jardunean, ohar-kabea eta ezarian inkulkatzen zaizkigun disposizioen barrunbean sustraitzen da prozesua, hizkuntzaren esparru-merkatuen eraginaren mendeko. Kalkulu juridiko formaletatik at dagoen prozesua dugu hau; eta esatariaren etekin-ondasun linguistikoaren arabera gauzatzen da guztion hizkuntz jokaeran”.

Axola handiko kontua dugu puntu hau berreuskalduntze prozesua behar bezala planteatzeko; nik neuk bederen, besteak beste, hizkuntz usadioaren finkapena errotze aldera arestian izendatu diren bi gauzatarxo nabarmenduko nituzke. Bata, bere izaeraren *ezaritasuna*; eta, bestea, *etekin-irabaziaren* datua. Honezkero, barrenak agintzen digun galdara egitea beharturik gaude: euskararen nolabaiteko jakitea eskatu zaien funtzionari eta gainerakoen neurri bateko gaitzespen-muzina ez ote da hain zuzen bi elementu hauen argitan aztertu behar? Ez ote da alegia hizkuntza baten zinezko eta egiazko behar-premiarik ezak sorturiko jokabidea horien kasuan? Zeren, biziki aipagarria iruditzen zait hizkuntz ohituraren alderdi bikoitz hori: ezaritasun-inkons-

tzientearena, bateko; eta derrigortasunarena besteko. Biok bat egiten dutenean ez dirudi inolako bekozko beltzik jartzen denik.

Hizkuntza jakiteak ez dakar berez erabilerarik

Bi prozesu hauen arteko dialektika ez dugu oraino behar bezala ezagutzen. Barkatuko al dit, hain gurea eta hain eskergaitzeko izan gatzaizkion "Txepetxek", dialektika hori argitu gabe dagoela esaten badut. Bereak izan dira, dakigunez, inoiz inork Euskal Herrian egin dituen ikerbide sakonenak: norik ez ditu ezagutzen "baso komunikatzaileen" teoriar oinarrituriko hiru osagaien arteko harreman dialektikoak? Damurik, ordea, nago gauzak ez ote diren erabat eta osoki maila psikosozilogiko horietan erabakitzen. Nago, bestela esan, gauzak ez direla maila horietan soilik gertatzen, eta hainbestean, ulertzen.

Bourdieu-ren ekarpena, oraingoa ere, "iraultzailea" dugu. Esan nahi baita gure artean gailendurik dabilen iritzi "zentsudunaren" kontra ez baldin badago ere, biziki haratago doala bere formulazioan. Ez dago horretarako bere hipotesia hona aldatzea besterik, zertaz ari garen jakiteko: "Hizkuntza baten ezarpen-hedakuntzak zerikusi gutxi dauka lege-dekretuen neurri-bideekin. Horrela, onenean ere, hizkuntza horren halamoduzko jakite-ezagutza bermatuko da, baina ez, inondik ere, mintzabide horren erabilera jeneralizatua. Hots: bide honetatik ez da erdiesten hizkuntzaren berrekoizpen autonomoa".

Baten batek dagoeneko zera pentsa dezake: baina hori zeinek ukatzen du gure eztabaida-iritzien eremuan? Oker egon behar nuke, eta nahiago nuke halaxe egon, baina behatzaile zorrotza izan gabe ere, nik uste, zerako zeraz jabeturik gaudela bakarren batzuk. Eta honecian datza zerako zera hori: ekuazio soil-arrunt batek sortzen duen irudikapena baliantz, hizkuntz erabilpena formula honetara biltzea. Alegia: lege-arauen bidezko ikaskuntza-jakitearen hiztun ugaltzea berdin bihar-etziko hizkuntz erabilpenaren oinarri-berma. Eta hori, jaun-

andreok, ez da horrela. Arestian aipatu berri dugun prozesu dialektikoaren dinamika ezin da formula arrunt eta lineal horretara makurtu.

Hizkuntz ikaskuntzaren ezagutza-mekanismoak ez daude gizarte instantzia guztietan barrena egituraturik eta kateaturik. Horretarako nahikoa da maila sinboliko-kulturalaren eremuetan ezarriak dauden erakunde-transmisiobideak antolatzea: hezkuntz sistema, euskaltegi-egitura... Haatik, mintzairak, gizarte osoaren mintzabide izango bada, gainegitura horietan ezezik, gizarte-oinarriaren instantzia guztietan barrena txertaturik egon behar du erabilia izateko. Ez dira beraz ízaera bereko auziak bi hauek, eta alfer lana da halaxe bailiran hautematen saiatzea. Horra zergatik ditugun Bourdieuren ohar zoli hauek hain lagungarri eta argigarri. Hala bitez.

Hizkuntz ohitura ez da kontzientzian oinarritzen

Kontzientziak salbatuko gaitu. Hauxe izan da, eta hauxe da, aholuma askoren mezu etengabea. Eta halaxe uste izan dugu, eta sinistu ere bai. Baina, beste askotan bezala, hemen ere kolpe huts egin dugunaren irudipena nagusitu zaigu Bourdieuren eskutik.

Bestetara baino lehen, hauxe dio soziologoak labur eta zehatz: "Itxura guztien arabera, hizkuntz ohituraren eraikuntza hezurramitzen duten agindu-mezuak kontzientziatik pasatu gabe transmititzen dira". Eta lerroalde honek oraindik orain ikuitutako gaira garamatza: hizkuntza bat erabili ez dela erabiltzen motibazio logiko-arrazoitu baten arabera. Hizkuntz usarioa ezin dela kode linguistiko eta psikologiko mugatu-autonomoen dinamikapean bakarrik interpretatu. Bestela esanda: gizarte-ohitura berezi hau gizarte beroren osotasun-agerpen izan ohi dela. Osotasuna diogu, eta ongi diogu, halako eta halako giza esperientzia mugatuetara makurtu gabe; makurtzezina ezin makurtu, eta hizkuntzaren jokamolde hau halakoxea dela dirudi bere konplexutasunean.

Oker geundeke noski interpretazio-ahalegin hau egin ondoren Bourdieuk adierazi nahi ez duena guk geure aldetik ulertuko bagenu.

Ohitura honen izaera ez-kontzientea izatea, izan ere, ez baita inolako zimentarri materialik gabeko giza jokamoldean oinarritzea. Ez da hori, egia esan, amets-eremuko arau noragabeetan oinarritzen den anabasa. Ezta hurrik eman ere. Izan, beste muturrean dagoen izari materiala dauka hizkuntz ohitura horrek bere burutzapenean. Eta beste muturreko izari material hori, azken finean, dena delako hizkuntzaren legitimitate errealean funtsatzen da; ez du inork, era horretara, hizkuntza konkretu horren ezarpen-erabilera auzipean ipiniko, ez baitago motiborik mintzabide horren balio ofizial-funtzionala zalantzan jartzeko. Mintzaira baten baliagarritasuna kolokan dagoenean bakarrik, eta ez bestela, erneko dira hizkuntz gatazkaren izpiritu kritikoak; bestela esanik, hizkuntza horren gizarte-ohiturak barneratu gabe daudenean oraindik. Eta hau da euskararen egungo kinka, tamalez.

Hizkuntz erabilera-arauen mugarriak

Bourdieuaren irakaspenen artean, besteak beste, jadanik aipatu eta berraipatu dirugun ideia-ardatzak dauzkagu. Horietakoa bat, eta auziaren iltzea beste ezerk baino hobeki jolzen du, hizkuntz usuarioaren ohitura-araua da: arau honen funtsa hiztun-estatutuaren legitimazio-ahalmenean datza. Hiztun-esatari hegemonikoaren, eta beraz hizkuntz komunitate ofizial-nagusiaren, arabera moldera bereganatzen du hizkuntz usuarioaren arauak. Ez da noski noraezko determinazio mekaniko arrunta, hiztunaren estatutu hori; alderantziz, eta hauxe da axola diona, hizkuntz erabileraren arau orokorra finkatzen du berak.

Bestalde, hizkuntz erabilera eta ezagutzaren arteko lotura mekaniko arrunta dela eta, txit adierazgarria da halaber gaitasun linguistikoa-ren inguruko bere ekarpena. Hizkuntz gaitasun hori definitzeko irizpide nagusienek, ohargarria denez, oinarri abstraktua izan ohi dute gure hizkera soziolinguistikoan. Eta abstrakzio hori da salatzen duena Bourdieuk: "Berez gaitasun linguistikoa besterik ez dena, definizio abstraktu batean funtsatzen da: ez baitu halakoak hizkuntz ekoizpena-

ren gizarte-baldintzarik aintzat hartzen, eta hizkuntz gaitasuna, zinezko zentzuan, ezeri zor izatekotan, baldintza horiei zor zaie”.

Badago hirugarren osagai bat hizkuntz ohituraren gizarte finkapena azaltzeko orduan. Oker handirik egiteko beldurrik gabe, hirugarren elementu hau izango litzateke gainerako guztiak bere baitan gaindeterminatzen dituena. Harreman dialektikoen tirabiran, jakina. Inoiz ez, eta behin eta berriro ari gara esaten, auzi hauetan ez dagoela alde zuretik, patu beltzaren logika aurreikusian edo, determinaturiko prozesu linealik. Batak ez du, ordea, bestearen eguneroko froga enpiriko-pragmatikoa deusestatzen, eta Estatuaren ahalmen ahalguztidunak muga estuak dauzka etni-mintzaira minorizatuentzat.

Hizkuntz jardueren mugarriak, inoiz zorrotzagoak eta beste inoiz malguagoak, Estatu-hizkuntzaren gailentasunetik datozkio komunikazio-sarearen eremu zabalarari. Iritzi hori da behinik behin Bourdieuren iritzia, eta guri ere ez litzaiguke gehiegi kostatuko aho batez onartzea: “Hizkuntza ofiziala Estatuari atxekirik eraiki da. Eta hori, nola bere sorrera-garapenean, hala usadio sozialetan. Estatuaren eraikitze-prozesuan sortzen dira baldintzak hizkuntz merkatu bateratu bat hizkuntza ofizialaren mendean sortzeko: demizgorrezkoa izango da okasio ofizialetan eta beste horrenbeste suertatuko da esparru ofizialetan (eskola, herri administrazioak, erakunde politikoa, etab.). Estatuaren hizkuntza hau izango da hizkuntz jokamolde ororen arau teoriko eta neurbide”. Azkeneko puntu horixe dugu naharmendu beharrekoa; hau da, Estatu-hizkuntza izango dela handik harat hizkuntz praktika guztien galbahea. Eta, gure helburua hemen, hiztunaren hizkuntz ohitura determinatzen duen hizkuntz arau sozio-politiko hori atzematea denez, ezin bada ezikusiarrena egin eragin-muga nagusi horri.

DIGLOSIAPEKO HEZKUNTZA ELEBIDUNA

Hezkuntz komunitatearekin aldez edo moldez harremanik duen edonork daki 1993ko maiatzean Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu zela Gasteizko Legebiltzarrean. Legedi berri hori, bestalde, ez zen soilik eskolaren funtzionamendua eta egitura ezartzera mugatzen; horrekin batera, eta bide batez, irakasleriaren estatus-egoerari zegokion dekretua ere orduan jarri baitzen indarrean. Horrenbestez, Euskal Autonomi Elkartearen, eskola-sare publikoaren arauztapena burutik burura zehaztua eta finkatua geratu zen.

Irakaskuntzaren alorreko legeria-marko berri honen ondorioz, Autonomi Elkarte honetako bi hizkuntza ofizialen hezkuntz tratamendua, orobat, iharduera-arau zehatzen mugarrietan kokatu zen. Hezkuntz sistema honetan, hots, derrigorrezko irakaskuntzaren eremuan, euskara eta espainiera, inolako alderik gabe, ikasle orenen mintzabide bihurtu dela xedatu baita. Hori dio, behinik behin, delako legeria berriak: hizkuntz gaitasun askiaren jabe izango dira ikasleak oro, batean zein bestean, derrigorrezko ikasprozesu horren amaieran.

Eskola publikoaren sareko ikastetxe guztiak, beraz, indarrean dagoen hezkuntz legeria horren mendeko dira. Xede batzuk bestalde finkatuak daude. Eta horien artean, hizkuntz xedeak: nola ahazkoan hala idatzian, Autonomi Elkarte honetako haur-gaztetxo orok euskaldundurik atera beharko luke, legezko arauak betetzen badira behintzat,

eskolaketaren arotik. Legeak, ordeak, ez dira beti eta non-nahi gizarte-errealitate objektiboaren islada izaten, eta gure egitura soziolinguistikoa pittin bat ezagutzen duenarentzat, errezeloz-zantzu larregi dago euskalduntze auzi honetan gerta dakigukenez. Ez nuke, ez horratio, aurreste funsgabeen lintziri arriskutsuetan laban egin nahi. Dena delakoak begira nazala, halakoetarik!

Gizarte-molde diglosikoa

Soziolinguistikaren eremu teorikoan, urte gutxiren buruan, horren kontzeptu-giltzarria bilakatu den diglosia hitzaren zertzeladarik emateko asmorik gabe, mintza gaitezen hezkuntza diglosikoaz. Ez gara hasiko, esan berri dugunez, bere jatorrizko adieraren esangura zedarritzatzen (Ferguson); ezta ere, halaber, geroko hadiera-hedaduren aplikazio teorikoa norainokoa izan den seinalatzen (Fishman...). Bego, besterik ezean eta hobebharrez, hemen izendatuko den adiera soilduaren zentzia gure lan honen xede-asmoak aski ongi betetzen dituelakoan.

Hizkuntzaren egoera soziala bere gizarte-txertapenaren arabera egon ohi da egituratua. Zenbat eta txertapen sakonagoa, batez ere botere-mekanismoen gizarte-mailetan, orduan eta estatus oparo eta ahaltsuago izango du bere eskuko. Gizarte antolamenduaren egitura, dakigunez, bata besteari gainjartzen zaizkion klase eta instantzien teilkapenaren moldera itxuraturik dago. Harremanak, hortaz, hierarkizaturik daude gizarte maila guztietan; katemaila bakoitzak bere funtzio eta agintea izango du, eta horietako alor bakoitzaren autonomia erlatiboa egiaztagarria bilakatzen da egoera normaletan.

Gizarte-irudi horren barmean hauteman behar dugu hizkuntzen arteko gatazka. Irudi horri darion beste irudi bat erabili nahi nuke diglosiaren hizkuntz harreman-sarea marrazteko.

Egin dezagun kontu, gizarte egitura eta agenteen sistemaren baitan, goiko eta beheko funtzio eta rolak betetzen dituela hizkuntzak ere.

Hizkuntzarik gabeko gizarte-jarduerarik ez dagoenez, iharduera sare-aren atal guztietan eskuhartzen du hizkuntza-izariak. Gizarte-sistema bakar batean bi hizkuntza baldin badaude elkarren ondoan, erabilerrari dagokion funtzio-sailkapena berezko ondorioa izango da. Nola sailkatzen dira, hortaz, hizkuntzon zereginak elkarri gainjarririk dauden gizarte-eginkizun teitlatuetan?

Hizkuntza batek, Estatu-hizkuntzaren egitura legala eta politikoa duelako, gizarte-antolamenduaren goi-instantzietan bere nagusitasuna erakutsi du. Hizkuntza legitimoa izango da: legitimitate hori aitortuko baitiote hiztun guztiek, ez soil-soilik bera ama-hizkuntzatzat duten esatariek. Pentsa dezagun, bada, bi hizkuntzen arteko bat, gizarte-indarren onspen legitimoa eta ofiziala duelako, hizkuntza hegemonikoa izango dela erabilera-eremu nagusienetan.

Hizkuntz hegemonia, gizarte-hegemoniari darion estatus-harremana da. Mintzaira bat, berez, ez baita bestea baino gehiago edo gutxiago; behin eta mila aldiz berresandako lefoa dugu hau. Baina, zoritxarreko botere-harremanen orekarik ezaren ondorioz, hizkuntza bat ez da sekula baldintza objektibo horietatik landa bizi. Berezko kualitate eta gaitasun linguistikoen *corpus*-izaerak ez du, ez, gauza handirik balio, hizkuntzen arteko gatazkok tartekatzen direnean. Hizkuntzaren soziologia dugu, horrelakoetan, gidari.

Gidaritza teoriko honen argitan, hizkuntza bat, erabilera eremu guztietan, nahiz goiko nahiz beheko, jaun eta jabe izan ohi da: funtzio ofizial eta formal guztietan gailen, eta gainera erabilera-eremu ez publikoetan ere (hizkuntz kode ez-formaletan, alegia) bere gizarte-erropena zabal-oparora izatera iritsiko da denborarekin. Bien bitartean, hizkuntza ukatua edo ofizialtasunik gabekoa, edota bigarren mailako ofizialtasun-gradua duena, besteak lagatzen dizkion gizarte-zereginetara alboraturik biziko da. Bizi, jakina, hiztunak bizi dira; eta esatari zokoratu horiek, bistan denez, mendeko gizarte-sareen baitan egitura-tzen dira. Bigarren hizkuntza honen estatus soziala, den bezalakoa

delako, esango da egoera diglosikoan dagoela. Hona, beraz, diglosia-
ren jatorria eta zergatia.

Irakaskuntza diglosikoa

Diglosia kontzeptuaren ekarpenik eragingarriena, ezbairik gabe, honako ideia-muinean datza: hizkuntzaren gizarte-eremu eta funtzioen zer-nolakoa egitura asimetricoan funtsaturik dagoela. Hizkuntza bakoitzaren gizarte-sistema nolakoa, halatsukoa izango da derrigorrez mintzaira horri dagokion lekune-zeregina. Nekez jakin liteke, jakiterik egotekotan, hizkuntza baten *estatus*-egoera zertan den, harik eta bere izatearen funtza den gizarte-sistemaren botere-sarea nola egituratzen den jakin arte.

Marko teoriko honen arabera, eskolaren hizkuntz plangintza eta iharduera, gizarteari darion sistema soziolinguistikoaren baldintzapean kokatu behar da. Gizarteko sistema soziolinguistiko horretan hizkuntza bat bestearen gainetik gainezarria baldin badago, bere gizarte-hegemonia eta legitimitate ideologikoa bestearen gain oinarritzen bada, irakaskuntzaren hizkuntz iharduera osoa baldintzapean horien ondorioz gaideterminaturik egongo da. Halabeharrez, egon ere.

Ikastolen eta euskarazko irakaskuntzan diharduten ikastetxe guztien erronkarik behinena egitura soziolinguistiko asimetrico horri aurka egitea izango da. Egiturazko desorekak neutralizatzea. Hezkuntz eremu autonomo bat eraikitzea. Ikastorduen eta aisi-aldietako giza harreman guztietan eskolaumea euskarazko sare edo bainu linguistikoan barneratzea. Ikastetxe hauen ingurunea, orohar, erdal munduaren eraginpean moldatutako eredu soziolinguistikoa baita, euskal eremuko salbuespenak salbu. Euskal irakaskuntzaren baldintzapean orokorrak, hori eta horrenbestez, sistema diglosikoaren barnean egituraturik daude, eta hori da eskolaren euskalduntze-xedea helburutzat finkatzerakoan oinarritzko datu nagusia.

Hezkuntz sistemaren kontzeptua azpisistemaren irudipean hauteman behar genuke ingurunearekin dauzkan elkarrekintzak zehazteko. Arestian izendatu berria dugun autonomia erlatiboaren izaera, orobat, funtsezko kontzeptua da harreman horien zer-nolakoaz mintzatzeko. Izan ere, azken buman, ikastetxearen autonomia erlatiboan datza eskal irakaskuntzaren giltzarria. Orain arteko lerroetan irudikatu dugun eskolaren izaera, gizarte-sistemaren baitako indarren berroizpen-moduan zirriboratu dugu. Hots, eskolaren eginkizuna nolabait ere, gizarte-sisteman nagusi diren indar-harremanen oihartzun gisa finkatu da. Horra, bada, autonomia erlatibo horren egundoko inportantzia eskal eskolaren erronka honetan.

Hezkuntz eremuari esleia dakioken autonomia erlatibo horrek ba ote du bitartekorik gizarte diglosikoari aurre egiteko? Zein neurritan sor dezake eskola-aparatuak eskal gizarte elebidun orekatu baten ememuina? Ba ote du horretarako ahalmenik? Erantzuna baiezkoa balitz, eskolaren baitan itxaropen-iturri sendoa edukitzeko ziorik ez litzaziguke faltako. Aldiz, ezezkoa izatekotan, eskolak gizarte diglosikoaren aurka egin dezakeen borroka-saioa bertan behera amilduko litzateke.

Eskolaren eragin-mugak, ikertuak dauden neurrian, ez dira guretzat pozez lehertzen egoteak. Gizartearekin dauzkan lotura-elementuen katean, hura batez ere honen oihartzun gisa itxuratzen da. Hainbeste aldiz aipatzen den autonomia erlatiboaren kontzeptua, dirudienez, oso zentzu zabalean eta malguan ulertzeko ideia da; eta ez dirudi inoiz hauteman daitekeenik erabateko autonomiaren zentzuan. Erran nahi baita, eskolaren estatutu bereziari nekez aitortzen zaiola, aitortzen bazaio noski, bere dinamika propiorik. Hori eta horrenbestez, zertan da eskuartean dugun gaia? Zertan da alegia eskolaren funtzio antidi-glosikoa? Eskolak ba ote du eskurik indarrean dagoen egoera diglosikoa hein batean iraultzeko?

Aho batez onartzen den arrazoibidea dugu honakoa: eskolaren euskalduntze-jarduerari gizarte-euskarri osagarriak gehitu behar zaizkio

hark bere lana taxuz betetzeko. Osterantzean, euskararen egoera diglosikoak betikoan jarraituko du. Eta honezkero inork gutxi ezeztatuko du goiko tesi hedatu hori: hezkuntz elebitasunaren jarduerak zein ekarpen teorikorik sustraituenek tesi horren aldeko ondorioak erakarri dituzte azken urteotan.

Esandakoak esanik, irakaskuntza diglosikoan ez jausteko, gizarte sisteman nagusi diren hizkuntz lotura diglosikoak gaintzen hasteko, euskal eskolaren eredu justu-justu alderantzizkoa behar dugu. Alegia, euskara hutsesko giza sare eskolarra garatzen duen eredu; erdararen funtzio hegemonikoak desagertzen diren eskolagintza; gizartetik datozkion hizkuntz eta kultur erreferenteen ezarpena indargabe dezakeen euskal hezkuntza. Neurri guztiok harturik ere, lanak izango ditu euskal eskolak bere erronka historiko hau hezur-mamitzeko. Esan gabe doa, jakina, irakastereduen politika linguistikoak ez duela lekurik planteamendu honetan (Katalunian alboratua dago dagoeneko irakastereduen glotopolitika). Intenbide bakarra, eta ez erabat itxaropentsua, eskola-estatutuari darion autonomia erlatiboaz baliaturik, burutik burura euskara hutsean garatuko den heziera dugu.

MAMIA ETA ITXURA EUSKALGINTZAN

Inondik ere, hizkuntzaren definizioak eragin handia dauka hizkuntz plangintzaren eta politikaren baitan. Gure artean, ideologia nagusiak hartara bultzaturik, hizkuntzaren definizio makurra nagusitu zaigu beste batzuen aldamenean. Horretara, euskara ez litzateke jadanik sortutako mezu-eduki prelinguistiko batzuen komunikazio-tresna baizik izango. Baina hizkuntzaren tresnatasun hori baino okerragoa da oraindik, mundu sinbolikoa eratzen duten sistema kultural eta ideologikoen aurrean, hizkuntza nola definitzen den ikustea: hau da, pentsamendu eta sentipenen eremu hori mundu prelinguistikoa da nonbait, eta bere eraikuntzan ez du erdarak zerikusirik izan. Nolazpait, mundu hori, bere erreferentzia eta identitate-ezaugarri guztiekin, ez da linguistikoa, ez da erdalduna, ez da espainoltasunetik eraikia izan. Hitz batcan, sistema kultural-ideologiko hori neutroa da, eta hizkuntza hautatzea da zioaren irispen guztia: euskara erabili nahi baduzu, erabiltzazu, edo bestela erdara. Euskara-tresna eraiki behar dugu bere hiztegi eta industria linguistiko guztiarekin.

Hizkuntzaren izaera funtzio mekaniko horretara mugatzeak, esan berri dugun bezala, ondorio nabarmenak ditu gurean. Hizkuntza bat, bigarren hizkuntzaren funtzio mekanikora murrizten duzunean, hots, pentsamenduaren eta sentipenen unibertsoa erdaratik eraiki eta, ondoren, errealitate horren balore kultural-sinbolikoak euskaraz transmiti-

Izen dituzunean, bistan den bezala, euskara ez da funtzio horretan tresna mekaniko huts bat besterik. Alabaina, hori euskararekin gertatzen zaigu; ez erdararekin. Euskara, gisa horretan, tresna mekaniko hutsa den bilartean, erdara gizartegintzaren baitako osagai eratzailea dugu. Eta ez, jakina, erdara euskara baino garatuagoa dagoelako soil-soilik; baietik eta, horrekin batera, bi hizkuntza hauek eta errealitate soziokulturalaren arteko harremanak erabat bestelakoak direlako. Izan ere, euskara hizkuntza arrotza da errealitate soziokultural horretan, batez ere errealitatearen pentsamendu eta kultura hegemonikoaren eta dinamikoaren eremuan. Erdara, aldiz, kidesan oso-osoan dago errealitate material eta sinboliko horrekin; esan dezagun, bada, bat datozela euren izaeran eta zentzuan.

Are gehiago: Hego Euskal Herriko egungo abagadune kulturalan eta soziolinguistikoan pentsamendu eta kultura espainola ez da bakarrik erdaraz ekoizten eta kontsumitzen. Nolabait esateko, euskalgintzaren beregaintasuna ezinezkoa bilakatu da; besteak beste, euskalgintza jarduera linguistiko hutsa ez delako, eta, hainbestean, jarduera horren oinarrian jadanik egituratua dagoen gizarte-bizitza erdaratik eratua dagoelako. Euskalgintzaren autonomiarik eza, hortaz, ez da ideologia sektorial-partidistetatik datorren arazoa; gure artean, halere, halakotzat jo izan da maizena. Alegia, euskararen gaineko instrumentalizazio-auzitzat hartu izan da autonomiaren arazo hau; baina, kezka hori ukatzeko asmorik gabe, hutsaren hurrengo da hori guztia esku artean dugunarekin erkatuz. Hain zuzen ere, euskalgintzaren autonomiarik eza euskararen estatus soziokulturaletik eta politikotik baitator. Arestian esan dugunaren haritik, bigarren hizkuntza gisa transmititzen da hainbat irakasgunetan, baina, eta hementxe datza auziaren muina, ikaskuntza horretan ez da garatzen bigarren kultura-sistemarik orpo-orpo. Euskal kulturarik gabeko euskara alegia; euskararen unibertsio sinbolikoari dagokion pentsaera, sentiera eta jokaerarik gabe, bere gordintasan osoarekin adierazita.

Hori eta horrenbestez, zer datorkigu kulturbitasunik gabeko elebitasun horretatik? Zertarako balio du, alegia, erdal ikusmolde eta balo-

reak jaun eta jabe diren unibertso simbolikoan euskararen kultura etniko-folkloriko batek? Deusetarako ez. Eta baldintzapen bortitz honek ezartzen du hain zuzen euskara ezin gizarteratuaren arazoa; zeren eta, pentsatzekoa denez, bigarren hizkuntza bat gizarte-sistemetan txertatzea ez da jarduera linguistiko-pedagogikoa, aribide kultural-ideologikoa baizik. Zer da bada, izan, delako hizkuntz atxekimendua? Noraezekoa omen den baldintza. Gauza jakina denez, baldintza hori ez da funtzio psikolinguistikoetara mugatzen, eta mintzairaren kode soziolinguistikoaren baitan eraikitzen da. Beste modu batera esanik, gizarte-bizitzarekin bat datorren hiztun-subjektuaren sozializazioan bakarrik sortzen da hizkuntzarekiko atxekimendua. Inoiz ez bigarren mintzaira erara irakatsita; batik bat, ikaskuntzaren izaera jarduera akademiko-formalaren ildoan burutua dagoenean. Honek, besteak beste, zera esan nahi luke: hiztunaren kode soziolinguistikoa gizarte-harremanez eraturikoa dela, eta ez dela mugatzen hiztunaren nortasun-identitate soilera. Nortasun identitateaz mintzatzean, sistema soziokulturalari darion izaera bera hartu beharko genuke gogoan. Irungo hiztun-subjektuen nortasun nazionala eta Hendaiakoena badakigu zein bestelakoak diren, eta badakigu orobat auzi hori Estatu-nazioaren baitako identitate-eraikuntza izan dela, horiek euren egituran txertatua duten botere-ahalmenari esker.

Nola uztartzen dira, ordea, esanahi kultural eta ideologiko desberdinak hiztun-gizabanakoaren baitan? Nola bereganatzen ditu euskaldun elebidunak, esaterako, bere inguruari darizkion balore-erreferentziak eta mundu zabaletik datozkionak? Gai honen inguruan Basil Bernstein-ek zera zioen behinola: esanahi kultural-ideologiko unibertsalak ez daudela gure ingurune zehatzari loturik. Nonbait, ideia eta sentipen hauek badute besteek (herria, edo nazioa, edo...) ez duten autonomia-maila. Guztiarekin ere, eta Bernstein-en hipotesiari jarraituz, zera eratoritzen da beste aldetik: gizabanakoaren sozializazio prozesuan erreferentzia eta esanahi kultural-ideologikoak lekuan lekukoak direnean, identitate-osagaiok hertsiki loturik egoten direla egunero-ko bizitzaren gurgilari. Orohar, sozializazioaren ardatza eta muina

bigarren prozesu honetan nagusi diren balore-dukien arabera hezur-mamitzen da. Eta Irungo eta Hendaiako adibidearekin segituz, begien bistan dagoen ondorio honetara iritsiko ginateke: bi herri horietako gizabanakoen idenditate nazionalak bere mamitze-marko materiala eta kulturala dauka alegia, Estatu-naziotzat ezagutzen dugun egitura politikoa hain zuzen. Hona, beraz, euskalduna zergatik sentitzen den (sentitu bakarrik?) frantsesa Iparraldean eta espainola Hegoaldeko eskualde eta gune frankotan.

Euskalgintza gizartegintzaren ildoan kokatzen den prozesua izanik, sozializazioaren barne osagaiak tarteko ditu bere eraikuntzan. Baina nola obratzen da, zinez eta benetan, euskalgintzaren buruzapen hori sozializazio-mekanismoei degokienez? Bestela galdetuta: euskalgintzaren baitan hezten eta hazten ari diren belaunaldi berriek gizarte-sozializazioaren baitako baldintzak euskaltasunaren arabekoak al dituzte? Erantzunak, damurik, ezezkoa izan beharko du egungo abagadune honetan. Eta problematika honi atxekirik dago indarrean dautzagun hizkuntz politikaren noraeza. Hizkuntza politika honeu oinarritzko planteamendua, dakigunez, zera da: gauza guztien gaitetik (nazio-identitate eta kultura-balore euskaldunak albora lagaz) bideratu ohi du euskararen irakaskuntza. Gehienez ere, euskal kultura etnikoaren ezpaleko elementuak garatuko dira onenean. Eta, horrela, ezinezkoa da euskararen gizarterapena edo normalkuntza soziala: euskara, izan ere, transmissiobide horretan ez baita bigarren mintzaira mekaniko eta akademiko hutsa baino askoz gehiago.

Nondik datorkigu, horretara baldin bagoaz, “eskola euskaraz” edo hizkuntz ereduaren politikaren porrota eskolaumeen baitan euskal herri-identitatea eraikitzeko orduan? Euskara, erdal kultura hegemonikoaren azpiosagai mekaniko hutsa bilakaturik, euskalgintzarako “tresna” kamutsa egin zaigu bere ezerezean. Egin dezagun kontu, izan ere, euskararen bigarrenotasun izaera ez dela nozio kronologikoa, gizartegintza eta kulturagintza hegemonikotik kanpo dagoen hizkuntza zokoratu baten gaixotasuna baizik. Eta ez da itxaropen errazik erne behar

gai honetan, *corpusaren* plangitza eta garapenari dagokionez, aurrera-pausoak eman direlako. Gaitz hau ez baita hizkuntzalaritzaren eremuko auzia, hizkuntzak gizartearen estatus-egituran duen lekune eta egitekoari dagokiona baizik.

Euskal Autonomi Erkidegoan gailendu den hizkuntz politika ofiziala, euskarari bagagozkio, ezaguna bezain makurra da. Politika honen funtsa, laburzurrean, honetara biltzen da: euskararen hedapena hizkuntzaren dimentsio soziokulturala eta nazionala alde batera utziz bideratu nahi izan da. Edota, beste modu batean esateko, erdal kultura elebakarraren (kultura-ideologia-jokaera hegemonikoaz ari gara) monopoliopean euskararen ezagutza eta erabilera erdietsi nahi izan dira. Eta, jakina, nola egin liteke txepelkeria itzelagorik atzerriko adituz josita ibili ohi den Hizkuntz Politikaren Idazkaritzatik? Zertan gara: arazoa teorikoa da, edo polititua? Alegia, jakin badakite bigarren hizkuntza ahuldu bat ezin dela gauza guztien gainetik (*curriculum* formalaren eta ezkutukoaren eduki-marniak alde batera utzita, alegia) irakatsi eta erabilarazi, baina erdal errealitatearen araberrako nagusitasunari aurre egiteko gaitasun ideologiko-politikorik ez dago? Inondik ere, azkeneko hau gertatu bide da. Eta ondo asko dakigun bezala, elebitasunak taxuzko emaitzik ematekotan kulturbitasunaren osagaia bere baitan txertatua eduki behar duelako, inplikazio politiko nabarmenegiak dauzka bere aldetik, eta, damurik, egungo erregionalismo politikoak ez du egoera trakestu horri aurre egiteko ahalmenik. Euskal nazionalismoaren noracza eta ahultasuna beste inon baino garrazkiago islatzen da auzi honetan; bai bere planteamendu teorikoetan eta bai bere praktika politikoan. Azkenekoan batez ere.

Nola sortu, hortaz, hiztun berrien aldetik, ezinbestekoa den hizkuntz atxekimendu edo kontzientzia hori? Abiaturuko egoera badakigu ez dela erraza. Guztiarekin ere, ordea, horrek ez du aditzera eman nahi euskararen zoria odol-jario bortitz batek jota dagoelako edo, mamirik eta gizarte-funtziorik gabeko elchikuntzara makurtu behar dugunik. Horretarako arrazoi bat hauxe izan liteke: egungo hizkuntza politika koantitatiboak, nola-halako euskararen transmisioak, ez duela

oinarri sendorik ezartzen euskalgintzaren estrategian. Betelana egiten ari gara, etorkizuneko euskalgintzari oinarriak jarri beharrean. Euskaldun berrien hazkundera (ehun mila gehiago omen gara) dela-eta, zenbatekoen lilurapean euskara bigarren hizkuntza mekaniko gisa programatuz, baina, aldi berean, bigarren unibertso kultural eta sozialik gabe, euskalgintzaren atarramenduak erreka joko du zuzen-zuzen. Hobe litzateke, horrela jarraitu ordez, zenbatekoen itxura huts horren azpitik, nolakotasunari begiratzea, euskararen gizarte-normalkuntzaren estrategia egitura-izaerako oinarri sendoz bermatzeko. Ez baitu gauza handirik balio egungo hogeitabosta bihar-etziko hirurogeia bihurtzea, zenbaki-politikaren oinarri hutsaletan aitzinera egiteko.

Amaitze aldera, eta Bernstein-en ekarpenak gogoan, planteamenduen zio teorikoa gogora ekarri nahi nuke. Gure gogoeta gidatu duen tesiaren arabera, hain zuzen ere, harreman sozialen eta nazionalen formak esanahi-edukien (kulturan, ideologian, baloretan...) baitan eragin selektiboa dauka; mintzairaren bidez adierazitako mezu-edukietan, alegia. Mintzaira, horregatik, harreman sozial eta nazionalen arabera, izango da beti, hiztun-gizabanakoa harreman soziolinguistikoko horien eramaile delako. Hizkuntzaren aldaketa, hori eta horrenbestez, ez da, besterik gabe, mintzairaren aldaketa. Hizkuntzaren aldaketa harreman sozial eta nazionalen arabera, izango da, ezer izatekotan, edo gainerakoan ez da funtsezko hizkuntz eraberritze soziologikorik suertatuko.

Laburbilduta, eta itxura guztien gainetik eta aurreste ainitzen kontra, hizkuntza bat ez da beste baten ordez aldatzen besterik gabe. Hizkuntza bat ezin delako, izan ere, beste baten lekune sozial eta nazionalaren kokagune berean ezarri egitura soziokulturalaren baitako ego-kitzapenak direla bide; hizkuntza bakoitzak bere lekune eta kokapen historiko-politiko jakina baitu nazio-ereduen arabera. Hizkuntza nazionala deritzon hori, estatu-nazioak bere errailetan oratu duen hori, ez da ekoizpen gramatikal-akademiko hutsa; aitzitik, Estatu-nazioaren matrizean garatutako kode historikoa baizik.

Baldintzaren soziokultural horiek direla bide, hizkuntzaren aldaketa erro sakonak dituen bidea da zinez. Hizkuntzaren azpian dauden egitura soziokulturalak aldatzea edo egokitzea, noraezekoa izango da hizkuntza politika bere helmugara iristea nahi bada. Herri-eredu eta hizkuntzaren arteko egokitapena da bereziki bertsolari miresgarri baten bertso ahantziezin batean jasotako mezua: "Herria da gorputza, hizkuntza bihotza; bertzetik berextean bitarik bakoitza, izaitte horrendako segurra hil hotza". Xalbadorren sena sakon horretan egia borobila adierazten da: minizaira herritasunaren zutabea da, eta, aldi berean, herria hizkuntzaren izate-arrazoia da. Eta, tamalez, Iparraldea bera da barne-lotura etenezin horren legea hausten duen hizkuntz komunitatea. Herriaren zilborra eten den heinean, euskararen zoriak patu goibela agertzen digu lurralde horretan.

HIZTUNA HARREMAN SOZIOLINGUISTIKOEN ERAMAILE

Euskararen inguruko buruhausterik goriena bere erabilpena baldin bada, beste hainbeste gertatzen zaigu arazo horren gaineko definizio teorikoarekin. Izan ere, definizio horren harian faktore batzuk beste batzuk baino esanahitsuagoak dira, edo eragile horien izaera oso modu empirikoz jantziko dugu, edota abstrakzioaren zurrumbiloan galduko gara... Ez da erraza, beraz, batetik dauden joera eta ikuspegi mikroak eta bestetik aldarrikatzen diren planteamendu makroak egokiro ezkontzen. Bide gaitza da, azken batean, hiztun-subjektuaren lekunea, batetik, eta egitura-sistemen izaera, bestetik, dialektika sincesgarri baten ildo teorikoan kokatzea.

Ikuspegi subjektibisten arrazoibidea kritikatu izan dugu gutako batzuek. Hauen arabera hiztunak ez dauka abiaburuko eta egoerazko baldintzapean gaindiezinik: hots, norik bere borondatearen esku dauka hizkuntz hautua egitea, bere kontzientzia indibidual askearen arabera moldatzen du hizkuntz jarduna. Planteamendu honen ezaugarririk nabarmenena, dirudenez, honetan datza: gizabanakoaren abiaburuko askatasuna erabatekoa da gizarte-harreman soziolinguistikoaren saretan barrena ibiltzeko: Nahi izatea eragingarriagoa da ahal izatea baino. Borondatea da jaun eta jabe giza jokamoldearen zertzeladak arakatzerakoan.

Bestelakoa da guri leporatu izan zaigun kritika. Nolabait ere, gizarte-egituren aldetik alde zurretik ezarria omen dagoen determinismo

mekanizizta egotzi izan zaigu kritikaren ezteztzat. Ez bide dugu, non-bait, sobera sinesten hiztun-subjektuaren ekimen-ahalmenean: itxura denez, gure planteamendu honen funtsean, gizakiaren jokaera ez da nork bere esku daukan aukera-ahalmena, baizik eta gizarte-joera hegemonikoen eskuko ibili ohi da delako gizajoa edo gaixoa. Egiturak hiztunaren gaineratik daude, alegia, eta nahimenen eskuak ez du eragin erabakigarrik izaten hizkuntza erabileraren araubidean.

Nola irten, hori eta horrenbestez, ataka estu honetatik? Nola gainditu delako dikotomia hori? Hona, bestetara baino lehen, proposamen itxura duen adierazpen hau: demagun, horrela, hiztun-subjektua egitura soziolinguistikoen eramailea dela. Alegia, hiztuna ez dago egitura soziolinguistikoen gaineratik edo azpitik; ez dago haien esaneko, baina ezta haieetatik libre ere. Argi eta garbi esateko, haien eramailea da. Hots: egitura-mota (pertsonala edo kulturala edo politikoa edo...) edozein delarik ere, haien izaera eta funtzioa bere baitan daramatza delako hiztun-subjektuak. Bere baitara biltzen ditu, hortaz, sistema soziolinguistikoaren ezaugarri eta izaerak.

Gauzak era horretan ikusita, esango genuke, hiztuna ez dagoela aldezturik, modu mekaniko batez, honetara edo hartara makurtua; ez dagoela, hain zuzen, hizkuntza bat edo bestea nahitaez erabiltzera behartuta; baina, orobat, ez dagoela bere izaera sozialetik kanpo ere. Eta izaera sozial horren tasuna darama, guk uste, bere soinean itsatsita eta horren arabera ibili beharko du mundu honetan bizi den bitartean. Zentzu horretan, euskaldunak hemengo egitura soziolinguistikoen harreman materialak eta ideologikoak daramatza itsatsirik bere izatearen funtsean. Harreman-lotura horiek daramatza eta horien arabera moldatuko du bere hizkuntz aukera. Laburki esateko, soziolinguistikazko egitura-harreman horiek dauzka bere ahalmen eta muga.

Gure tesiaren oinarrian hiztun-gizabanakoaren egitekoa eta jarduna hiru egitura-mailatan hezur-mamituak ageri dira. Hirurak daude zein bere eskuko; baina, aldi berean, hiruren arteko elkarregintza eta baldintzapena etengabea da. Ikus ditzagun, bada.

Egitura pertsonala

Egitura pertsonalaren sisteman kokatuko genituzke pertsonari eta bere nortasunari dagozkion gertakari eta fenomeno mikro-psikologiko guztiak. Esaterako, gizabanako baten hizkuntza atxekimendua: hau da, hizkuntzekiko dituen kontzientzia eta sentimenduak, jarrera-motibazioak, interesak etab. Halaber, norbanakoaren egitura honetan kokatzen da hiztunaren elebakar edo eleaniztun izaera; mintzaira horietan daukan komunikagaitasun soziala. Hitz batean esateko, hor barnerratzen dira, hor nortzen dira, kanpotik datozkion eragile soziolinguistikoek ezaugarriak. Nolabait adierazteko, egitura indibidualizatu horren sistema psikikoan gorpuzten dira kanpoko sistema soziolinguistikotik datozkion eragile ideologiko-kulturalak.

Sistema pertsonal hau, ezagun denez, ez da erabat autonomia bere funtzionamenduan; hots, gainerako sistemekin atxekidura askaezinak dauzka. Eta hori dela medio, hiztun-gizabanakoaren egitura pertsonal honek ez du inoiz hizkuntza erabileraren jokaera eta ohitura determinatzen. Eragin bai, jakina. Eraginkortasunaren nolakotasuna gainerako sistemekin taxutzen duen egitura soziolinguistiko oso-betearen baitan baitatza, eta hor daude bateko eta besteko eragile-aldaerak. Baina zehaztasun zorrotzez hauteman behar da eragile autonomoen izaera. Zeren, oker ez bagaude, nor bere sistema indibidualizatuan osaturik dauzkan elementuen eragin-indarra ez da bakarka bideratzen den eragina, gainerako egitura-mailekin batasunean osatzen den sistema globalaren barnean gaindeterminatuak baitaude haiek. Bestalde, gaindeterminazio dialektiko horrek erabaki ohi du eragile pertsonalen eragin-indarra eta nolakoa.

Egitura funtzionala

Egitura funtzionala, edo esparru-funtzioen sistema dakargu bigarren gai honetara. Hemen, besteak beste, inguru hurbileko egiturak kokatzen ditugu: demagun, esate baterako, familia eta eskola, edo

lagunartea eta auzo-herria. Osagaiok, gure iritzirako, aurrekoak baino konplexuagoak dira euren funtzionamenduan. Bestalde, haien izaera mikroaren aldamenean hauen izari makroa nabarmentzen da begien bistara. Erdibideko egituratzat har ditzakegu hauek nolabait ere: haien izaera pertsonal eta hurrengoan arteko zubitzat finkatzen dira, hurrengoan botere-izaera azpimarratu behar delarik (Estatua, egitura politikoa...).

Hurbileko egoera soziolinguistikoaren lekuko diren sistema hauek ere, aurrekoan bezalaxe, ez dira beregaintasunaren jabe. Eta autonomiarik ezaren arrazoia, azken batean zeran datza: sistema hauek ere, mendeko direla, osotasunareu taxuera moldatzen duten beste batzuen artean. Azpisistemaren izaera baldin badute, sistema hegemonikoen nagusien arabera ekoiztuko baitituzte beren ezaugarriak; mendekotasuna, hain zuzen, hortik datorkie delako osotasu globalaren barnean. Baina, horretarako, ez dago esenplu bat jartzea baino gauza argiagorik. Har dezagun familiaren hizkuntz politika, esparru bat hartzeko. Zer gertatzen da politika horren gauzapenean? Edota, beste era batera galdetuta: zenbaterainokoa da hizkuntz politikaren beregaintasuna familiaren esparrua ingururatzeko gainerako sistema eta eragileen artean? Familiaren hizkuntz politika ezin da egon erabat kontraktarean familia hori kokatzen deneko egitura soziolinguistiko uagusiarekin. Leherrenak eginda ere, goiz edo berandu, joera soziolinguistiko hegemonikoen eragina familiaren baitan txertatuko da, delako familia hori gizarte-eredu dinamikotik at geratzen ez bada behintzat. Eta, guk dakigula, inork gutxi aukeratzen du gizarte-isolamenduaren patu beltza bere etxerako.

Botere egiturak

Sistema soziolinguistiko hauek globalagoak eta orokorragoak diren heinean, askoz ere konplexuagoak eta ahaltuagoak dira aurreko biek alderatuz gero. Egitura-maila hauek, besteak beste, honelatsuko

zerrenda baten ingurura biltzen dira: Estatu-nazioa, egitura politikoa, indar ekonomikoak, marko juridikoa, etab. Zeri zor diote, ordea, besteek ez duten ahalmen-indarra, hala izatekoran?

Esan dezagun, lehenik eta behin, botere-sistemaren maila makroak biltzen dituzten instantzia hauek autonomia handiko sistemak direla beren baitan. Baina ezaugarri horrek baino areago beraien arteko globaltasun eta orokortasunak damaie ia erabateko autonomia eta eragin-kortasun-indarra. Pentsa dezagun, Estatu-nazioa bezalako sistema baten hedadurak eta orokortasunak, hizkuntz komunitatearen beharri-zan soziolinguistikoak ia ehuneko ehunean asetzen dituela. Hain zuzen ere, eskualde-herriak ezin duena, eta are gutxiago familia-auzoak. Beharri-zan horien itxitura erabatekoa ez bada ere, hirugarren sistema honetako esparru-funtzioen batasunak hiztunaren premia linguistiko nagusienak aise estaltzen ditu bere jardunaren dinamika soziokultural-lean.

Sistema-maila hauen eta besteen arteko aldea, ordea, ez da soilik hedadurazkoa eta orokortasunezkoa. Ezen, instantzia hauen guztien arteko batasun-osotasunean (maila pertsonala, funtzionala eta botere-erakundeetarako dagokiena) ezarria dagoen egituraketa ez baita soil-soilik horizontala; ezaugarri horri, bigarren hau ere erantsi behar baitzaio: euren arteko uztardura taxutzen duen mendekotasun hierarkikoa, alegia. Mendekotasunaren logika horrek bere arauak ezartzen dituenez, hirugarren multzoko sistema hauen logika eta izaera gorpuzten da beste mailletako sistemen baitako osagaietan. Horra, bada, sistema dominanteen aldetik besteen baitan eragiten den aldakuntza kualitativa: mendeko sistema batean (familia-eremuan, adibidez) gainetik ezarritako logika eta joera hegemonikoen hizkuntz eta kultur edukiak eta funtzioak berrekoizten dira.

Amaitze aldera

Bukatzeko gogoeta hauxe egingo nuke: hiztun-subjektuarengan sistema-maila hauetako ezaugarriak eta tasunak barneraturik daudela

beronen sozializazio-sareen bitartez. Eta hizkuntz harreman soziolinguistiko horiek, diren direnean, hiztunaren jokamoldean gorpuztuak daudela; honek baitaramatza bere hizkuntza jardunaren mamikuntzan.


Euskararen erabilerari so jarrita, beste horrenbeste aitortu beharko genuke. Euskal hiztunaren hizkuntz elkarrekintzak burutzen direnean, hiru sistema-maila horietako tasunak presente daude aldi eta alde oro. Eta ez soil-soilik bakar batzuk. Ez soilik, esaterako, familia barruko hizkuntz ezaugarriak, nahiz eta hiztuna familia-eremuko hizkuntz elkarrekintzan jardun. Euskaldunak osotasunaren dialektikan garatzen eta gatazkutzen diren hizkuntz kontraesan guztiak ditu lekuko bere jardunean; ez bakarrik bere inguru hurbileko hizkuntz sareetan garatzen direnak.

Zer esan nahi ote du honek gurera begira jarrita? Plangintzari dagokionez, ondorioak berez ateratzen dira. Puntu bat azpimarratzeko plangintzen izaera aipatu beharko genuke zera esateko: hizkuntz plangintza soziolinguistikoen izaera mikroak ez duela irispén sendorik erdie-tsiko hizkuntzen arteko harremanen nolakotasuna determinatzerakoan. Beste alde batetik, holismoaren fenomenoaren ezin da onetsi besterik gabe. Izan ere, osotasunak ere bere legeak dauzka hizkuntz estatus sozialean: alegia, faktore eta eragile guztiak ez dira determinazio-indar berekoak globaltasunaren barruan. Arestian aipatu denez, mendekotasunaren logika hierarkikoak bere eragina ezartzen du gizarte-prozesuotan; eta ez soilik kuantitatiboa, izaerazkoa ere itsatsia daramanez gero.

Laburbilduz, eta lantxo honetan finkatu nahi den ideia nagusiaren ordezkotzat, hiztunaren baitan metatzen diren hizkuntz ezaugarri soziolinguistikoen izaera nabarmenarazi nahi izan dugu. Izaera hori ezin dela nork bere eguneroko bizimodu konkretu-zehatzeko esparru eta funtzioetatik erakarri. Hitztunaren baitan metatzen diren ezaugarri horiek, batetik, izari mikroa ezezik dimentsio makroa ere badutela euren gauzapenean; eta, bestetik, hiztunaren hizkuntz jokamoldea taxutzen

duen eragile-faktoreen artean harreman hierarkikoak daudela alde eta aldi oro. Hitzuna ezin da sozializazioaren sare horizontal eta hierarkikoetatik at hauteman. Errealitate honek, jakina, hitzuna harreman eta egitura soziolinguistikoen antolamenduaren eramaile gisa aurkezten digu; haien gauzapean-gune bihurtzen da hitzuna elkarrekintzaren nolakoa zemahe delarik ere.

HIZKUNTZAREN BALIO SINBOLIKOA, KOMUNIKATIBOA ETA JURIDIKOA



(*) Hizkuntz harreman-sareen baitako etena: hizkuntz elkarrekintzarentzat dinamika-haustura dakar eten horrek

Oraingoan, hizkuntz balioaren ikuspuntua, arrunt ohikoa den auzigaia, jorratu nahi dut. Horrela, bada, hizkuntzaren balioa hizkuntza honek beronek betekizun dituen funtzioen arabera arakatu asmo dugu. Gauza txit jakina da hizkuntzaren soziologiaren inguru-minguru gabiltzanontzat, eta baita orobat hizkuntz pedagogiako irakasleentzat, hizkuntzaren baliagarritasuna mintzaira honek beronek dauzkan funtzio-esparruen neurrikoa eta tamainakoa izaten dela. Bego, hortaz, atariko norabide hau.

Zertan dira orduan, hitzetik hortzera darabiltzagun zerako balio mota horiek? Hala nola, besteak beste, balio pragmatikoa edo instrumentala, edota balio integratzaile edo identitate-kulturala. Galderaren zentzua areago zehaztuz, zer-nolako osasun-kemenaz dabilta balio horiek euskarari dagozkionean?

Hizkuntzaren soziologian erabili ohi den hizkerara moldatuz, hiritara bilduko ditugu balio hauek. Eta horixe bera da, besteak beste, Benjamín Tejerinak honako honetan agiten diguna: funtzio sinbolikoa eta komunikatiboaren arteko eragin-loturak azaldu nahi dizkigu.

“Este último período (frankismoaz dihardu) es clave para ver las relaciones entre identidad colectiva y la lengua. Sobre todo porque a partir de ellas puede comprenderse el proceso de recuperación de la función comunicativa del euskara como resultado del incremento de la función simbólica o participativa de la lengua, es decir, la creciente importancia de la lengua como elemento simbólico central de la definición de la identidad vasca empuja a aquellos sectores sociales que la comparten a intentar recuperar la función comunicativa de la lengua” (Nacionalismo y Lengua).

Guk, geure aldetik, hizkuntzaren balio komunikatibo eta sinbolikolari hirugarren bat erantsi diogu. Euskararen egoera txit berezia delakoan gaude, eta berezitasun horri esleitzen diogu hirugarren izaera. Balio hau, nolabait bataiatu beharrez, “balio juridiko-formalaz” bataiatu dugu.

Atariko hitzon haritik, has gaitezen balio bakoitzari buruzko ezau-garri-zantzuak seinalatzen. Ikus dezagun, gaingiroki bederen, balio-alor horietako bakoitzaren eragin-indarra zertan datzan. Zerk eragiten duen alegia, edo zerk ez duen eragin-indarrik, euskararen ezagutza eta erabilera dagoen dagoenean egoteko. Esan dezagun, labur beharrez, euskararen gizarte-dialektika alde batera edo bestera lerratzen duten indarrak hauteman nahi ditugula. Lan honen azalpena gardenagoa egi-teko, ikus dezakezunez, eskema-irudi bat itxuratu dugu. Ea lagungarri zaigun argibide-lanetan.

“Euskararen gizarte-balioa” ipini diogu izenburuztat irudi-eskema-ri. Bere sostengu eta euskarri hiru balio mota jakin ezarri ditugu: ezker-retik eskuinera, hurrenez hurren, balio “juridiko-formala”, “ideologi-ko-sinbolikoa” eta “komunikatiboa”. Azkeneko honi, hizkera soziolin-guistikoaren arabera, balio funtzionala ere dei egin izan zaio inoiz.

Ezkerretik abiatu ordez, erditik abiatuko gara. Hau da: hizkuntza-ren balio ideologiko-sinbolikoari ekingo diogu lehen-lehenik, balio juridiko-formala azkenerako lagatuz. Azkeneko hauxe baita hain zuzen gure aldetik erantsi dugun atal berria; dirudienez, ez da ohiko gauza hizkuntzaren balio-atal hau planteatzea, inoiz edo behin zehar-kako aipamenik jaso badu ere.

Euskararen balio ideologiko-sinbolikoa

Antropologia kulturalaren ekarpenetako bat problematika honi dagokio bete-betean: hizkuntzaren egitekoen artean, izan ere, hizkun-tza eta herri-nortasunaren arteko lotura ikertzen digu teoria-eredu honek. Herri edo nazio-nortasunaren oinarritzko osagaien artean hiz-kuntzaren balio hau dago.

Frankismoaren garaian bizi izan denak ondo asko daki euskararen balio sentimental hau zein adierazgarria zen. Garai haietan ez baizi-tzaion beste inolako gizarte-baliorik ezagutzen eta aitortzen. Gizarte bizitzaren esparru publiko-ofizialetik at zegoen bere erabilera-esp-

ruen eremua. Besterik ezean, eta hobe beharrez, euskararen balio sinboliko-politikoak orduko eta geroko euskalgintzaren zimentarri bilakatu da. Euskaltasunaren adirazpenik gorenena, eskubide historikoen kontzientzia, nortasun kolektiboaren barge-lokarri irmoena: horra, hitz bitan, euskararen eginkizun sinbolikoa jadanik euskara galdua duten sektore zabaletan.

Nazioetasunaren ikur sinbolikoen artean hizkuntzarena, beste batzuk gutxietsi gabe (demagun, esaterako, erlijioaren adibidea), goiesteko arrazoiak badaude. Ez du honek esan nahi, jakina, hizkuntzarik gabe nazioetasun-kontzientziarik eraiki ezin denik; hori uste izatea, gainera, ustela baita, hainbat lekutako eskarmentuen argitan ikusi ahal den bezala. Dena dela, nazio-sentimenduaren atxekimendua, etnikotasunaren identitate-ideologia, bestetan ez bezala islatzen da hizkuntza-ikurraren balio subjektiboan.

Ikur-balio soila duen hizkuntza, ordea, ez da egoera gozoan dagoen mintzaira izango: honen lekuko ederra da, alazankoa, euskararen azken mendeotako historia. Gizarte tradizionalaren berezko betebeharrak hesitu eta murriztu ahala, ikurtasunaren izpiritu ikustezina bilakatu zaigu eremu zabal-osoetan. Ezin da, alegia, eta Bretaina bezalako hizkuntz egoeren irakaspenik ez da falta, balio komunikatibo guztia galdu duen hizkuntzaren kontzientziagunea gehiegi balioetsi, etnikotasunaren herri-izaera hilezkorra bailitzan. Ez dago horrelakorik, zorigaitoz. Eta, halere, egoeraren gorriak itxaropen amesgarrien gailurretara garamatza oharkabean edo: bestela esan, terapia-bidetzat hartu izan dugu (okerrago dabilta, esan dugunez, beste batzuk hemendik hurbil; bidenabar esateko, ez al da txundigarri egiten hizkuntz ordezkapena itzulezina den herrietako abertzale askoren itxaropen-sena?). Ezerezak, nonbait, ez dauka deus galtzekorik, eta bai, zerbait suertatzekotan, zer irabazirik. Zera alegia: okerreanean ere, ezin makurrago egon. Hona, apika, itxaropen hori esplikatze bide bat.

Harira etorrita, esan dezagun, euskararen aldeko giza mugimendu erraldioen inguruan izan dela eta egun oraindik badagoela eztabaida-

rik. Eta eztabaida honen zergatia, oker ez bagaude behinik behin, euskararen balio sinbolikoaren ardatzean jaiotzen da. Hor ditugu urteroko Kilometroak, hor Korrikak, eta hor gainerako azalpen sinbolikoak. Ba ote dute, egungo abagadune jakin honetan, nolazbaiteko zentzu-eterkin gisa horretako mobilizazioek? Edota, entzun izan den bezala, kontzientzia "gaiztoen" zuribide soil bihurtu zaizkigu? Edota, agian, eta azken urteotako zenbait jokabide gogoan, euskararekin berarekin zer ikusi handirik gabeko kultura ludiko-zibikoaren (zenbaiten ustez, txit anti-zibikoak, alkoholismoaren agerraldiarekin, bide batez esateko) ildora lerratu da jatorrizko filosofia hura?

Ez da behatzaile zorrotza izan behar noski hizkuntzaren balio sinbolikoa, bere ezerezean hutsaren hurrengoa dela ohartzeko, baldin eta praxiaren norabidea egoki gauzatzen ez bada. Armas-bidea izan zitzaigun aldi gogorretan, baina galbide bihur dakiguke erne ez bagabiltza. Zentzu makur horretan bertan idatzitako lerroak dira Tejerinaren hauek:

"Sin embargo, el peligro de asumir el valor simbólico de la lengua es que "sólo se acepte su valor simbólico" y no su realidad, que tenga una gran valoración simbólica (valoración de la función simbólica de la lengua) pero que no se valore la función comunicativa, su utilización o su aprendizaje como vehículo de comunicación" (Ibídem, 332 or.).

Horra, bada, euskararen balio sinbolikoak dituen argi-itzalak. Irudi-eskeman ikus dezakegunez, bere eragin-indarra bi zentzutan garatzen da: bata ezagutzara zuzendua, bestea erabilerara. Euskararen ikaskuntza-prozesuaren gainean egindako inkesta-azterketa batzuetan islatu bezala, euskaldun berri anitzen zio eragilea balio ideologiko-integratzaile honetan datza. Halaxe erantzun izan dute askok eta askok: "Euskal Herrian bizi naiz eta euskaldun izan nahi dut". Herri-nortasunaren gogo nabarmentzen da ikasle hauengan, beste nolanhiko motibazio-moten gainetik. Ez dago zalantzarik, beraz: ezagutzaren prozesuan oinarrizko eragilea izan dugu euskararen balio sinboliko hau.

Alabaina, eta hemen dagoke auziaren iltzea, zer neurritan eragin dezake zio-jarrera horrek euskararen erabilera-mekanismoetan? Eran-tzuna, damurik, ez da euskaldunontzat ase-betegarria. Euskaldun-euskalduntzat jo ditzakegun euskaldun berriak ez dira falta, euskaraz bizi baitira ahal duten esparru gehienetan; eta, bidebatez, diogun, euskaldun berriren eredia euskaldun zaharrena baino ohoregarriago dela mila bider. Ohoreak gorabehera, ordea, atxekimendu sinboliko honen atarramendua ez da gehienetan uzta oparoa bihurtu euskararen erabilera-alorrean. Balio sinboliko honen eragin-indarra, horiek horrela, aski mugatua eta indargea suertatu da.

Ez nuke, halaz guztiz ere, zorrak zor ditugunez, zorrik ederrena aipatu gabe itxi nahi atal hau. Eta zor horrek izen-abizenak ditu, baina guk ezin aipatu hemen hainbeste milaka erdal euskaltzale: ikastolen mugimenduan esku hartu duten erdaldunak ditugu gogoan hemen. Hauen ordaindu ezineko neke-izerdiak isiltzea ez zaigu zilegi euskaldunoi, eta hauen jokamoldearen eragile nagusia euskara-nortasun-identitate-balorean zetzan.

Euskararen balio komunikatiboa

Herri gisan, eta barnera begira, euskarak batu eta trinkotu egiten gaitu, eta eginkizun horixe eman diogu euskararen ikur-balioari. Orain, aldiz, agente kontzientziazatuen jokamolde-eredutik urrun, hizkuntzaren beraren gizarte-erabilgarritasuna dago jokoan. Kontua ez da jadanik, aitzindari euskaltzaleen andana: hauek ere hor daude noski, baina hizkuntzen egoera erreala edo *status* sozila bihurtu zaigu oraingoan balio-neurri. Euskarak ez du balioa zuk eta nik nahi duguna. Zu eta ni integratzen gaituen kultura nazionalaren osagai hori, orain, hizkuntzen balio materialen mirabe hiburtuko zaigu.

Zehatz dezagun, bestetara baino lehen, hizkuntzaren balio funtzional hau. Nabardurak saihesturik, hona kontzeptuaren muina: gizarte-

harremanen esparruz esparruko komunikazio-sarea taxutzen duen egitura soziolinguistikoan hiztun-herri bakoitzak bere eskuko dituen botere-ahalmenen arabera gauzatuko da delako balio komunikatibofuntzional hori. Aukeran luzeegia den esaldi honetan, hizkuntzen ahalmen-lehia dakusagu. Ez dago hor grinazaletasunarentzat leku handirik. Gordin eta gorri ageri zaigu hizkuntz borroka.

Erabilgarritasunaren gaia aipatu dugu arestian. Euskarak ere, zerbait izango bada, erabilgarria bihurtu beharko duela gizarte-barruti nagusi batzuetan: barruti publiko eta ofizialetan bereziki. Baina aski ote da erabilgarria bihurtzea? Kataluinatik datozkigun berriei baga-gozkie, ez dirudi aski denik hori. Ikus dezagun, bada:

“Katalana funtzio batzuetarako erabilgarri egiteak ez du esan nahi beharrezko denik. Horrek esan nahi du, katalana hizkuntza erabilgarri bihurtzea beste helbururik ez duen hizkuntz politika orok, elebitasun edo hizkuntz ofizialtasun bikoitz deituak bezala, ez garamatzala nahitaez hizkuntz normalkuntzara, eta katalana bere baitan uzkunzera eraman dezakeela. Hau da, filme jakin bat ikustera joan ahal izango gara, liburu edo egunkari jakin batzuk irakurri, irrati emisora jakin batzuk entzun eta administrazioaren inprimakiak elebieten irakurri ahal izango ditugu. Baina katalana beharrezkoa izatea nahi badugu, ofizialtasun eskusiboa izan beharko du (...).

Hizkuntza batek beharrezko izateari uzten badio, luzarora eragina izango du erabileran, jendeak benetan beharrezko den hizkuntza erabiltzera joko baitu hizkuntz ekonomia arrazoienatik, eta hizkuntza menperatuaren erabilpen maila gutxitzen joango da” (Solé i Camardons, Jordi: **Soziolinguistika gazteentzat**, UEU-EKB, 94. or.).

Hizkuntzaren balio komunikatiboa, esan dugunez, komunikazio-sareen baitan berari dagokion lekuneak erabakitzen du. Lekune horren arabera ahulagoa edo indartsuagoa izango da bere balioa. Eta orain katalanen irakaspenen argitan hizkuntzaren erabilgarritasuna eta beharrezkotasuna bereizi egiten zaizkigu. Eta esango zaigu, eskarmentuan oin harturik, delako hizkuntza hori hartarako edo honetarako erabilga-

ri izatea ez dela aski izango aurrez jotako jomugara iritsi nahi bada; alegia, eta exenplu jakin honetan, katalanaren zinezko normalkuntzara.

Eskema-irudian “balio komunikatiboa”tik “erabilera”ra ipini dugun gezia eragin-katea etenik agertzen zaigu. Irudikapen honen bidez, pentsatzekoa denez, euskararen balio komunikatibo-funtzionala ahula edo hutsaren hurrengoa dela jakinarazi nahi izan dugu. Euskara, begien bistako gauza denez, ez da beharrezko mintzabidea hizkuntz sare errealetan. Egia da, ez dugu ukatuko, erabilgarri bihurtzeko neurri batzuk hartu direla zenbait barrutitan (irakaskuntza, administrazioa...); neurri horiek, alabaina, ez dira eragingarriak izaten. Zergatik ote? Azken finean, katalanek dioten zentzuan, beharrezkotasun-graduak agintzen duelako hitzunen jokaera-isurietan.

Gurpil zoroaren atarramendu gaiztoak ez dio uzten euskarari zinezko susperraldiari ekiteko: dagoen *status* azpiratuan dagoela, jakina, ezin eska dakiok erakarpen-indarrak edukitzea hiztunleria bereganatzeko. Balio sinboliko soilaren izpiritua hizkuntz egoera material gordinak gupidagabeki irensten du, alde batetik. Eta, bestetik, esparru berrietan barrena egiteko behar duen botere-sostengua ez zaio iristen: orain arteko botere-sostengua, azken hondarrean, sinbolikoa izan ez denean, juridiko-formala izan da.

Ezagutzaren zutabea (ikus irudia) euskara-ikaskuntza “akademiko formala” deiturapean ageri zaigu. Horren ondorioz, “elebidun pasiboen hazkundera” eratorri da: ikaskuntza-sistema euskaldundu ahala euskaldun berriak sortu, sortu dira, baina xede-hizkuntza usatzeko beharrik sunatu ez dutenez, gaitasun pasiboa nagusitu da prozesuaren buruan. Bestela esanda, balio komunikatiboaren dinamika-joerak ez du eraginik ikaskuntzaren mekanismoetan. Horra, bada, gurpil zoroaren logika askaezina.

Bien-bitartean, eskuineko zutabea, euskararen erabilera-dinamika ohiko esparru arruntetara mugaturik dago, gainerako funtzioetan bere erabilera diglosiko-sinbolikoa defarik. Egiatzapenik egin nahi izanez

gero, hortxe daukagu, bestetara gabe, Gasteizko Legebiltzarrean euskarari esleitzen zaion zeregin sinbolikoa.

Euskararen balio juridiko-formala

Definigaitzagoa egingo zaigu euskararen balio-mota hau. Alde batetik, balioaren izarea juridikoa dago, eta bestetik izaera formala. Eta bien arteko batasunak taxutzen du, itxura denez, balio-mota honen kontzeptua.

Euskara, Euskal Autonomi Elkartearen bederen, erdararekin batera (ez ordea, horratik, ofizialtasun-erreal berarekin) ofizialkide ageri zaigu lege-testuetan. Badu, nolazbait ere, lege-babesaren ezarpen-indarra. Kontua, lege auziak tartean daudenean, zera izan ohi da: zer-nolako simetri egoeratan dauden lege-estatusaren eta zinezko errealitate soziolinguistikoari dagokion estatusaren arteko harremanak.

Hizkuntz plangintzaren gaietan aditu denak ez ditu ofizialtasun-maila berean ezarriko espainiera eta euskara. Horietakoa bat, gure artean aski ezaguna, Cobarrubias jauna dugu. Soziolinguista honek 1978an bi arlotan banatu zituen hizkuntz komunitateak: beren baitan autonomoak direnak, eta ez direnak ("comunidades cautivas"). Bigarren sailekotzat dauka Euskal Autonomi Elkartearen euskararen estatus juridikoa. Euskarara aldaturik, gatibu-mendeko izaera duen hizkuntz herria izango litzateke gurea. Datu hau, estatus juridikoaren alderdi formalari dagokionez, nik uste, albora ezina da: ondorio izugarriak baititu izaera juridiko horrek lege-mirarietan sinisten ez dugunontzat. Gauza bat da lege-dekretuen mirari horietan ez sinestea, eta beste bat, sarri askotan egin ohi den legez, lege-egitura formalaren berezko indar-eragina gutxiestea. Askok gutxietsi egiten du, eta beste askok, eta hau ez da interesik gabeko "iritzia", ia-ia ukatu egiten du lege-barrutiaren ahalmena.

Iritziak iritzi, gehiago axola zaigu ondoren datorren alderdia. Aipatu berri dugunez, lege-barrutia eta errealitate soziolinguistikoaren arte-

ko korrelazioa da gogoan hartu behar dena. Korrelazio honen dialektika baita gauzen zinezko egoera zertan den jakiteko modu bakarra. Hizkuntz legearen eraginkortasun auzi hau mintzagai duelarik, oraindik orain, honako adierazpen hauek egin dizkigu Mackey jaunak.

“Hizkuntza-legeak eraginkorrak dira sustatu nahi den hizkuntzari atxekita dauden beste alorretako nagusitasunak ematen direnean: nagusitasun kulturala, ekonomikoa, demografikoa, e.a. Nagusitasun horiek ahalbideratuko dituzte masa kritikoa, gaitasun maila altua eta hizkuntza-jokaeraren aldaketa erraztuko duten baldintzak” (**Hizkuntza jokaera-aldaketa legeen bidez**, Soziolinguistika Aldizkaria-9, 12. or.).

Zertan da gurean, euskara baldintzarik egokienetan dagoen eskualde batean, delako korrelazio hori? Zertara eramán gaitu lege-egora berri honek dozena bat urteren buruan?

Oker ez bagaude behintzat, eta ez gara oinarti enpirikorik gabeko burutazio hutsaletan ari, euskararen balio juridiko-formala abiaburuan bertan neutralizatzen bezala dago. Bateko, bere izaera subjektiboak, ez dagokio lurralde bateko eskubide kolektibo bati, gizabanakoaren eskubide gauzaezinetan elkor eta antzu bilakatzen du. Besteko, berriz, gainerako egitura-mailekiko korrespondentzian erabat mendeko eta simetriarik gabeko estatusetan aurkitzen denez, bere berezko gaitasuna ere etekin kaskarretako bidean ahitzen da.

Eskema-irudiari so eginez, ondoriozta dezakegu, bere baitarik datorren gezi-eragina “ezagutza”ren mailako prozesuan amaitzen dela. Irakaskuntza edo administrazioan izan du, dakigunez, bere nolabaiteko ezarpena. Euskararen balio juridiko-formalaren eragin-oihartzuna, horretara, ezagutzaren ardatzera murrizten da batik bat. Nekeza baita, gainera, gauzak beste era batera jazozea: besterik litzateke, noski, balio komunikatiboaren laguntza izango balu. Ez da, ordea, euskararen berreskurapen-prozesu hau, tamalez, alde eta aldi bereko euskalgintza-mailen arteko oreka biderkatzailea. Bakarka dihardute, mailok. Eta hortxe galtzen da hainbat plangintzaren berezko gaitasun-ahalmena:

elkarrekiko osagarri izan ordez, batasunik gabeko plangintza-elementuetan ahitzen da.

Azken burutapenak

Zirriborratu dugun eskema-irudi horretan gauzarik aipagarriena begi bistan dago: euskararen joan-etorrian etenak edo hausturak daude hizkuntz sareen arteko elkarrekintzan. Horien artean, dudarik gabe, goitik behera datorren etenaren galera daukagu: "balio komunikatibo"tik "erabilera"ra datorrena hain justu. Zeren, higarren etena, aurreko horren ondorioz sortarazitakoa da: erabilerak ez du ezagutzaren alorrean behar lukeen dinamikarik eragiten, eta presio-eraginik ez hori, euskararen balio komunikatibo urritik dator.

Gure arteko tesi nagusia, badakit hori, alderantzizkoa izan da, eta egun ere halatsu hauteman daiteke zenbait euskaltzalaren ingurumarian. Alegia, ezkerretik eskuinera (gure irudiarri dagokionez), ezagutzaren alorretik sortu beharko litzateke normalkuntzaren harrobi-indarra. Norabidea bestelakoa da, beraz. Euskararen ikaskuntza jeneralizatu ahala, ez bide dago euskara ez erabiltzeko behaztopari gaindiezinik. Haatik, tesi hori oinarri belaskako proposamena dela esango genuke; ez da behatzaile zorrotzegia izan behar euskararen balio komunikatibo-funtzionala dagoen dagoenean egonda ahalegin oro alfer lana izango dela konturatzeko.

Balio sinbolikoa (identitate-motibazioa) eta balio juridiko-formala oinarritzat duen euskalgintza-prozesua aldeztetik baldintzatua dago. Eta zentzu makurrean, gainera. Ezagupenaren alorreko ahalegina zaku zulatuan galduko ez bada, erabilera-maila indarberritu beharra dago: hots, euskararen beharrezkotasuna indartean jarri beharra dago. Indarrean ipintze hau, haatik, ez da ulertu behar hitzaren zentzu juridikoa: eragin-mailen sistema osoa daukagu gogoan hori esatean. Gainerakoan euskaldun berrien kopurua igo, igoko da, eta halaxe jakinaraziko digute estatistika saileko arduradunek. Hainbat euskaldun

gehiago, duela zenbait urte baino. Oso ondo, hori guztia: baina zertarako balio ote du hazkunde-mota horrek? Zertan datza euskaldun berri horien gaitasuna eta euskara-erabilera? Zenbakiek, berez eta besterik gabe, jakin behar genukeen hizkuntzaren benetako osasunik adierazten ote digute? Prozesu honek ez al dauka bada bere alderdi kualitatiboa ere bere baitan? Edota den-dena kategoria kontagarrietara bildu behar da?

Geure tesia, oinarrizko bere filosofian, bestelakoa da. Bestela dakuskigu gauzak: ezagutza-erabilera bikotearen arteko dialektika alde batetik bestetik baino baldintzatuagoa dago gurean. Alde nagusiaren pisua hizkuntzaren erabilera-alorrean kokatzen dugu; eta honen mendeko prozesutzat jotzen dugu ezagueraren ibilbidea. Hizkuntza bat ezagutzeak, berez, ez du inolako gizarte-baldintza berezirik eskalzen: aski da ikastetxe-euskaltegi-akademien katea abiadan ipintzea horretarako.

Euskararen balio komunikatiboa, hori eta horrenbestez, ez da ikaskuntzaren mailako auzia. Balio hori eta bere eragin-indarra egitura soziolinguistikoaren baitan datza eta hor hezurmamitzen da; bai onerako eta bai txarrerako. Egitura horren barruko hizkuntz esparruen eta funtzioen arteko hizkuntz eskari-konsumoa izango da balio hori baieztu edo ezeztatuko duena, eta ez inolako ikas-mekanismorik. Mekanismoon lekunea erabilera-alorra da izatez, eta lekune horietan hizkuntza bakoitzak bereganaturik daukan betekizunak makurtaraziko ditu alde batera edo bestera lehian diharduten mintzairak.

KULTURAREN AUZIGAIA SISTEMA-TEORIAREN ARGITAN

Euskal Herriko identitate-auzia dela eta, esan liteke, errazegi lerritzen garela identitate-kontzeptua maila linguistiko hutsera mugatzeko joerara. Herri baten identitate-izaria, ordea, arras zabalagoa eta sakonagoa da. Nekez murriz daiteke hizkuntz arazo soilera. Identitate kolektiboaren izaria, bere luze-zabal osoan hauteman nahi bada, kultura kontzeptua bera egokiagoa dirudi herri-etnia baten ezaugarri-multzoa definitzeko.

Lantxo apal honetan ikusmiratu nahi duguna, hain zuzen, kulturen izaera da: kultura motak eta hauetako bakoitzaren sistema-egitura berezia sistema osoaren barnean. Kultura-sistemak eta azpisistemak baitaude, elkarrekiko mendekotasun-loturetan estekaturik. Kultura mota hauen arteko harreman horiek aztertzeko sistemen teoria erabiliko dugu. Azken batcan, sistemen teoria hau, hautu metodologiko bat da, beste batzuen artean. Lan honetarako gidari M^a Dolores Julianoren "Cultura Popular" delakoa hartu dugu.

Zer ote da, ordea, kultura kontzeptuaren bidez aditzera eman ohi dena? Kontzeptu honen mugariak ez daude zehatz-mehatz finkatuak. Ikuspegi filosofiko eta antropologiko bakoitzak bere xehetasun-ñabardura crantsiko dio, bere abiapuntuaren arabera. Horietako bat dugu Tylor-en definizioa: hain zuzen, antropologia kulturalaren garapenean sekulako eragina izan duen kultura-irudia.

Honelatsu laburbildu zigun Tylor-ek bere kultura-kontzeptuaren barrutia: "Ezagutza, sinesmenak, artea, morala, zuzenbidea, ohiturak eta edozein aztura edo gaitasun erdietsia, beti ere gizartearen baitan kokaturik dagoen gizakiak erdietsia: horra hor kultura-komplexuak osatzen duen barrutia". Agian, kontzeptuak osagabea dirudi: gainegiturako fenomeno "izpiritualetara" mugatzen den ikuspegia nagusitzen denaren irudipena daukagu. Eta egungo gizarte garatu-industrialduan, irudipen hori, are nabarmenago egin ohi zaigu. Esan beharrik ez dago, egungo kultura-ekoizpenaren bitartekoak, batetik, eta bere kontsumorako antolatu diren merkatu-baldintzak kontuan harturik, bestetik, kulturegintzaren izaera erabat eta osoki oinarri materialetan funtsaturik dagoela. Industri-kulturaren aroan bizi gara, eta ez inolako izpiritu goitiarren erreinuan.

Kultura maila eta moten sailkapen bat egiteko, Joan Prat i Carosen eskemaz baliatuko gara. Kultura mailok elkarri kontrajarriz irudikatzen dizkigu. Eta bost sail edo arlotan banaturik antolatuko digu aurkaritza hori. Hona, besterik gabe:

1. Lehen aurkaritza: kultura tradizionala *versus* kultura modernoa.
2. Bigarren aurkaritza: nekazari kultura *versus* hiri-industri kultura.
3. Hirugarren aurkaritza: nazio kultura *versus* kultura estatala.
4. Laugarren aurkaritza: langilearen kultura *versus* kultura burgesa.
5. Bosgarren aurkaritza: berarizko kultura *versus* kultura menderatzailea.

Sailkapen honetako kultura-kategoria batzuk gehiago interesatzen zaizkit beste batzuk baino. Alegia, euskal kulturaren izaria definitzen lagun diezaguketen haiek aukeratuko ditugu gure hausnarketa honetarako. Alde batetik nazio kultura eta bestetik kultura *nagusi-ofiziala*. Honetara jarriz gero, goiko eskeman agertu ez zaigun *masa-kulturari* buruz ere ohartzoren bat egingo dugu, kultura mota honek gure gizarte-egituran duen lekugatik. Hurrenez hurren, honelatsu zirriborra ditzakegu haueteko kultura-mota bakoitzaren zer-nolakoak:

a) **Kultura menderatzaile-ofiziala.** Irispen luzeko eta sakoneko iharduera-eremua estaltzen du bere eginkizunean. Hala nola, besteak beste, zientzia eta teknikaren alorrean, edota kultura onduaren edozein adar eta esparrutan. Bere eskutik bideratu ohi dira, ofiziala denez, gizartegintzaren iharduera nagusi-hegemoniko guztiak. Prestigioaren ikurrez hornitua, aldiari aldiko botereguneen garapen-gaia.

b) **Nazio edo herri-kultura.** Kultura ofizial-estatala baino murriztagoa da hedaduraz: eskualde-erregioetara bildu ohi da eskuarki. Bere gainetik daukan kultura menderatzailea dela bide, desbalonizazioak jotako kultura dugu hau. Kulturaguncetan hegemonia-itzalik gabekoa, eta gizarte klase xumeen eskuko. Guztiarren ondorioz, erabaki-ahalmenik gabekoa izate horrek, ez dio biderik ematen bere lurgunea bere arauen arabera eratzeko. Ez da, haatik, nolabaiteko barne-batasunik gabeko kultura-sistema. Eta mendeko izate horri darion eran, gizarte-sektore batzuen zenbait kultur adierazpide egituratzeko oinarria da. Baina, kultura hegemonikoaren mirabe izate horrek bere etengabeko manipulazio eta berdefinizioa dakarkio.

c) **Masa-kultura.** Hau ez da, izan, beste biak bezain erabakigarria euskaldunontzat gainazaleko begirada baten ondotik. Alabaina, uste baino eragin sakonagoa dauka kultura-sistema honek ere gaur egungo euskal gizarte desitxuratuari. Lehenik, esan dezagun, industri kulturaren mekanismoen baitako ekoizpena eta kontsumogaia dela. Berez, autonomiarik gabeko kultur sistema dugu hau, kultura ofizialaren osagai eta eraskin denez. Gizarte sektore zahal-ugarietara hedatzen den neurrian, kultura hegemonikoaren giltzarrietarik at dauden giza andanaren kontsumo-gai bihurtua. Sasi-kulturaren deitura ere ezarri izan zaio, berezko autonomia eta nortasunik eza dela eta.

Kultura sistemak


Kultur errealitatea analizatzerakoan, funtsean bi eratako sistemak aurrean gaudela esan dezakegu. Horietako batzuk sistema oso-oroko-

rrak dira, eta beste batzuk zati- edo azpisistemak. Bien arteko aldea, ikusiko dugunez, zeharo erabakitzaila izango da kultura-sistema bakoitzaren nondik-norakoan.

Alde batetik, kultura sistema oso-orokorrak dauzkagu munduan barrera. Jakina denez, diren bezalakoak baldin badira, ez dira berezko ezaugarri horrela hornituak jaio zirelako, prozesu historiko konplexu baten emaitza direlako baizik. Auzia, nolana ere, zera da: kultura sistema honen jabe diren herri-nazioek kultura izari autonomia dutela beren eskuko. Funtzionamenduz autonomia izate horri esker, inguruko kultur aleak asimilatzeke ez du arazorik izaten halakoak. Bere logika eta beharizanen harian garatzen denez gero, autoberrekoizpenarako mekanismoek ez diote hutsik egiten.

Bestetik, azpisistemaren baitan antolaturik egon obi diren nazio-kulturen zoria daukagu. Aurrekoan ikusi berri dugunez, sistemaren inguruko kultur *inputen* integrazioa berezko logika aurruntan hezur-mamitzen da. Honek ordea ez du antzik harekin: izan ere, kultura-izara azpisistemaren baldintzapean egituratua dagoenean, bere funtzionamendua bere gaintetik, modu hegemoniko batez, antolaturik daukan kultura ofizial-estatalaren logikapean zertzen baita. Beregaintasunik ezak, besteak beste, ondorio larrietara darama. Ezin baititu inolaz ere kultur ekoizpenaren ekarpenak bere sistemaren arabera eratu eta ustiatu. Gaintetik datorkion kultura ofizialaren dinamika nagusitzen zaio erabat eta haren zati eta osagai huts den bezanbatean besterik ezin du bere burua garatu.

Honenbestean, zera galdetuko nuke: zergatik ezin du, alegia, euskal kulturaren izaerako kultur sistema nazional batek bere izari kulturala eskuarki garatu eta kontsumitu? Orain artekoan zalantza-izpirik sortu bada, argi dezagun areago auzi honen iltzea. Eta irudi-bidezko laguntza izango dugu argibide. Ikus:



Kultur sistema orokor-nagusiaren (A) eta azpisistemaren izaera duten kultura menderatuen (B) arteko uztardura islatzen du irudiak. Horretara, A sistemaren jabe den kulturak, kultura espainola edo frantsesak, esaterako, inolako bitartekotzarik gabe hezur-mamituko du bere iharduera. Ez da hori ordea, ezin izan ere, euskal kulturaren estatusaren moldeko diren B kulturen zoria. Hauek, izan ere, bere baitan estekaturik dauzkan kultura dominantearen araberako funtzionamendura makurturik daude.

ELEBITASUNA, KULTURBITASUNA ETA GIZARTE-AHALMENA

Gure uste apalean, soziolinguistika teorikoaren zein aplikatuaren ekarpenak batere gutxietsi gabe, arazo teoriko bat nabarmendu zaigu azken aldi honetan. Agian aspaldikoa izango da auzia, eta gure zentzumena kanustuxea zegoen. Baina guran orain eragin du kezka. Eta zer da kezkaiturri teoriko hori? Hona zehatz eta trinko adierazia bere muinaren gunean: hizkuntzaren eta gizartearen arteko harreman dialektikoaren sarea josten duen pentsaera eta ikuspegia, batezbestekoan behinik behin, aski hnstua eta murriztua ageri zaigu bere izari soziokulturalari dagokionez. Nolabait ere, halakoxe kutsu metafisikoaren aztarnak somatzen ditugu usu hizkuntzaren alderdi sozialari buruzko planteamenduetan. Subjektibismoaren joera idealistak euskalgintzaren praktika ednki-mamiz erantzeko joera makurra agertzen du aspaldion.

Dialektika horren barruti materiala eduki soziokulturalaz osatua egotekotan, —eta nola ez egon?—, ez dirudi zilegi denik hizkuntz komunitatearen ideia-fikzio funsgabe batean oinarriturik jokatzea. Ez.

Ez baitirudi, izan ere, oso zentzuzkoa denik euskararen gizarte-erropena erronka guztien helburu den honetan, dialektika horren zinezko izaera hautemateko behaztoparri diren aurreusteak dauden daudenean mantentzea.

Jo dezagun, adibidez, hizkuntza plangintza orokorraren inguruan zabaldu den aldarrikapena; baina beste zernahi izan zitekeen adibide

modura jartzeko egokia. Hitzetik hortzera dabilen eskakizuna da, dudarik gabe, plangintza orokorraren aldeko iritzia. Alabaina, zertan ote datza plangintza-kontzeptu horren ezaugarritzapen kulturala? Zertan bereizten ote da alegia, hemendik kanpora egindakoen aldamenean?

Itxura guztien arabera, euskararen aldeko plangintza orokorraren beharra zeratik dator: orain arteko euskalgintza jarduera sektorialen arteko lotura-uztardurarik gabekoa izan denez, hel diezaiogun behingoz osolasunaren berma izango duen plangintza-eredu bati. Bakarka aritzearen antzutasunari aurre egin. Holismoaren sistema eraginkorra ezarri eragile bakoitzaren emaitza modu oparoago batean lotzeko. Azken finean, sinergiaren metodoa aplikatu bakarka eta bakoizturik diharduten euskalgintzako eragile bakoitzari.

Baina, jakina, besterik gabeko eta ohiko hizkuntz plangintza estandar batek, hots, Quebec-erako edo Kataluniarako moldatutako plangintza-eredu batek zein neurritan ase ditzake hemengo beharrak eta hutsuneak? Eredu horien baliagarritasuna arras zalantzaragarria dela dirudi. Ez, noski, plangintzaren maila linguistiko-teknikoan. Are gutxiago hizkuntz funtzio-esparruen xehetasun eta aplikazio egokituatan: nahiz maila makroan nahiz mikroan. Diogun, beraz, hizkuntzarekikoan irispen sakoneko oharrena erakusten duela gaur egungo plangintzagileen zorrotzasunak.

Guztiarekin ere, ordea, gauza bat da plangintza-ereduaren diseinu egokia ia borobil-borobila izatea, eta beste bat aplikatu behar deneko egoera soziolinguistikoa eta kulturala zertan den hautematea. Abiaturuko baldintzapenek erro-errotik baldintzatu ohi dute indarrean jarriko den plangintzaren eraginkortasuna. Eta abiaturuko baldintzapen horien artean, nik neuk bederen, baldintzapen soziokulturala azpimarratuko nuke, soziolinguistikaren euskarri gisa. Izan ere, hizkuntzaren euskarri den sistema soziokulturalak determinatzen baitu burutik burura hizkuntza horren dinamika soziala. Eta hortxe dago aldea, edo amildegia, kanpoko eredu horien eta gurearen artean: horietan bertako hizkuntza nazionalak daukan erropen soziokulturala ez da alderatzekoa,

ezta hurrik eman ere, euskaldungoaren bazter- eta zokorapen-erazgarriekin.

Honenbestean, galdera bat egingo genuke bestetara baino lehen. Hizkuntza plangintza batek, gurean, eduki kulturalik ez baldin badu, zertarako balio du? Eduki kulturala plangintzaren muina eta funtsa izan ohi da, hizkuntzatasuna ez baita gizarte metafisiko baten gainean ezartzen. Hizkuntzaren eta gizartearen arteko sistema kulturala bien arteko zubi materiala eta sinbolikoa dela aitortu behar dugu, hiztun-agenteen pentsakera, sentiera eta joera moldatzen duen sistema baita azken batean. Sistema soziokulturalaren bidez arautzen dira, hortaz, hizkuntza erabileraren zer-nolakoak; sistema horren baitan dabilta, ibili, hizkuntza eta hiztuna, gizarte-egituraren arabera joan-etorrian.

Kultura-kontzeptuaren adiera eta esanahia

Ez naiz kultura terminoaren erabilzale izan oraintsu arte. Izan ere, norik bere tradizioaren harlauza darama bizkarrean, eta zama horren dogmatxoak ez dira aise askatzen. Baina, nolahi ere, azkenean amore eman behar izan dut antzeko kontzeptuen artean gogo-betekerik aurkitzen ez nuelako; bateko gainegitura, besteko sistema sinbolikoa, harako ideologia, eta beste batzuen atzetik ibili ondoren, men egin diot termino honi.

Zerahi ere, ez zitzaidan arrazoi puskaren bat falta amore eman aurretik. Hain zuzen ere, Guy Rocher soziologoak arras ongi adierazten du nire errezeloen zergatia hitz hauen bidez: "Giza-zientzien eremuaren ohiko hizkeran oso arrunta dugu egungo egunean kulturanozioaren erabilera, baina oraindik ere ohitu ez garen zentzu-adiera batean. Bestalde, kultura terminoaren esanahia aldatu egin da, eta horrek datozkigun definizioak ez dira egokiak izan; orobat, ez dute bere esanahi eta irismena argitzeko eta zehazteko laguntzarik eskaini". ("Introduction à la sociologie générale").

Saiakuntzak izan dira bai, bat baino areago gainera, kultura kontzeptuaren zer-nolakoa zedarrizatzeko, eta ahal zen neurrian, gutxienez, esanahi bateratua finkatzeko. Alabaina, disziplina akademiko eta joera metodologiko bakoitzaren berezko izaerak eta jardunak ez bide dute aukerarik eskaini kontzeptu honen luze-laburrak itxutura semantiko jakin batera biltzeko.

Horiek horrela, guk geure aldetik egin dugun aukera arestian aipatu dugun soziologoaren eskutik dator. Begiz jotako definizioen artean, izan ere, egokienetakoa iruditu zaigu berea. Guy Rocher-ek dioenez, bere definizioaren jatorrian Tylor-en behinolako finkapen arrakastatsu hura dago. Eta honetan datza: "Kultura definitu liteke zera bailitzan bezala: pentsatzeko, sentitzeko eta obratzeko multzo kateatu bezala, nolabait ere formalizatua, eta pertsona ugarik ikasia eta onetsia, aldi berean erabilera objektiboa eta sinbolikoa duena, pertsona hauek gizatalde berezi eta bestelako bat osatzeko".

Zer esan, ordea, definizio horren aurrean jarrita? Ezer esatekotan, iradokizun batzuk egiteko asmoz, zera datorkit bat-batean:

a) Kultura-kontzeptuaren gizarte-izaria: hots, giza jokamoldearen nondik norakoa bideratuko duen determinazio-indarra, izendatutako hiru maila horietan (pentsakera, sentiera, obratzeko jokaera).

b) Bere izaera objektiboa, halaber, ez da nabarmendu gabe uzteko datua: kulturaren esanahia, adierazpen teoriko honen arabera, ez baita gizabanakoaren sistema teoriko-sinbolikora murrizten, maiz askotan halaxe gertatzen bada ere. Eta, jakina, kontzeptu honek kulturaren eragin materialera garamatza zuzen-zuzen; hau da, eguneroko bizimodu erreale-materialaren norabidea eta mamia kultura-eduki praktikofuntzionalak erabakitzen du.

c) Kultura-kontzeptu honek, beraz, ez du zerikusirik gure artean gailendu den definizio eta ikuspuntuarekin. Ohiko erabilera eta ulkerak hori, izan ere, eguneroko bizimodutik at dagoen erabilera denez, gizabanakoaren eta giza-taldearen eguneroko bizimoduan ez baita

txertatzen. Halaber, kulturaren ikuspegi tradizional-etnikoarekin ere beste horrenbeste jazo ohi da; hots, iraganaren ohiartzun soil diren ezaugarri eta osagai kulturalen eragina hutsaren hurrengoa da gizarte-gintzaren baitan. Ez dezagun, horrenbestez, kultura hitzaren eremu semantikoa literatura eta artera murriztu; are gutxiago, jakina, iraganaren ildotik datozen kultura tradizionalaren agerpenak euskal kultura osotzat hartu.

Elebitasuna, gure herrian, kulturbitasuna da

Euskalgintzaren prozesuan zer-nolako inplikazio eta eragina du kulturbitasunak (euskal kulturak, alegia) elebitasunaren burutzapenean (euskararen erabilera sozialean, hortaz)? Orain arteko kultura-definizioaren haritik jarraituta, kulturaren funtzio hori ezinbestekoa ote da hizkuntzazko euskaltasuna eraikitzeko? Edota, hain hedatua dagoen irizkera eta ideologia nagusiaren arabera, euskararen ikaskuntza eta ondorengo gizarterapena edo erabilera, soil-soilik fenomeno linguistiko-akademikoa da? Geure aldetik, noski, onartezina iruditzen zaigu planteamendu honen oinarriko tesia.

Besteak beste, Claudio Esteva antropologoa izan da hizkuntzaren eta kulturaren arteko barne lotura era sakon batez ikertu duena. Bere aurkikuntzaren lekuko diren berba batzuk aldatu nahi ditut hona; izan ere, inon izatekotan, hausnarketa horren behar gorria baitugu hemen. Jadanik ez da aski hizkuntz kontzientziatzat jo izan dugun jarrera; horretaz gainera, eta horrekin batera, hizkuntza horretan eragiten duten eragile soziokulturalen jabetza ere nahitaezkoa dugu. Euskararen gizarte-normalkuntza, esaterako, pentsaezina da planteamendu globalago baten baitan kokatu gabe, eta globaltasun horren osagai erabakigarriak izango dira eragile kultural-ideologikoak (pentsaera, sentiera, jokaera...).

Zertan da, orduan, kulturbitasunaren funtsezko eragina eta erabakigarritasuna elebitasunaren planteamendu orokorrean? Hementxe dauz-

kagu Estevaren hitzak lotura eta korrespondentzia horren existentzia baiezteko: "El bilingüismo es así al biculturalismo lo que una cultura es a una sociedad: una trama inextricable donde la correspondencia mutua se da en función de su interdependencia. Ser bilingüe es así ser bicultural, es vivir con dos culturas y sentirse socialmente uno con ambas" ("El biculturalismo como contexto del bilingüismo" in "Bilingüismo y biculturalismo", 10. or.).

Zer iradokitzen digu bataren eta bestearen arteko barne-atxekimendu horrek? Beti ere, jakina, kulturbitasunaren definizioan ohiko leloak alde batera utzita; alegia, kulturaren halamoduzko osagai simboliko eta topikoak aipatzen direnean batez ere, bere izaeraren eta eraginaren nolakotasuna eta zenbatasuna kontuan hartzeko orduan, alegia.

Estevaren horko tesia onartzen badugu, egundoko ondorioak dituen proposamen teorikoaren aurrez aurre gaude. Hori eta horrenbestez, tesi erabakigarri horren hariak sortzen digun hizpidez baliaturik, eta euskalgintzaren berarizko egoera gogoan hartuta, honako iradokizun-andana hauxe isuri nahi nuke.

a) Lehenik eta behin, kulturbitasunaren izaria gizarte-egitura jakin bati darian ondorioa dela aitortu beharko genuke. Nolabait esateko, etnia edo nazio kultura bat baino gehiago kokaturik dauden gizarte-sistema bati dagokion egituraren ondoriozko gertaera dela alegia. Alde horretatik so eginda, gizartekera hori (bi etnia-nazio edo gehiago) eta kulturbitasunaren arteko kidetasuna zuzen-zuzena da: nolako gizartekera, nazio aniztasunari dagokionez, halako kultura-aniztasuna idoro ahal izango da. Kultura bakarrekoa, baldin eta nazio-etniami dagokionean ere halakoxea izatekotan; bikoa edo anitza gizartekeraren eredia orobat halakoa baldin bada.

b) Hortaz, gizarte-eredua eta kultura orpoz orpo loturik baldin badaude bere funtsezko izaera etniko-nazionalan, beste horrenbeste suertatzen da kultura-ereduaren eta hizkuntzaren arteko korrespondentzian ere. Demagun espainieraren kasua bestetara jo gabe. Estarnazio espainolaren kultura (nazionalak) bere izaera eta ezaugarri bere-

zi-bereziak ditu; hain zuzen ere bere historiaren ardatzean garatutako eta ondutako pentsakera, sentiera eta jokatzeko modu konkretu bat alegia. Begien bistan dago delako korrespondentziaren kateamendua nola uztartu den bere osagaien sisteman; eta hirukoitza da oinarri-oinarrian. Hara: nazio-gizarte baten berarizko bilakaeran kultura nazional konkretu bat oratu da historia zehatz baten joan-etorrian; eta alde eta aldi berean, jakina, kulturagintza nazional horren gainegitura ideologiko operatibo hori guztia erdararen bitartekaritzaiz erakikia izan da (bitartekaritza, hemen, tresna-kontzeptua baino haratago doa). Horra, bada, urrutira gabe, sistema hirukoitzaren arteko barne-korrespondentzia espainiartasunaren identitate-erakuntzan: bateko gizarte-eredu bat, besteko kultura nazional mota bat, eta, azkenik, hizkuntza nazionalaren taxuera propioa.

c) Hizkuntzaren eta kulturaren arteko barnekotasunaren lotura her-tsi hori erabatekoa izan liteke hartarako baldintzak daudenean. Bien arteko kidetasuna, esango nuke, kulturaren estatus-egoerak determinatzen duela gehienbatean: hobeki esan, delako kulturaren botere-izakerak hezuramaitzen du hizkuntzarekiko harremana. Garapen-indar handiko kulturak erakarpen-indar handiko hizkuntza ezarriko du bere ekoizpen eta kontsumoaren merkatu-mekanismoetan; aitzitik, botere-itza xumeko herri-kulturaren mintzaira gizarte-harreman hegemonikoan mendeko izango da bere ekoizpen eta kontsumogaietan. Euskal kulturaren ezaugarririk behinena bere izaera etnikoa dela esan izan dugunean, funtsean, hori baizik ez genuen azpimarratu gura: hots, bere unibertso simbolikoaren bitartekari den euskara-mintzaira, halaber, hizkuntza etnikoen estatus zokoratuan itota zegoela. Nolanahi ere, biziki aipagarria dela deritzogu kultura-sistemaren nagusitasun hau hizkuntzaren gainean; nolabait ere, gizarte jakin batek hizkuntzari damaion garapen-indarra sistema kulturalaren bitartez (hots: pentsaera, sentiera, kontzientzia praktikoa...) itsasten dio. Kultura gizartearen eskutik jaiotzen eta garatzen bada, gauza berbera gertatu bide da hizkuntzaren eta kulturaren artean ere: hizkuntzaren bilakaera soziala eta historikoa kulturaren eskutik etorri dator bere gora-behera orotan.

Agerian dago, beraz, zentzu honetan behinik behin, hizkuntzaren sistemak ez daukala autonomiarik kulturarekiko. Horrelaxe uste izan dute, halarik ere, askok eta askok, auzi hau hizpide izan den askotan.

d) Korrespondentzia hirukoitzaren tesi honek, zalantzarik gabe, euskararen arazoari begira, egundoko kezka-iturriak sortzen dizkigu. Izan ere, euskalduntze-prozesuaren transmisioguneetan ez baitirudi delako korrespondentziaren oinarritzko baldintza-bermarik betetzen denik. Orohar hitz eginda, behintzat, ez. Besterik da, noski, kultura-educien bihotzean trinkotasun askiz oratzen den euskalgintza: baina, berriro diogu, azken hau hutsaren hurrangoa dela prozesu osoa bere luze-labur guztian hartuta.

Zertan da, orduan, sistema hirukoitzaren etendura gurean? Sistemaren barne-trinkotasunik ezak zer dakar? Batetik, gizartea, bere alde-tik eguneroko bizimodu material eta sinbolikoaren eremuetan (erabat erdalduna dinamika egiturak finkatzen direneko guneetan); bestetik, kultura, erdal kulturaren orbitan, gizarte-eguzkia espainola edo frantsesa delako; eta, halabehararen halabeharrez, jakina, euskararen orbita ere uoraezean, erdal gizartea den eguzkiak berotasun eskasa igortzen diolako.

Azkenean, euskalduntze-prozesuaren egiturazko indarrak ezak, nahitaez, bere marka bortitza itsasten dio euskaltasunari: oraintsu arteko bere historian gertatu ez deua jazotzen zaio orain; bere berarizko gizarte-kulturarik gabe, hau da, euskal gizartekera eta kulturarik gabe (edo osagai hauen arteko trinkotasun askirik ezak jota), ezinezkoa bihurtu da euskal hiztuna *euskalduna* izatea, eta euskalduntze-prozesuaren emaitzik onentsuenetan ere hiztunarengan burutzen den euskaltasuna hizkuntzaren geruza linguistiko formalari dagokio. Nolabait esan beharrez, hiztun-mota berri honen izaerarik nabarmenena zera da: *euskaraduna*, izan badela, mintzaira hori maila gramatikal-formalean menderatzen duelako, baina ez dela iristen gainerako osagaien tasunez hornitzea bere euskaltasuna (hau da: lehen hizkuntza euskara izatea, edo kontzientzia nazio-kulturalaz euskaldun sentitzea, edo nortasun-

identitatearen maila kolektiboan euskaldungoaren aldeko aukera egin izana...).

Laburbilduz, eta atal honetan idatzitakoaren ildoari dagozkion burubideak moldatuz, honelatsu defini liteke sistema hirukoitzaren korrespondentziak erakusten digun etena: elkarren osagarritasunik gabeko sistema soziokulturala eta soziolinguistikoa osatzen du euskaldungoak. Horrela hautemanez, aise uler liteke orobat bere azpisistemaren izaera makurra: beregainetasunik gabeko hizkuntz komunitatearen patu hitsa da gurea, ete bereziki Ipar Euskal Herrian.

Gizarte-boterearen araberako kulturbitasuna

Orain arteko azalpenetan, gutxi-asko, elebitasunaren eta kulturbitasunaren arteko uztarria nola lotua dagoen ikustarazten saiatu gara. Eta uztarriaren alderdi kulturala gailendu zaigu alderdi linguistikoaren aldameneari; alegia, kulturaren izaera sozialak determinatzen duela hizkuntzaren bilakacra. Dena dela, ez da hor abitzen hizkuntzaren bilakaera sozialaren mekanismo-katea. Izan ere, kulturgingintzaren berarizko alorra eta eragina gutxiesteko asmorik gabe, gizartegintzaren eskutik baldintzatua baitago azken instantzian.

Zertara gatoz honenbestez? Hona, hitz gutxitan, nora naraman burubide bonek: hiztunaren hizkuntzatasuna, edo bere hizkuntzazko sozializazio gauzapena, ez da azken batean kulturaren alorrean bakarrik hezur-mamitzen den zera. Aitzitik, kultura-mugaz haraindi dauden gizarte-indarren eremuraino beltzen da sozializazio-prozesu horren alorra. Instantzien kateamendu honetan, beraz, bizkuntzarenetik abiatuta, gizarte-harremanen eremura garamatza sozializazioak, kulturarena tartean dugula.

Bidelagun berarekin darraigu. Bidelagun ezezik, bide erakusle argia dugu Esteva antropologoa gai hauen barrunbeak arakatzeko orduan. Eta, horrenbestean, ikus dezagun bigarren kulturaz jabetzeak zer-nolako inplikazio soziopolitikoak dituen. Hau da bere iritzia gai honetan: "La adquisición de una cultura secundaria en el ciclo vital del

individuo depende, pues, de una situación sociopolítica en la que las formas económicas pueden coadyuvar en uno o en otro sentido, según sea la necesidad relativa de adaptación individual a los sistemas productivos. (...) la adopción de una cultura secundaria estará también dada en función del poder político predominante y de la capacidad relativa de este para favorecer o para impedir el desarrollo de la integración"(Ibidem, 26. or.).

Ezagun du, beraz, azken instantziaren eraginkortasuna sistema sozialaren baitan datzala. Honen eskutik kontrolatzen baita kulturgingizaren ekoizpen-kontsumoa bera ere. Horretara, bigarren hizkuntzaren gizaraterapena bigarren kulturaren esku baldin badago ere, aldi eta alde berean, bigarren kultura-sistema hau sistema soziopolitikoaren dialektikapean dago.

Hemendik irakaspenik ateratzekotan, nik neuk hau aterako nuke: hiztunaren hizkuntz jokamoldea azken babean sistema soziopolitikoak determinatzen duela, tarteko sistema kultural eta sinbolikoen azpiuk. Tarteko baloreak oso garrantzitsuak izango dira, ez dugu ukatzen. Eta kulturaren sisteman txertatuak dauden jarrera-motibazioak, edo balore-sinboloak, hiztunaren nortasunean eragin nabarmena izango dute. Baina, guztiarekin ere, gainegitura ideologiko-kulturala ez da aski izango, baldintza arruntean behinizat, botere soziopolitikoaren hegonia bere alde ez daukan hizkuntz komunitatea bere mendekotasunetik ateratzeko. Bitasunaren alde material-sozialak izango du, hemen ere, azken hitza, kulturaren berarizko eragin-endarra ukatzeko xederik gabe.

HIZKUNTZA, LENGOAIA ETA ERREALITATEA

Hizkuntzalarien eta soziologoek arteko tirabira ez da noski atzo goizekoa. Sokatira horren deman, inor galtzeko zorian egon bada, inor hori hizkuntzalaritza izan bide da. Iritzi horretakoa dugu behinik behin Miguel Beltran soziologoa. Eta damu du zinez gauzak horrela izana; are gehiago damutzen da, ordea, soziologiatik bertatik ere hizkuntzarako azaldu izan den jarrera axolakabeaz. Odolkiak trukean beraz. Eta elkarrune bakanak eta hutsalak orain arte bi gizarte-zientzia horien artean.

Soziologo honek dioskunez Walter Lippmann-ek hitz labur bezain esanguratsu hauekin definitu zuen hizkuntzaren izari eta izaera soziala: "gizarte-errealitatearen eraikitzailea" da notazbait ere hizkuntza. Hizkuntza, bere izaera unibertsean, gizartegintzaren bitartekaria da.

C. Wright, ordea, harago doa bere ikuspuntuan: "hitzaren funtzioa gizarte-jokaeraren bitartekaritza da". Horiek horrela, hitzaren esanahia bere bitartekaritzari darion alor semantikoa da. Edota beste era batera adierazita, hitzei dagozkien esanahi-edukiak giza-jokaeraren alorrean nagusi diren interpretazioen mendeko dira.

Horra bada, Beltranek esango digun ildotik, Mills-ek nola haute-maten duen hizkuntzaren gizartetasuna. Logika horren arabera, autore honentzat gizarte-kontrolaren tankera hartzen du hizkuntzaren auzi

honek: "Esanahia aldez aurretik bideratua dago; gizarte "sorkari" bat da ("El lenguaje, la lógica y la cultura"). Gisa honetara hizkerak erabateko eragina dauka pentsakeran, eta orobat suertatzen da giza jokamoldean ere haren ondorioz. Mills-en tesia, horrenbestez, honelatsu laburbil dezakegu: "pentsakera kontrolpean dago hizkeraren bitartekotza dela kausa". Gure pentsamenduaren nondik-norako guztia sarean harrapatu dago beraz, eta sare hori hizkeraren sarea da: gizarte-errealitatearen baitako gorabeherak adierazteko erabiltzen dugun hizkera, kontrol sozialaren mende dagoen kode hori, interpretazio nagusi-boteretsuaren mendeko den "gizarte-errealitatearen sorkari" hori, gure pentsakeraren baldintzatzaile nagusia dugu. Mekanismo horri zor dio hain zuzen pentsakera hizkeraren esaneko izatea. Hizkera edo lengoia, eta ez hizkuntza; noraezekoa iruditzen zaigu ñabardura hori inolako hizkuntz determinismo zantzuri biderik ez irekitzeko.

Orain arteko azalpenean nabarmendu den ideia-multzoan oinarriturik, honako burubide hau garatuko du Beltranek. Alegia, ukalezina da honezkero hizkera edo lengoaiaren gizaratasuna; hots, hizkuntzalaritzareu eremutik behin eta berriro alboratua izan den hizkuntzaren gizarte-izaria. Hizkuntza ez da norberak, bere kasa eta gogora erabil dezakeen tresna hutsa, gizakia eta gizarte-errealitatearen artean kokaturik dagoen baliabide mekaniko bat. "Hizkera gainjartzen zaidan gizarte-sorkaria da —esango du—: jadanik bideratua datorkidana, eta uire pentsa-jardunaren oharrena galbahe horretan zertzen da, hor erakitzen dut munduarekiko ezagutza; hizketanua den pentsamendua hain zuzen, eta hizketakidea gizartea bera delarik. Hizkera, horrenbestez, gizarte-errealitatea bera da; eta horrexegatik da izan izate sozialaren baldintza eta muga, eta izate sozial horren eta kontzientziaren arteko bitartekotza" (La Realidad Social, 153. or.).

Ilkuziozko ekintza.

Hizkuntza komunikazio-tresna hutsa baino haratago dagoen gizarte-fenomenoa baldin bada, ikusi beharra dago zertan datzan bere gizar-

tetasunaren zer-nolakoa. Ilokuzio hitzaren definizioa erreparatzen badugu, gutxi-asko, zehaztapen hau egiten zaigu hiztegitan: hizketako egintzen teorian, hizketako egintzaren osagaietako bat, hizkuntza komunikazio-helburu batez erabiltzean burutzen den egintzari dagokiona. Hizketaren bitartekotza ez dirudi bada mezuen nola-halako elkar-trukatze soilera murrizten denik; horrekin batera, eta horretaz gain, giza egintzaren prozesu materiala ere hizkuntzatasunaren baitan burutzen eta egituratzen da. Bat egiten dute izari subjektiboak eta objektiboak prozesu dialektikoaren sinbiosian.

Miguel Beltranek honela hautematen du dialektika horren hari ezkutua: "Nire usterako hizkera-lengoaia eta gizartearen arteko lotura zirkularra da, edota nahi bada, elkarri eska ari da printzipioaren zera. Hizkuntzaren indar ilokuziotzailea ez da bakarrik "gauzak egitea", gizartea ekoiztean ere badatza: ez noski aldaera bakar eta isolatu gisa, baina bai (ene irudiko) faktore-eragile nabarmen-nabarmena. Gizarte errealitatea aldi berean eta bereizteko modurik gabe errealitatean eta errealitateari buruz diogunean baldin badatza, orduan hizkerak, berez, eta ez soil-soilik bere edukiak, egundoko inportantzia bereganatzen du soziologiaren teoriarako" (Ibidem, 154. or.).

Beltranek, jakina, ez du ukatzen lengoiaia eta errealitatearen arteko loturaren konplexutasuna. Biak baldin badira elkarren gainka elkar gorpuzten dutenak, eta bietako inor ez baldin bada bestearen mirabe eta eskuko, esango digu txit gaitza dela bien arteko harremanak xehe-tzea.

Nolanahi ere, bere aburuz, hizkeraren arauak gizarte-arauak dira hizkuntzalarien esanak gorabehera. Eta gizarte-egituraren hainbateko nabarmena hizkuntzazko eraikuntza da; edota, beste era batera esanez gero, giza-errealitatea parte ukaczin batean "esandako" errealitatea da.

Laburbilduz, "gauzak ez dira diren bezalakoak, baizik eta nolakoak diren esaten den bezalakoak". Berez, "izan-dena" nolakoa den definitzen duen iharduera soziala, hizkuntzaren bidezko formulazio sinbolikoa denez, errealitatearen baitakoa da.

Euskara eta Euskal Herriko errealitatea.

Ez dirudi, jakina, behialako hizkuntz determinismoaren ildotik, gizarte-errealitatearen zer-nolakoa hizkuntzaren eskutik moldatzen denik. Hain zuzen ere, hizkuntzak, hizkuntz sistema gisa, ez baitu inoren eta ezeren aurre-pentsakerarik ekoizten eta moldatzen: ezin berretsi, bada, mundu-ikuskeraren ereduak hizkuntzaren eskutik oratua dagoenik.

Jar dezagun, esandakoa argitzeko bidean, adibide esanguratsu bat. Euskaraz jakiteak, edo euskalduna izateak, ez du berez inolako euskaltasunaren nazio-identitatearik garatzen. Delako euskaldun hori, bere kontzientzia nazionalari dagokionez, espainola edo frantsesa izan daiteke eta halaxe izan ohi da sarri askotan gainera. Egiaztapen enpiriko honen arabera, pentsakera eta sistema ideologikoen autonomia ageri zaigu euskararekiko: euskal izatearen ezaugarri etnikoek ez dute ondorioz nahitaez euskal pentsakera eta kulturaren espaziorik moldatzen. Are gehiago, ez dago eragozpenik frantseszalea edo espainolzalea izateko, eta horretara, euskal izaera nazionalaren aurka egonik, euskaraz iharduteko eta bizitzeko. Egia da, halere, azkeneko baldintza horietan luzaro bizitzea ezinezkoa dela egungo gizartekera kapitalistan. Erran nahi baita, hain zuzen, errotikako kontraizan batek jotako egoera soziolinguistiko paradoxikoa dela euskal gizartemolde etniko kementsu bat mantentzea sistema sozio-politiko estatalizatu batean. Dena dela, oraintsu arte ez da falta izan horrelako errealitate enpirikorik Iparraldean eta Nafarroaldean: etnikotasunaren eta naziotasunaren arteko bame-dikotomian bizi izan dira belaunaldi franko.

Hizkerak edo lengoaiak, ordea, ilokuziozko jardueraren bidez, gizartegintzaren baitako eragina dauka subjektuaren bizitzan. Zentzu horretan, euskarazko hizkerak bere izaera sozio-historikoaren esanahia eta edukia eranstean dio Euskal Herriko errealitateari. Euskara, zentzu honetan, ez da mintzabide neutrala; ez da alegia inolako kontzientzia-eraginik ez duen lanabes linguistiko hutsa. Izan ere, euskal errealitatearen baitako osagai eta muin baita euskara: nolabait esateko, euskaraz ekoizten da errealitate hori, gizarte-errealitate horren eraikitzaile dugu euskarazko jardun-mota hori.

Gogoetaren ildo honi bagarraizkio, tesi sendotzat eman dezakegu honakoa: euskal mintzabidea euskal gizarte-errealitatearen baitako eragile nagusia da sistema soziolinguistikoa simetrikoa denean; alabaina, sistema asimetrikoa izanez gero, eta orohar honelakoa da, hots, euskara eta sistema sozio-politikoaren arteko asimetria errotik erdararen aldera lerraturik dago, euskarazko bitartekotzak ez du errealtate hori euskal ikuspegiaren arabera taxutzen. Ikuspegi hori, bistan denez, ez da berez hizkuntza-sistema linguistikoko hutsari dariona arestian esan bezalatsu; hizkuntza-lengoaiaaren bitartekaritza, giza subjektua (gizabanakoa edo giza-taldea) eta gizarte-errealitatearen arteko elkar-osaketan, subjektu horrek daukan estatus-legitimitatearen arabera gauzatzen da. Azken buruan, bera, botere-mekanismoen arabera gauzapean sinbolikoa denez hizkuntzaren eremu semantiko-ideologikoa, euskarazko iharduera hutsak ez du "euskal errealtaterik" sorrarazten baldintza asimetriko horietan.

Ondorioz, nik neure aldetik, zera azpimarratuko nuke auzi honekiko egin aurretik. Euskararik gabe ez dagoela Euskal Herriak, baina euskara ez dela aski Euskal Herria eraikitzeko. Euskal errealtaterik ezin dela eraiki euskararik gabe, baina euskararen "hizkera", edota euskararen kode kultural-ideologikoa ezin dela izan erdal errealtate nagusi-hegemonikoaren arabera. Begien bistan baitago, honezkeror, auziaren giltzarria euskara eta sistema sozio-politikoaren arteko dialektikan erabakitzen dela, eta, jakina, korrelazio hori botere-determinazioari dagokionez erdal unibertso sinboliko-kulturalaren alde dagoelako, euskarazko gizarte-jarduerak ez duela bere zentzu eta esanahi sinbolikorik txertatzen gure egitura soziolinguistikoan.

Bereiz dezagun hortaz hizkuntza eta hizkera edo lengoaia. Bereiz ditzagun orobat euskara eta euskararen hizkera-lengoaia. Aurrenekoa sistema linguistikoa baldin bada, erdal interesgunearen arabera erabiltzeko eragozpenik ez dago batere, erabilera hori ideologia hegemonikoak mugatzen duenez. Euskara ez ezik, euskal "ikuspegiaren" interpretazioa noraezekoa izango dugu, euskal mintzoa euskararen eta Euskal Herriaren aurka erabiltzea nahi ez badugu.

HIZKUNTZA ALIENAZIOAREN ZER-NOLAKOAK

Egia esateko, hizkuntza alienazioaren auzigaia ez da arras ohikoa soziolinguistikaren historian. Itxura guztien arabera, hizkuntza-alienazioaren kontzeptuaren etorkia kanpotik datorkio hizkuntzaren soziologiari; nolabait esan, gizarte zientzien eremutik. Zehatz dezagun ordea jatorri horren teoria-harrobia gehixeago: hizkuntzaren soziologia marxismoaren ikuspuntutik jorratutakoen artean idoro ditzakegu kontzeptu "berri" honen egokitzailak. Batez ere Italian izan zuen lehen loraldia (Rossi-Landi).

Alienazio-kontzeptuaren etorburua zaharra bezain luzea da. Erran nahi baita ez dela izan sortzaile bakar baten langintza. Erroak luzeak ditu beraz filosofiaren eta soziologiaren historian: Hegel, Feuerbach, Marx... Filosofian eman zituen hortaz hastapeneko urratsak kontzeptu teoriko honек; geroago, metafisikaren gailur zerutiarrak alde batera utzita, ekonomi harremanen barrutira egokitu zuen marxismoaren sortzaileak. Lan-harremanen alorrean langilearen izaera alienatua azpimarratu zigun Marxek, bere baitako izaera garatzeko arrazoi izan beharrean, izaera hori bestelakotzen zuelako ustean.

Subjektuaren problematika dago tartean: gizakiak bere gizartegintzaren burutzapenean zer lortzen du ondorioztat? Bere buruaren jabe izanik, bere interes eta izaera sozialaren araberako garapena erdiesten al du? Edota bere subjektutasunak ez du harreman zuzenik bere gizar-

te-jardueraren ondorioz gorpuzten duen emaitzarekin? Horra bada iltzea gori-gori: subjektu baino areago izaki-objektu bat bilakatu da sistema sozialaren logikak hala agindurik? Bere baitarik urruntzen ari da, bere-berezko ezagarrri sozio-kulturalen logika birrintzen doan heinean?

Alienazio mota bi

Hizkuntzaren soziologiari dagokionez egindako egokitzapenean, alienazioaren kontzeptua zentzu bakarrekoa da. Hots: gizartetasunari darion klase-mailako alienazioa ageri zaigu aztergai. Gurean ordea, herri gisa ere bestelakotuak gaudenez, klasetasunaren izari horri bigarren bat erantsi behar diogu: herritasunari dagokion alienazioa hain zuzen. Nazio arazoaren ondoriozko akulturazioaren fenomenoaren izendatu izan dute hainbatek alienazio-prozesu hau ikertzerakoan. Horrenbestez:

- a) Esparru sozialaren baitako alienazioa.
- b) Esparru nazionalaren eta kulturalaren baitako alienazioa.

Batean gizarte antolakuntzaren klase-alderdia nabarmentzen zaigu ororen gain. Ekonomiazko lan-harremanen ondorioak ez dira berberak giza agente guztientzat; batzuen estatus-izaera garatu eta areagotu egiten duten bitartean, besteen gizatasunak ez du neurri bereko efektu onurakorrik izango. Bestean, hau da, herritasunari darion alienazio-efektua gogoan harturik, izaera soziokulturala gailentzen da kontraizanen alorrean. Kontraizanak ere badute, jakina, klasetasunaren mailako baldintzapenik, hori ukazina da; guztiarekin ere, ordea, nortasun nazional-etnikoaren alorreko bestelakotze-ondorioak nabarmenduko dira prozesuan barrena.

Hizkuntza-alienazio soziala

Augusto Ponzioaren eskutik jorratu nahi genuke hizkuntza alienazioaren auzia ("Produzione linguistica e ideologia sociale"). Halere,

Rossi-Landiren itzala nabarituko dugu noiznahi Ponzioren luman: haren oihartzun etengabea dago honen mintzoan. Horrela, bada, lot gakizkion giza-alienazioaren izari berri honi: zer da hizkuntza-bidezko alienazioaren burutzapena? Zertan bereizten da alienazio filosofiko edo ekonomikotik? Zer du bere-berea?

Marxek bere "Eskuskribuen" lerroetan barrena aski maiz zirriboratu zuen alienazioaren kontzeptu-muina. Agian ez teoria borobil-borobilik; bai, haatik, kategoria horren ezaugarri esanguratsuenak. Lerro horietan beraz era honetako argibideak eskainiko dizkigu: gizakiaren izaera bestelakotzen duen iharduera da lan-iharduera; izadia arrotzu egiten dio lanak gizakiari; ondorioz, lan bestelakotzaileak bere berezko baitarik at urruntzen du; lanerako bizi da, baina lana ez da bizitza; lanak ez baitu gizakia bere funtsezko bizi-ihardueran osatzen eta garatzen.

Hizkuntzarekin ere antzeko zer-edo-zer jazo bide da. Eman deza-gun subjektuaren mintza-jarduna: zinez eta benetan bere-berea ote du hitzun-subjektuak aho-epainetan darabilen mintzoa? Ba ote daki alegia zergatik mintzo den era batera, gauza batzuk esan nahirik, eta ez bestera? Ez ote liteke suerta beste hau: hitzuna mintzo da, eta itxuraz bere kabuz mintzo da gainera, baina mintzoaren zer-nolakoa ez du berak hautatzen eta sortzen. Bere ekimenez hitz egin beharrean, bere norasun bereziaren ahotik mintzatu orde, indarrean dagoen mintzoak hitz eginarazten dio. Hots: hitz egina da; ez du hitz egiten alegia. Hizkera mintzo da bere lekuan; mintza-jardunaren objektua bilakatu da, nolabait esateko.

Hizkuntza alienazioaren fenomeno hau izendatzeko oharrok egiten ditu Rossi-Landik: "hau gertatu zenetik -hizkuntza alienazioa, alegia-, hizkuntza ekoizpena jadanik sortua eta egina dagoen gauzaki bezala transmititu da; hizkuntza-ekoizpen honen erdua etengabeki bersortuko da horretara hitzun-subjektuaren aho-lumetan; era horretara, hizkuntz ekoizpenaren sistema bere baitan bersortuko da hitzunleriaren gaintetik eta azpitik" ("Ideologie della relatività linguistica").

Ikus dezakegunez, interferentziaren auzia dago hizkuntzaren alienazioan ere. Lan-eremuko alienazioaren azalpenetan interferentziaren eskuharmena aipatzen du Marxek: jabetza pribatua, gainbalioa, tartekatu da gizakia eta izadiaren artean, eta bien arteko harremana errotik bestelakotu du. Arrotzu egiten du lan-gauzakiak, bere interes eta izaeraren arabera harremana eten eta beste mota bateko interesak nagusitu direlako lan-ihardueraren joan-etorrian. Hizkuntzaren mintzoa ere, dirudienez, ez da hiztun-subjektuaren arabera antolatu eta moldatua; objektiboki arrotzak zaizkion hitz-ideiak tartekatu zaizkio bere pentsamenduaren izari sinbolikoa gauzatzeko orduan.

Ekonomiaren alorreko gogaiek duten harrobi epistemologikoa gorabehera, Rossi-Landik ez du beldurrik izango handik behar duena hartu eta bere jarduera soziolinguistikora egokitzeko. Ekarpen horien artean dago hizkuntza alienazioarekin batera, hizkuntzaren jabetza pribatua ere. Sistema ekonomiko kapitalistaren barnean langileari dago-kion problematika ez da bestelakoa hizkuntzaren alienazioarekin alde-ratzen bada —hitz horiek bereak dira—. Baita besteok ere: “Kodeekiko gizarte-klase nagusiek ezartzen duten kontrola gogoan izanda, hots, komunikazio-kanalen gainean dagoen eskua ezaguturik, hiztun subjektuak aurrez moldatulako hizkera darabil. Darabiltzan hitzen bidez hitz egitera beharturik dago, hitz horiekiko jabetzarik gabe; berak eskumenik ez duen gizarte-errealitatearen eledun izatera makurturik dago, eta guztiorren zergatia eta nolakoa ezin du ulertu”.

Diogun, beraz, hiztun-subjektua ez dela hizkuntzaren ekoizpen sozialaren engranajea besterik. Hizkuntza-ekoizpenaren prozesu sozialaren baitako eleduna, edo nahiago bada, gatibu eta mendeko. Hizkuntza-ekoizpenak, bere aho-lumeei darizkien hitz-kateak bere gainetik eta agian bere aurka ari zaizkio. Jaio den gizartearen emaria den heinean, hizketa-eredu batzuk gainjartzen zaizkio. Eta indarrean dauden eredu horiek erabiltzen ez baditu, gizarte-ondorio makurrak bizkar gainean izango ditu berehala.

Hizkuntza-alienazio nazionala

Orain arteko hizkuntza alienazioaren funtsezko ezaugarria bere izaera sozialean zetzan: hau da, hiztun-subjektuaren identitate sozialean estatus-kontraizan nabarmenak dituen agentearen kasua. Ez zegoen erabateko doitasunik bere hizkuntzazko gizarte-ihardueraren eta bere estatus sozialaren artean; aldiz, bere izaera sozialaren aurkako hizkuntz jarduna nagusitzen zitzaion hizkuntz hierarkiaren eskutik. Pentsakera gailen-nagusiak bere hizkera-kodea ezarria duenez, langiletasunaren izaera soziala bestelakotua zegoen mintzoaren ekoizpen-jardunear.

Horiek horrelatsu gertatuko dira gurean ere, gure gizartekeraren oinarritzko egiturak mendekotasunaren logikapekoak direnez. Alabaina, ez da horretan agortzen euskaldunon hizkuntza alienazioa: horretaz aparte, izan ere, hizkuntza beraren erabilera alienatua baita ukagu geure jardunear. Berezkoa dugun hizkuntzaren orde, horrela, beste hizkuntza batean hitz eginarazten zaigu, pentsarazten zaigu: akulturazio fenomenoaren aitzinean gaude bigarren alienazio mota honetan.

Hizkuntza, bestalde, ezin da jadanik azalkeiazko definiziopean zehaztu: ez baita komunikazio-lanabesa huts-hutsik; ez baita gizartekerari gainetik-edo egokitzen zaion kode sinboliko soila. Hizkuntza, ondo ezagun den legez, gizartearen muin-muineko osagai eta eraikitzaile da: gizarte horren zutabe baita, giza iharduera oro hizkuntzazkoa ere badenez. Gizarte-egituraren zimentarria da, hizkuntzarik gabeko gizarte-sistematik egon ez dagoenez.

Euskal gizartearen alienazio historikoa, bada, horretan datza: gizar-tegintza hori izatez eta izaeraz bestelakotzeko desbiderazio prozesu bortitzean. Arrotz eta bestelako sentitzen da euskaldungoa bere gizarte-ihardueraren nondik norakoan: jatorriz eta izatez berari ez dagokion hizkuntza arrotz bat gainjarri zaio bere bizitza materiala ekoizteko jardunear. Alienazio mota hau, bistan denez, ez da soil-soilik formala eta mekanikoa: kontua ez baita lehen euskara zegoen iharduera-guncan

orain erdara arrotza tartekatzea interfertzia gisa. Areago doa aldaketa honen sakoneko bestelaketzea: gizartegintza bera, bere osobetea, arrotzu zaio euskal hiztunari, hizketa-bideaz aparte. Arestian esan dugunagatik hain zuzen: gizartetasunaren izaria (euskal gizartekera *versus* erdal gizartekera) bera dago auzitan sustraiko bestelaketze honetan. Euskal gizaki-subjektuaren osotasun-identitatea desegin da hizkuntzazko erreferente ideologiko eta kulturalen bidez: identitate nazionalaren zimentaria bera birrindu zaio euskal subjektuari gizarte-osotasunaren funtsezko ezaugarriak erdaldundu direlako. Bestela esan, euskararen izari sozio-kulturala gizarte-sistematik bereiz ezina denez, hizkuntz alienazioa gizartekera jakin baten alienazio bihurtu zaio.

Hizkuntz alienazioaren historia eta eragileak

Gure aldetik, bestetara baino lehen, ohartxo labur bat egin nahi genuke alienazio-kategoriaren gainean. Ez da gurea, ezta hurrik eman ere, inolako ikuspegi esentzialistaren oinordekoa kulturaren alorreko gai hauetan. Hots, alienazioaren zentzuak ez du gurean behialako izaki hilezkor baten betikotasun-izpiritu aldagaitzaren adierarik. Ez dugu hautematen alegia euskal izaera betikotuaren eduki-esentziarik; aldiz, euskal izate horri damaiogun izaera zeharo aldakorra eta dinamikoa da. Alienazioaren kategoriak gurean adiera dialektikoa du bere balio funtzionalean. Nolabait ere definitzeko, zentzu jakin-zehatz honetara biltzen dugu bere esanahi-mamia: beste zemahi herriren pare, hizkuntzaz eta kultura-ondare jakinez homiturik dagoen gizatalde baten bilakaera historikoa dugu gogai, euskal izatearen alienazio linguistikoa eta kulturala gogoetagai dugunean. Hizkuntzalaritzan hain ezaguna den kategoria diakronikotik hurbilago alegia sinkronikotik baino. Bego horretan alienazio hitzari buruzko ñabardura.

Hizkuntz ordezkapena dugu noski alienazio mota honen ondorioetako bat. Ez bakarra, jakina. Euskal izatearen ordezkapen hori ezin baita izan huts-hutsik hizkuntzazko bestelaketze-fenomenoa; hizkuntzaren gainean eraikitako mundu sinbolikoaren euskarri asko orobat

gainbehera datoz ordezkapen honen dinamikapean. Mundu sinboliko hori, bestalde, ez da herri zaharraren izari antropologiko-etnografikoa; damurik, herri zapaldu eta gutxiagotuen azalpideetan, behar baino usuago agertzen zaigu errealitate sinboliko-kultural horren adiera murrizgarri hori. Euskal zeinuak, horretakoen arabera, tradizio etnikoen ezpaleko ale pitxiak dira, gorde-gorde eginda, oroimenaren geruza inkontzientean edo jasotzekoak. Ez bide du balio operatibo-funtzionalik egungo gizartearen harreman sareetan gorpuzteko eta gauzatzeko: demagun, esaterako, eguncroko gizarteari darizkion kontraizan ideologiko edo psikologikoen izpiritu-olde etengabea. Bizi-iharduera hau ez dagokio euskaldungoaren errealitateari; egunerokotasunaren balio pragmatikoa erdaratik eta erdarazko balore-ideien harrobitik atera behar ditu euskaldunak.

Euskalduna bezalako gizarte-molde historiko jakin batentzat, bere erro historikoak milaka urtetan bariena galtzen zaizkigun batentzat, alienazio linguistiko-kulturalaren arriskuak txit zaharrak dira. Gauza jakina da erromatarren uholde gaitzak nola ez gintuen lurrazaletik erauzi: zoriak hala nahi izan zuen nonbait, gure lurraldearen zatirik hedatuena erakar-indar handirik ez zutelako edo, edota euskaldungoaren gizarte-garapen urriak berau isolamenduan "zaindu" zuelako. Inperioa "garaiz" eraitsi izana omen da aditu batzuen ustez geure euskal izatearen soka ez eten izana.

Bigarren aldiz gaude hortaz desagertzeko zorian. Feudalismoaren aroa oso-osorik eta bete-beterik iragan ondoren, nahiz eta bere muge-tan bariena murrizteko joera aro honetan ere suertatu, kapitalismoaren gizartekera garatuak astinduko du euskal izatearen oinegotura eta gainegotura guztia dardarka jartzeraino. Erromatarren indar bortitzak eragin ez zuen alienazio-prozesua eragin du Estatu kapitalista garatuak, eragile bortitzak eragile sinboliko-kulturalekin uztartuz.

Estatu-nazio modernoekin ez dugu erromatar inperioarekin izan genuen zoria eduki; orduan ez bezala, beren "barnera" sarrarazi gaituzte, lur eta kultur batasunaren ardatz irensgarriak bere hideda ezarian-

ezarian urratu arte. Claudi Estevarentzat Estatu-aparatu honen boterea izan da alienazio-eragilerik gogorrena, eraginkortasunaren kontzeptupean indar-aldagai guztiak barne direlarik: bai “kanpokoak” eta bai “barrukoak”. Zehaztasunez mintzatuz, berez ez dago kanpoko edo barruko alderik, batasunaren dinamikak sorburu eta helmuga anitza eta dialektikoa izan dituenek. Eta alienazio-prozesu hori elebitasun eta kulturbitasunaren izenean burutu da boterearen mintzoak halaxe xedatu duelako: “El biculturalismo, y en algunos casos el triculturalismo, es una expresión de este proceso histórico en el que el Estado-nación asume la alienación del desarrollo cultural de sus etnias nacionales internas” (*Estado, etnicidad y biculturalismo*, 147. or.).

EUSKALDUNON ALIENAZIOA HIZPIDE

Beste leku batean ere jardun izan dugu hizkuntza alienazioaz; baina orduan hitzaren zentzurik zabalenean jardun genuen. Oraingo honetan ez da horrelakorik izango: euskaltzaletasunaren alienazioa izango baitugu hain zuzen ere geure jardunaren ardatza. Aspaldiko kontuak dira halere eskuartearen ditugunak, besterik uste izan arren.

1971n argitaratu zuen Joxe Azurmendik "Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa", eta obra horretan mintzo zaigu zegasarria euskaltzale bartzuen alienazioaz. Orduko hartan, gerraurreko kontuak eta gogoan, honako burubide hau zerabilen bere artean: "Hortakoz, bi kasutan mintzatu ahal izango litzake euskaltzaletasunaren alienazioaz. Lehenik, euskaltzaleak akademikerietan, garbikerietan eta antzeko kerien pikutan dabilzanean. Euskaltzaleen artean ezagutu izan da holakorik. Baina garbikerien konturik okerrenak atzean gelditu ziren. Ba da bestelakorik ere. Esate baterako Orixe-k garbi esaten zion kultur-optimismo gehiegik hanpatzen zuen gazteari, euskera ez zuela kulturak salbatuko. Grekoaren adibidea jartzen zuen begion aurrean, kulturarik handienarekin hondatu bait zen. Eta gaur aitortu beharra dago: euskera ez luke edozein kulturak salbatuko, euskerazko kulturak ere. Zerbait halakok heriotza azkartu baino ez lieke egingo".

Horra luze eta zabal adierazia euskaltzaletasun alienatuaren noraeza. Arras jakingarria egiten zaigu Azurmendiren iritzia kulturari buruz-

ko zera dioenean: euskara ez du edozein kultura-motak bere onera ekarriko. Auzi honen harian aspalditik gora eta behera darabiltzagan zenbait hausnarketa isuri nahi nuke. Batetik, euskaltzaletasunaren alienazioa izango dugu gidari; eta, bestetik, euskal kulturaren zer-nolakoa.

Euskaltzaletasun alienatua.

Gerraurreko eta ondorengo zenbait euskaltzaleren garbizalekeria hizkuntza alienazioaren eredu ukazina baldin bazen, beste ezaugarri batzuk dituen euskaltzaletasun baten alienazioa azaleratu gura dut. Nolanahi ere, eta bestetara baino lehen, harekiko dituen aldeak funtsezkoak dira. Oraingo euskaltzaletasunaren ideologia ez baita euskararen izaera "garbian" funtساتzen; aitzitik, euskararen balio komunikatiboa lehenesten da, euskara gizarteratu nahi da kosta ahala kosta, eta horren mendeko kontuak dira *corpusaren* zer-nolakoak.

Guztiarekin ere, ez da haatik alienazio-joera nabarmen baten "idealismotik" behar adina saihesten egungo zenbait jokamolde. Ikus ditzagun bada, auzigai honen barrunbeak oro arakatzeko asmorik gabe, pentsakera euskaltzale honen ezaugarri azpimarragarrienak.

a) Euskararen izari edo dimentsio soziala ez da behar bezala aintzat hartzen. Hizkuntzalaritzaren eragina nabarmena da hizkuntza-sistemen definizioa itxuratzerakoan. Ezin ukatuko dugu, ezagun denez, soziolinguistikaren jakintzabideak argibide ugari ekarri duela izari sozial horren implikazio sakonaz. Eta itxuraz, erran nahi baita euskararen dimentsio soziala hitzez eta egitez aitortu arren, dimentsio horren sakonera ez dagoela behar bezala baloratuta.

b) Era horretara, euskararen arazoa gizarte-arazoa dela baieztu ondoren, dimentsio sozialaren izaera giza harremanetara murrizteko joera nabarmena ageri da euskararen aldeko elkarte eta militante ugariaren baitan. Euskaltzaletasun honen arabera hiztun-subjektuak euskaldundu behar dira, edota pertsonen arteko elkarrekintza euskaratu behar da, delako gizarte dimentsio horren zer-nolakoa giza geruza

horretan erabakiko bailitzan edo. Ideologia alienatu honen sustraia, oker ez bagaude, gizarte-zientzien alorrean hain erro sakonak dituen rol-papearen teoriaran barneratzen da. Ikuspegi horren arabera, eta zehatz eta labur esateko, giza-subjektuaren kokapen-lekua giza harremanen geruzean hezur-mamitzen da; bere izaera dialektikoaren harremangune nagusia geruza horretan datzanez, aski izango litzateke giza sare horiek euskalduntzea euskara gizarteratzeko.

c) Azken batean, hizkuntzari buruzko kontzeptu horrek ez du funtsean gainditu hizkuntzalaritzaren alorretik betidanik etorri izan diren definizioak. Saussure-n garaietatik aitoritu izan zaio hizkuntzari bere izari soziala; alabaina, aitorten horren ondorioak ezerezean geratu izan dira ia beti hizkuntzaren kontzeptua ikuspegi soziologikotik erai-ki nahi izan denean. Eta historia makur-hits horretan kokatu beharko genuke geure arteko euskaltzaletasunaren alienazioa ere: euskararen erabilera soziala giza geruza sozialaren mailatik haratago hautematen ez duen ikuspegiaren alienazioa. Alienazio honen ezaugarririk bereziena, nik uste, bere izaera "idealista" datza. Hots, hizkuntzaren izari sozialari itxuraz aitortzen dion gizartetasuna berrtetsi ondoren, gizarte-boterearen kontzeptuan esturturen dialektika alde batera uzten duen ikuspuntua dugu hau. Hizkuntz borrokaren historian, zenbait lekutan, joera hau "kulturalismoaren" deiturapean izendatu izan da. Kulturaren definizio "izpiritualista" bati dagokion haririk, gizarte egiturak aintzat hartu gabe, giza kultura "personal" baten gerizpean gordetzen du bere burua ikuspegi bonetik.

Euskal kulturaren zer-nolakoa.

"Euskera ez luke edozein kulturak salbatuko". Horra egungo egunean inoiz baino goriago daukagun auzia. Horra orain arteko topiko eta iritzi-uste sustraigabecen iraulbidea eskatzen duen tesia. Horra, hitz batean, kultura-kontzeptuaren definizio sakona aldarrikatzen duen proposamen teorikoa.

Halaz guztiz ere, Orixeren irizpidea goiko hori baino zorrotzago iruditzen zait. Alegia, "euskeraz ez zuela kulturak salbatuko". Eta egia esateko, oharren zolia erakusten digu hor Orixek zalantzarik gabe: hizkuntzaren gizarte-txertapena, izan ere, zein heinetan dago kulturaztat begiz jotzen dugun gainegiturako gizarte-egituretan? Bego ordea, oraingoz, adierazpen soil horretan burubide sakonagoa eskatzen duen korapilo askagaitz hori.

Euskararen gizarterapena ez luke hortaz edozein kulturak bideratuko. Hori da orain hemen dugun gogoetagaia. Inondik ere, delako kultura kontzeptu horren zer-nolakoak eta tasunak izendatu beharra dago, ezaugarri horien alde makurrak eta onurakorrak bereizteko. Has gaitzen emeki-emeki:

a) Kultura-kontzeptu horrek oroz gain euskalgintzaren izaria zorrotzki bereganatu beharko luke lehen-lehenik. Ez litzateke alegia, antropologiaren zenbait joera "izpiritualistaren" haritik, maila sinbolikoari dagozkion ideia-mundu hutsaz jardungo. Gizarte-bizitzaren esparruak oro bere baitan uztartuak eta teilkatuak izango litzuzke. Hala nola, esaterako, ideien mundu sinbolikoaz gain, bizitzaren eremu materiala eta soziala: laburbilduz, sistema sozio-kultural oso-betea bereganatzen duen errealtate material eta izpiritualaren osotasuna.

b) Euskal kultura hori ez litzateke kultura etnikoaren azpi-sistemara murriztuko. Hots, kultura kontzeptu horren eremu semantikoa ezin da herri-kultura tradizionalaren ondare bihurtumara mugatu. Aitzitik, egungo kultura sistemari erabateko hegemonia daukan industri kulturaren merkatu eta kontsumo-mekanismoetan txertaturik egon beharko luke; eta ez, jakina, kulturagune horien periferian kokatua, kulturadynamikaren zurrumbilo bizienean baizik.

c) Nazio-kulturaren tasunez hornituriko sistema kulturala izango litzateke. Nolabait esan, kultura-eremuaren sistema ideologikoei dagozkienez, problematika nazionalaren eremu zabala estali beharko luke bere ihardueraren luze-zabalean. Kulturaren dimentsio nazionala ez da gauza berria. Aldiz, herrigintza orearen ardatzean baitaraturik egon den

osagai erabakitzalea izan da; ez du horrek esanahi noski, Estatu-nazioen eredu berberari jarraitu behar gatzaizkionik. Ezta ere ordea, ustez aurrerakoitasun eta unibertsalismo itxuren izenean edo (gero eta gehiago dira gure artean "munduko hiritarrak": alabaina, inork ez digu esan hori zertan gorpuzten den), eta beste nonbait kokatutako erreferentzia kultural eta ideologiko nagusien mendeko izanik, naziotasunaren gaineratik bizi omen diren gizaki abstraktu horien eredia. Bata zein bestea onartezinak dira. Bata bestea bezain gezurrezkoa delako.

d) Euskal kulturaren auzigairik behinena ez da gainerako kulturekin izan behar duen lotura dialektikoaren tirabira. Hauxe baita izan, azkenaldian batez ere, euskal intelektual frankoren kezka bidea: ea nola eratzen diren bada, barutik kanpora eta kanpotik barrurako kultura-harremanen orreka-desorekak. Txokokeriaren arriskuak batetik; eta mimetismo itogarriaren eragin makurrak bestetik. Ez, besterik da arazo hau adierazteko erabili beharko genukeen hizkera: izan ere, nork ukatzen du harreman horien beharra eta ezinbestekotasuna egungo gizarte-ereduaren prozesu historikoan? Inortxok ez. Hori ez da orduan kontua.

Kontua, nik uste, beste zentzu honetan formulatu behar da inondik ere. Harreman horien gorabehera eta egituraketa konkretuetan nolako autonomi-maila izango luke euskal kulturak? Hori batetik. Eta bestetik: zer-nolako hegemonia-izaera izango luke euskal kulturak auzo-kulturekin osatuko lukeen kultur sistema globalean? Nolako izaeraz hornituko litzateke hain zuzen euskal kulturaren legitimitate soziala? Zertan gorpuztuko litzateke alegia gizarte-egituraren eta kultura-sistemaren arteko korrelazioa eta kidetasuna? Entitate nazionalaren jabe izango litzateke, edota ez luke izari erregionalaren mailako trinkotasuna baizik izango? Galdera hauei erantzuten ez zaien bitartean, jai dago.

Benetako alienazioaren iturria

Euskaldunon kultur alienazioa ez litzateke ordea alienazio eratorria besterik izango. Alienazio maila bat, oso funtsezkoa noski, baina aldi berean beste alienazio estruktural sakonago baten ondorioa.

Eta non datza alienazio-maila honen zinezko kausa? Begira zer zioen Azurmendik lehenago aipatu dugun liburuan: "Alienazio edo nor-galtze benetakoa ta objetibua, ordea, konzeptu honen zentzurik hertsienean eta marxistenean, euskaldunokin gertatzen ari den nazio-galbideak sortzen du. Hori da inorentzat begirunerik batere gabe gaur esan beharrezkoa. Alienazio hori sistematikoa bait da, ez halabeharrez edo menturaz edo ezinbestekoren bategatik eta ez behin-behingoz edo probisionalki egindakorik. Hori erakusten du gu jaioz gero ikusten denak".

Alienazioaren mintzamolde hau abertzaletasun esentzialistarekin edo erromantikoarekin parekatzeko joera dago gaur egun. Batez ere Euskal Herria "txikitxo" bihurtu zaienei. Ez da harritzekoa ere ordea hori horrela suertatzea; beti gauza bera gertatu zaigu, eta nago antzeratsu jazoko zaiela estaturik gabeko herri-asmo gehientsuenei. Ondo gogoan dauzkagu inoizko liberalen askatasun-egarriak, herri oinperatuon bizkarretik asetzeko abilezia sotilak. Nazio-zapalkuntzaren epealdi guztietan konstante beretsuak islatzen dira, nahiz eta itxuraz oso bestelako fenomeno ideologikoa iruditu. Antzekotasunak enbor berberara garamatza: burujabe diren herri-nazioen izaerako kultur eta politika arauak eta jokamoldeak aldarrikatzen dituzte hauek, eta txokokeriak alde batera uzteko gomendioa luzatu. Horra, bada, nazio-alienazioaren mintzamoldea entzun orduko abertzaletasunaren ajeaz gogaiturik daudenek gogoraziko digutena.

Errealitatea ordea, ezinbestez, bere gordintasan guztiaz horniturik dago. Eta gordintasan horren inamiak etengabe salatuko du delako alienazio hori: ez gaude besten antzera bizitzeko moduan, bestek guk ez bezalako nazio-eskubideak dituztelako.

Nazio-alienazioaren gure kontzeptuak ez du zerikusirik behinalako nazionalista erromantikoen eskemekin. Ez dugu sinesten inolako nazio-esentzietan; ez dugu sinesten halamoduzko herri-izpiritu hilezkorrean; ez dugu sinesten nazio-izatearen betikotasunean. Guretzat besterik da arras nazio-alienazioa: aldiari aldiko eta lekuan lekuko bal-

dintzapeen historikoen ardatzean oratzen den naziotasun bizi-aldakorra hautematen dugu nazio kontzeptuaren adieran, eta izaera dinamiko hori duen euskal nazioaren alienazioa salatzen dugu. Eta ez Euskal Herri idealaren muin betikorik.

Arrazoi osoa du Azurmendik bere irizpidean: euskaltasunaren osotasuna bereganatzen duen izaera etniko-nazionalaren alienazio nagusiak sortzen ditu ondorioz gaienarako alienazio mota guztiak. Hala nola, kulturarena edo pentsakerarena, hala nola hizkuntzarena edo politikarena, eta horrela gizarte-instantzia guztietan barrena. Alienazioaren gorabehera hauetan ere Estatuaren auzia daukagu azken buruan. Lehen buruan esan beharko genuke, burutik hasten baita hemen ere, herri bat usteltzen.

EUSKALTASUN MOTAK ETA MAILAK: ETNIKOTASUNA, ABERTZALETASUNA ETA ESPAINOLTASUNA

Izenburuari so egiten badiogu, argi dago auzigaiaren luze-zabala: euskaltasuna eta jarrera-jokaera politikoen arteko lotura ikertu nahi da. Dakigunez, pilpilean dagoen gaia dugu hau, hizpide franko emana, eta ez dugu batere zalantzarik, hemendik aurrera ere eztabaida ugari izango da Euskal Herrian. Izenburuan agertzen diren terminoak ikusita, badirudi euskaltasunak batzuekin besteekin baino lotura eta kidesun sakonagoa izan beharko lukeela, baina gauzak ez dira hain argiak. Demagun, esaterako, abertzaletasuna eta euskaltasunaren artekoa: teorian bat etorri beharko luketen kideak ez dira kidetzen eguneroko hizkuntza eta kultura jardueran nahitaez eta derrigorrez.

Aurrera dezagun, beraz, gradu-mailak daudela izaera linguistiko-kulturala eta jarrera politikoen artean. Begien bistakoa da, halere, jarrera abertzalearen eta euskaltasunaren arteko lotura eta atxekimendua beste kasuetan baino sakonagoa dela. Abertzale izateak berez baitarama euskal balore kulturalen aldeko joera, nahiz eta isuri hori gero norbanakoaren praxian kontraizanez beterik agertu sarri askotan. Abertzaletasunak inplikazio-maila zorrotzagoa dauka beraz, ideologia teorikoaren geruza soilean bada ere; besterik baita, esan bezala, erantzukizun-arduraren mamikuntza. Jarreraz eta ideologiaz erregionalismoaren tesi-praxietan dabilenak, berriz, atxekimendu epelagoa izango du euskal kulturaren eta hizkuntzaren alorrekin. Erregionalismoaren

autodefinizioan, besteak beste, subjektuaren nortasun nazionala nortasun-geruzez gainjarririk agertzen da: alegia, euskalduna bezain espainola, edo espainola baino euskaldunagoa, edo euskalduna baino espainolagoa... edo antzeko definizioak agertzen zaizkigu berarizko inkestetan. Eta, pentsatzekoa denez, bere burua abertzale hutsatzat daukanak baino urrunago sentitzen ditu euskaltasunaren identitate-osagaiak. Mailakatze lan honetan espainolismoaren lekua datorkigu azkenik: honentzat, izan ere, nazio-identitatearen zutabe nagusi-bakarra Nazio-estatuari dagokion izaera baita, eta euskaltasunaren auzia eskualde-auzitzat joko du. Identitate-zutabearekin batera, baina haren logikapean, bigarren nortasun-izaera euskalduna duela aitortuko dizu.

Atariko hitzok jartzeko, horretara, zera esango genuke: Euskal Herriko nazio-identitatearen barruan kokatzen dugun euskaltasunaren alderdi hau argitzeko unean, gauzak hemen ez bezala direla gure auzo-herrietan. Espainolak edo frantsesak oso argi baitauka, izan ere, bere naziotasunaren adiera eta zentzua; ez da hasiko alegia bere oinarritzko espainolasuna edo frantseztasuna beste izaera bateko nortasun nazionalaz nahasten. Gurean, ordea, zirkulu kontzentrikoak ageri zaizkigu hemengo hiritarraren zer-nolakoa definitu nahi denean: "A" naiz, baina "B" ere bai; "B" naiz, baina "A" ere bai.

Ez gara asko, ez behintzat gehienak, euskal nazioaren nortasun-muinean sentitzen garen euskaldunok: euskalduna, eta kitto. Utz dezagun oraingoz, beste baterako, gure nortasun unibertsalaren izarria, edo Koldo Mitxelenak zioen hura: lehen-lehenik gizona naiz eta gero euskaldun. Euskaltasunaren nnkleotik at, Txepetxen hizkera erabiliz, harako periferiaren geruzetan barrera dabilenak alegia, laister aterako dizu itxuraz arrazoi sakoneko burubidea: baina ez gaitetzen txokoke-riaren filosofian murgildu, ezen eta egungo gizarte-molde mundutarran ez baitago nazio-identitate huts-bakarririk. Eta, egia esan, etxalde globalaren eragina egunetik egunera biziagoa da bizitzaren zernahi alorretan; batez ere informazio eta kultura-hizkuntzetan. Halere, euskaldun garen aldetik, erantzuna landurik eduki behar dugu horrelako-

etan: hots, kontua ez da nazio-nortasunaren izaera bakarra edo anitza, baizik eta nortasun horren hegemonia-maila. Noraino gaude asimilatuta? Zertaraino gara geure buruaren jabe? Noren edo zeren eskuko gara identitate kolektiboaren auzian?

Zeren, jakina, gauza bat daukagu argi eta garbi hasi aurretik: hain zuzen ere, gure mendeko izate honek sortarazten dizkigu nortasun kolektiboaren katramila guztiok. Hitz batean esanda, Estatu espainolak eta frantsesak eragiten dizkigute euskaltasunaren krisi-kinka larriok. Ez baikara herri "normal" bat; ez baikaude besteen pare esku-bidez eta ahalmenez; ez baikara, laburbilduz, geure buruaren jabe. Izan nahiaren eta ezin izanaren arteko dialektika gorrian bizi gara euskaldunok; beste modu batera esanik, kontzientzia tragikoaren zurrunbiloan murgildurik. Eta ez, orain ideologia nagusiek sinestarazi nahi diguten moduan, gure inoizko euskal izaeraren esentzia bila obsesio-naturik edo. Ez dugu inolako muin hilezkor eta fundamentu misterio-tsuri nahi geure bizitza kulturala moldatzeko. Aski dugu bestek dutena; ez dugu besterik eskatzen. Asko eskatzea ote da?

Euskaltasun etnikoa

Euskaltasunaren unibertsoan aspaldikoak dira pentsakera politikoz abertzaleak ez direnen adibideak. Horietako batzuk, gainera, txit sonatuak euskalgintzan-eta egin zutena egin zutelako (Azkue bat, besteak beste, ez bide zen abertzaletasunaren definizioan sartzekoa). Joan den mendeko euskal liberalismoaren partaide ugari lekuko; ideologia politikoz espainiar Estatu-nazioari atxekiak baina jatorri etnikoaz euskaltasunaren harrobiko. Alabaina, ez dira izan bakarrik. Gerra aurreko sozialista euskaldunen lekukotasunak ere gogoan daude oraindik; beste inon baino areago nabarmendu ziren Eibarko militante batzuk jatorri etniko euskalduna eta nazio-identitate espainola uztartzen.

Euskal Herriko liberal eta sozialista horien euskaltasunari izenondo zehatza ezarri diogu: etnikoa, alegia. Zer eman nahi da aditzera ize-

nondo horrekin? Hitzaz berez garbi mintzo den legez, euren jatorri etnikoak kokatu zituen euskaldun horiek euskal herri-kulturaren altzoan. Jatorrizko identitate etnikoari dario euskaltasunaren izaria; eta ez, beraz, inolako aukera ideologiko-politiko baten ondoriozko kokapenari. Jatorri etniko horrek euren euskaltasuna islatzen bazuen, ordea, beren pentsakera politikoak eta praxi sozialak alderantzizko emaitzak isurtzen zituen. Halaz ere, nortasun bikoitz horren altzoan ez bide zuten antzematen kontraizan eramangaitzik.

Honenbestez, ohar argigarri bat egin beharra dagoela dirudi: etnikotasuna, batetik, eta nazio-estatutasuna bestetik, nolabaiteko oreka leunaren baitan bizi izana, ez da batere harritzekoa orduko ingurune historiko hartan. Ezin dugu ahantzi, izan ere, oinarrizko baldintzapenak arras bestelakoak zirela orduan. Demagun, adibidez, Estatuaren aldelikako eskuharmena edo gizarte zibilaren estatalizazio fenomenoak. Antzinako errejimenean lehenik, eta aurrekapitalismoaren aldi gero, euskal gizarte zibilaren keinena eta bizitasun etnikoa artean oso sustraiturik zeuden Euskal Herriko eskualde ugartan. Ez zegoen, gero egon den moduan behintzat, bateko estatutasunaren irespen-indarra eta besteko nortasun etnikoari inola ere ezin eutsia. Bazegoen, hortaz, gerora itogarria bihurtu den bikoiztasunaren tirabira horri itzurtzeko zirrikiturik. Ez bide zen egungo egoera eskizofrenikoarekin parekatzeko deusik.

Egia da, bai, orduan ere euskal gizartearen atal etniko hauek (herri xehea) bekokian erantsita zeramatela euren mendekotasunaren ikurra. Bestelakoa zela, alegia, hemengo klase gidarien kokapena eta jarrera etnia/Estatua delako identitate-tirabiran. Baina, nolana ere, alderaezinak dira tirabira horren ondorio material eta sinbolikoak gizartemolde hartan eta geroagoko honetan. Orduan osagarria zena, gerora elkargaitza bihurtu da, eta egoera hori orduan ez bezala bizi du egun jatorri etnikoz euskalduna denak baina hautu politiko-kulturalaz espainola edo frantsesa denak.

Euskaltasun abertzalea

Beste biak baino eztabaida-iturri oparoago izan da abertzaletasunaren izari euskalduna. Herri "normalduetan" ez bezala, gurean, izan ere, ez dira sarri askotan elkarren osagarri izaten subjektuaren alderdi politiko-ideologikoa eta kultural-linguistikoa. Nortasun erdibituaren eredu garbia daukagu hemen: gauza bat izan, baina beste bat izan nahi. Eta ez izan eta izan nahiaren arteko dialektika horretan era guztietako ulergaitzasunak sortzen dira euskaldunen artean; horra, bada, hainbeste kritika eta salaketaren zergatia.

Hemen ere oinarrizko azalpena egin beharra dago haseratik bertatik: abertzaletasunaren izari hori ez da era berdinean bizi autodefinitzioz abertzaletzat jotzen diren haien artean. Batzuek, bikoiztasunaren kontraizan latzaz ohartzen direnek, modu mingarrian bizi dute euren bitasun gatazkatsua; eta, jakina, inori ez zaio bururatzen giza andana honen zinezko nahia eta borondatea auzipean jartzea. Bada ordea, zoritxarrez, beste talde bat ere kategoria horren baitan: eta hemen bai, hemen ez dirudi beti abertzaletasunaren ikurra zinezkoa eta benetakoa denik.

Are gehiago: euskal nazionalismoaren mugimenduan guztiz hedatua egon den giza taldea dugu bigarren hau. Azkenerako, talde boteretsu honen hidez, abertzaletasunak bere berezko izaera galdu du: hots, euskaldun izatearen kontzientzia ia erabat urtutzeraino iritsi da eredu honen pentsakera eta jokamoldeetan.

Teorian bederen nazio-egitasmoaren zentzua bete-oso baldin bada, subjektuaren dimentsio linguistiko-kulturala eta bere jarduera politiko-ideologikoa bat datoz. Ez dago printzipiozko kontraizanik. Dena dela, horrek ez du esan nahi praktika sozio-politikoaren eta linguistiko-kulturalaren artean tirahirarik sortuko ez denik. Gogoan izan beharko genuke, gainera, tirabira eta elkargaiztasun horiek ez direla berez norbanakoaren araberako fenomenoak. Euskaltasuna, Euskal Herri suntsitu edo erdi-desegin hati darion nolakotasun-egocra da, ez

euskaldunaren ezaugarri personal bat. Eta, aldi berean, gizarte-molde nagusi-hegemonikoaren hizkuntzazko eta kulturazko tasuna, Estatu-botereari dagokion errealitatea da. Hor murgildurik bizi garenez, bere burua abertzaletzat daukanak, desajuste bortitzak biziko ditu bere jokabidearen arautzat euskaldun izatearen kontzientzia ipintzen badu. Pragmatismoaren izenean, halare, bestelakoak ez du buruhauste handiegirik izango abertzaletasunaren banderapean praxi erregionalista mamitzeko. Ondo dakigunez, geure ideologiak bizi gaitu; eta horren arabera subjektuak ez dauka halako egokitzapen-mekanismoa indarrean jartu besterik. Horrela ulertzen da hain ulergaitza egiten zaiguna: abertzalea izan baina erdaraz lasai-arraio bizi. Ideologiaren funtzio miraritsu horri zor zaio subjektuaren moldakortasun amaigabea.

Esanak esan ondoren, goazen beste auzi batera: euskalgintzaren ardatz ideologiko-politikoa abertzaletasuna al da? Edota, pentsalari libreen nahia beteaz, gainerako hautu politikoan enborreko agenteek ere zer esan eta zer egin bandia daukate alor horretan?

Erantzuna zaildu egin da eskema soilduen arabera ihardetsi ahal izateko. Zailtasunaren iturria, itxura denez, euskalgintzaren berarizko autonomia erlatiboari zor zaio: nolabait esateko, euskalgintzaren iharduerak berezko autonomia duke oinarri-markotzat daukan gizartegintza osoaren mugarrietan. Bestalde, giza-subjektuaren jarrera ideologikoak ez bide du, ikuspuntu horren argitan, euskalgintzaren alorrean ondorio praktikozuzenik. Hitz batean, edozein ideologia politikotik buru daiteke euskararen aldeko saioa, eta jarduera horretan, gutxienekoa da agentearen izaera politikoa.

Ni neu ez naiz irizpide horretakoa, nahiz eta euskalgintzaren berarizko autonomia erlatiboa aitortu eta defendatu. Egia da, eta ezin da ukatu, ez dagoela printzipiozko ezintasunik abertzale izan gabe ere, euskalgintzan jarduteko. Iharduera hori, izan ere, ez baita berez eta izatez, norbanakoaren hautu libre eta askea; guk dakigunez, giza jokabidearen zer-nolakoa ez da gizarte-eredu jakin baterik at jazotzen den fenomeno, eredu horren araberrako portuera baizik. Eta hori horrela

dela frogatzeko, ez daukagu euskaltasun etnikoaren adibidea gainbe- giratu besterik: orduko euskal gizarte-ereduari zerion jatorrizko eus- kaltasun etnikoz eraikitako giza jokabideak dakuskigu liberal eta sozialista haien artean. Eta orain, gizarte-joera batzuen esparru-ihar- dueretan euskararen sarbidea ahalbideratu delako, ideologiaz abertza- leak ez diren giza-portaerak nabarmentzen hasi zaizkigu. Horrenbes- tez, gizarte-ereduaren euskaltasun-mailak determinatzen du giza-agen- teekiko erakarpen indarra: ekonomia-hizkera erabiltzea zilegi balitzaigu, euskalgintzaren merkatu-erakarpenak bere baitara erakarki dituen ideologia anitzeko giza taldeak direla esango genuke.

Dena esana ote dago, ordea, hori eta horrenbestez? Ezezkoan nago. Baina hori gerorako utziko dut: euskaltasun espainoiaren atalerako alegia. Bitartean, abertzaletasunaren eta euskaltasunaren arteko ezkon- gaitasunak ditugu aztergai.

Euskalgintza, nire ustez behinik behin, nekez murrizt daiteke, murrizkerietan jausi gabe, hizkuntzatasunaren izari eta izaera soil-hu- tsera. Baina zorrotzago egingo nuke galdera: hizkuntzatasunaren kontu hori ere ez da hizkuntzaren baitako anzi-mauzia? Eta hor dago koska, inon egotekotan. Hizkuntza ez dela hizkuntza-sistema guk darabilgun soziolinguistikaren ikuspuntutik; hizkuntzaren dimentsio soziala baitugu genre metodoaren ardatza. Eta dimentsio hori begiz jotzerakoan, hizkuntzatasunaren zer-nolakoak, luze-zabaleraz eta erro- penaz, gizarte-egituren eraginez eta izaeraz gorpuztuak daudela ohar- tzen gara.

Euskalgintza, hots, euskaraz gauzatutako giza iharduera, koorde- natu eta estrategia soziologiko batzuen sare-bildumetan kokaturik dago. Estrategia horiek dira, abertzale batentzat, axola handiko datuak: nora garamatza euskalgintza honck edo horrek, harako eta bestelako inplikazio sozio-politikoen ildoan? Ezen, jakina, euskaraz jardute soi- lak ez baitu zimentarri sendorik finkatuko gizartegintza euskalduntze- ko prozesuan. Hori dela eta, hizkuntzari ez ezik, hizkera ere hil ala biziko auzia dugu euskalgintzaren arazoan; edo, agian, ez ote daiteke

bada, euskaraz ere euskararen kontra jardun? Bai noski: eta horretarako ez daukagu Nafarroako eta Iparraldeko euskaldun alienatuen bila abiatu beharrik, beren euskaltasunaren folklokereria azpimarratu beharrik, hizkuntza bateko giza talde jakin bat jatorriz, bere buruari harri-ka ari dela argitzeko. Etxekaltez beterik egon gara beti.

Hizkuntzaren dimentsio sozialak ez du zalantzarik uzten abertzaletasunaren eta euskaltasunaren arteko dialektika horretan. Abertzaletasuna, izan ere, herrigintzaren gizarte-estrategia baldin bada, bere abertzaletasunaren aldeko jokamoldea baldin bada, hizkuntzatasunaren izaria bere osagairik garaiena izango du. Besterik izango da abertzaletasun horren alienazio-maila: zertaraino arrotzu da halakoaren kultur-identitatea, eta hainbestean, zer heinetan bereganatzen ditu abertzaletasun horren implikazio linguistiko-kulturalak? Izan ere, abertzaletasunaren izatea ez baita izatera huts-garbia, inolako eraginik gabeko subjektu gardena. Hemen ere hegemoniaren hizkera erabili beharko genuke abertzaletasun-izate-za hori definitzeko: hots, zein elementu ideologiko eta kultural gailentzen dira bere burua abertzaletzat jotzen dutenen artean? Zein elementu dira hegemonikoak? Zein mendekoak? Zein dago zeren gaineratik eta azpitik?

Guztiarekin ere, gauzak ez dira nahas-mahasaren anabasan edo, bereizgaitzak bihurtzen. Joera nagusiak erreparatu behar ditugu; joera estrategikoak alegia. Eta ildo nagusi horien harian baloratu euskararen aldeko ekinbidea. Balorapen horren argitan, nik uste, honako honek argi geratu behar du: hots, euskararen gizarte-izaria aintzat hartzen duen mugimendu politiko bakarra abertzaletasuna dela. Ikuspuntu abertzaletasunaren argitan izan ere, euskarari ez zaio hizkuntzatasun huts-soiletik so egiten, hizkuntzaren gizarte-zimentarrien ikusguneetik baizik. Eta horretan datza jarrera abertzaletasunaren eta bestearen arteko funtsezko aldea: honek euskararen gizartetasuna bermatu nahi du oroz gain, eta bestek euskararen nola-halako ezagutza eta erabilera. Euskararen arazoa ez baita, izan, ez ezagupenarena eta ez erabilpenarena; hizkuntzari gizarte-molde jakin bat zor zaio, lurgune zehatz bat zor zaion bezala, eta gainerako kontuak hizkuntza-espekulazioak dira.

Euskaltasun espainolista

Nazio eta gizarte-estrategia espainolizaleak diren jokoera eta irizpi-deak kokatzen ditugu espainolismoaren deiturapean. Ideologi sistemen oinarritzko definizio batek zera esango liguke: ideologiak zer diren ikertzeko garaian hauen prozesu-izaera eta jarrera-praxia dela kontuan hartu beharrekoa. Ez dira, hortaz, ez estatikoak eta ez pertsonalak. Gizarte-molde batetik eratortzen diren praktika eta pentsakera-ereduak izan ohi dira delako ideologiak; eta horien artean, jakina, ideologia politikoa dago besteak beste.

Atari-atariko argibide bat eskatzen du honek guztiak: guk ez diogu inori bere hautu ideologikoaren eskubiderik ukatzen. Zentzugabekeria hutsa baita beste gauza askoren artean: inork ez du bere ideologiarik sortzen, baizik eta inor hori korronte ideologikoen jarrera-baloreetan txertatzen da sakonago edo azalerago. Hori da guztia: kokapen kontua.

Ideologiaren zer-nolakoaz aurre-azalpen horiek egin ondoren, ekin diezajogun segidan beste nabardura bati. Guk ez dugu berez "pertsonarik" kritikatzeko eta maxiatzeko; izatekotan ere, jarrera-halora jakin batzuen efektuak neurtzen ditugu, eta efektu horien izacraz oharu ondoren, praxi eta tesi horien estrategia salatzen dugu.

Zer esan nahi izan dugu horrekin? Ba, gure ustez hain argi dagoen auzia, hizpide garratzen iturri ez ezik, gaizki ulertze askoren zergatia izaten da. Bai baitirudi euskalgintzan diharduen subjektu ez abertzale-ari geure gaitzespena egotzen diogula auzigai hau planteatu orduko. Eta ez. Ez dago horrelakorik. Ez dugu, berriro diogu, "pertsonarik" kritikatzeko; gure kritikagaia ideologia-prozesua izango da, halore-pragmatika, jarrera-efektua. Prozesu-praktika sozial horien joan-etorrian dakuskigu giza-agentek, eta hor dihardute horiek nor bere egitekoea betetzen.

Horiek horrela, galde-zerrenden txanda gainezka dator: tesi eta praktika espainolisten hariko euskalgintzak nola bideratzen du gizarte euskaldunaren estrategia? Zer-nolako zimentarriak ezartzen ditu bere

euskaltasunaren oinarrietan? Euskaraz ariko da, eta euskararen alde, baina nola liteke hori guztia, maila estrategikoan, ideologia praktikoko horren nazio-ereduan euskal gizarteak estatus erregionalista baldin badauka? Nola liteke, beste hitz batzutan, hizkeraz aberririk opa ez dion euskara-hizkuntzari, hau da, berezko lur eremu hegemoniko bat ukatzen dion hizkuntzari, erabateko aterabide bat eskaintzea? Zeren, eta puntu hau oinarritzkoa delakoan gaude, euskararen alde diharduen kultur politika ez da bakarrik euskaraz ari, euskararen aldeko hizkeraz baizik: eta hizkera, hitz egiteko era da, pentsatzeko bidea, eta jokatzeko modua. Ez dezagun, gainera, esan berri dugunez, hizkera-pentsakera-jokaera hori titulu pertsonalean har, fenomeno soziologiko hori ez baita gorabehera psikologiko bat.

Espainolismotik ezin da Euskal Herririk eraiki, eta hainbestean, ezin da gizartegintza euskalgintzaren ikuspuntutik eraiki. Egon daiteke halere, bere burua abertzaletzat ez daukanik, edo bere burua euskalduna bezain espainolizat definitzen duenik, eta euskalgintzan diharduenik. Fenomeno hau gero eta ugariagoa izango da gure artean gainera; ez dago horretarako gure herriaren osakera soziologikoa eta politikoa kontuan hartu besterik. Euskalgintzaren eremuan ideologia-aniztasuna egotea gauza bat da, eta beste bat ideologia horien hegemonia-indarra eguneroko hizkuntza eta kultura dinamikan. Ideologia-aniztasuna defendatzea oinarritzko arau demokratikoa dirudi, batetik; baina aniztasunaren izenean ez dago beti orekarik eta berdintasunik. Eta hor dago koxka! Eta, itxura denez, koxka hori ez du gure arteko demokrata askok ikusi nahi. Demokrata horrek pertsonaren eskubide indibiduala bakarrik ikusten du, guk herri eskubidearen kontraizana ere ikusten dugun lekunean. Guk, abiaburuko zapalkuntza dagoen lekuan, ezin dugu "persona" bakarrik ikusi; pertsona horren gizatasuna zertzen duen gizarte-egitura ere gogoan izan behar dugu. Gizatasuna, bidenabar esateko, ez da gizakiari bakar-soilean dagokion tasuna; gizatasuna gizakiaren gizartetasanari datxekion tasun bezala definitu izan dugu beti. Zentzu berean, euskaltasuna, euskal gizarteari darion tasuntzat daukagu, eta ez norbanakoaren ezaugarri berezizat.

Euskalgintzaren izaera, beraz, gizartegintzaren baitako fenomenoa da. Euskalgintza ez du norbanakoak zer-nolakotzen. Prozesu eta gizarte-iharduera da. Eta koordinatu horien luze-zabalean erabakitzen da euskalgintzaren emaitza, halako edo bestelako giza-agente solte batzuen *curriculumaren* gainetik eta azpitik. Ez du balio, hortaz, ideologia estrategikoaren alorrean euskal nazioaren aurka diharduen euskaldunaren praxia eta tesia onetsi nahia; sena demokratiko itzela izan dezake horretan dabilenak agian, alabaina auzigai hau ez da askatasun pertsonalaren mailako kontua, praktika sozial egituratzaileen arteko gatazka baizik.

Euskalgintzak, hau da, euskararen aldeko iharduera zinez eta benetan euskararen aldekoa izango bada, egituratzailea izan behar du. Eta euskararen erabilera egituratzea ez da maila taktiko-pertsonalean erabakitzen den prozesua. Egiturapen hori estrategikoa eta oinarrikoa da: estrategiaz gizarte euskaldunaren erdua du xede, eta oinarriaz euskaltasun izari horri berari dagokion aberri-lurraldea opa dio. Lur bat hizkuntza batentzat, beste hizkuntzen estatus maila hegemonikoa gaitzetsiz: horra euskaldunon gogo-nahi xumea eta apala. Ez goaz elebakartasun hutsaren errekara: ur garden eta freskoak nahi ditugu, ahalik eta hikuntza gehienetan igeri egiteko, baina euskararen hegemonia jartzen dugu ukaezinezko eskubidetzat. Oker ulertzerik ez sortzeko, halere, elebakartasun horren izaera indibiduala dugu mintzagai hemen.

Euskaltasunaren berezko gizarte-praktika

Honenbestean, eta azken argibide gisa, orain arteko gogoeta-saioaren muina laburbildu nahi genuke. Euskaltasunaren hiru gradu edo maila definitzen saiatu gara, zein bere ezaugarri eta mugekin. Euskaltasunaren izaera ez dugu dimentsio linguistiko huts-soilean kokatu: euskaltasuna kategoria sozio-kulturaltzat jo dugu bere luze-zabalean. Eta printzipio honek gidatu du gure pentsabidea.

Euskaltasunaren logika ildo historiko-kultural bati dagokion zentzuan hautematen dugu guk. Inguruko zibilizazioak eta kulturak baino zaharragoa den historia-enbor zahar baten oinordeko, Euskal Herriaren berezko ezaugarritzat daukagu euskaltasunaren nortasun-identitatea. Eta ildo historiko horren arabera, ez dugu uste alderdi kultural hori gizartekera jakin batetik bereiz daitekeenik: alegia, euskaldun izate nazionalaren existentzia bermatzen duen sistema osoa da euskaltasunaren sostengu eta euskarri. Horra, bada, kontraizan ideologiko eta kulturalen gatazkak dimentsio horretan dituen eragin makurren zergatia.

Nolanahi ere, norbanakoaren jarduera izaten da sarrienik liskarbidetxe, eta gu ez gaude prest maila horretako kritikagaia kritikabide osoaren ordeztzeko. Erran nahi baita, euskalgintzaren zer-nolako auzumamitzen eta determinatzen duen ideologia praktikoa ez dela giza eskubide indibidualekin ahitzen den korapiloa. Eta korapito horri beste buelta bat ematea aski izango dugu, norbanakoarekiko tolerantzia eta begirunea ahaztu gabe, ideologia horien eragin hegemonikoa euskaltasunaren itogarri estrategikoa izan dela ohartzeko. Orain arte izana, jakina, orain ez da bat-batean bestelakoa bihurtuko ez dakit zeren indar ezkutuz.

Euskalgintzaren prozesua ez da norbanakoaren maitako ihardnera isolatua. Gizartegintza den heinean, fenomeno soziala da, eta hainbestean, gertaera soziologikotzat aztertu behar da, psikologia moralaren irakaspenak beste azterpide baterako utziaz. Euskalgintza, hots, euskaltasunaren gizarte-alderdia garatzen duen praktika eta prozesu soziala, irizpide politiko eta ideologikoen argitan behatu behar dugu. Bere ihardueraren nolakotasunak hauteman; esate baterako, euskarri-ideologia-politika-gizartea multzoaren barneko korrespondentziak ikertu, beren arteko egokitasun/kontraizanak erakartzeko. Ezin gara aurrerantzean ere mendetako morrontza kulturalak eta ideologikoak gure herriaren portaeran itsatsi duen gutxiespen-komplexuaren gatibu izan. Garaia da, kitto esateko. Ordua herritik herrira, nazioik naziora hitz egiten hasteko.

Azken batean, kultura kontzeptu egoki batek argitzen digu, beste ezerk baino zorrozkiago korapilo honen alderdirik lausotuena. Ez baita batere adimen zolia izan behar, alajaina, kultura bakarraren hipotesiak frogatzen duen iteerarik gabeko zuloa ikusteko. Hain zuzen ere, erdal monokulturalismoaren hipotesia daukagu horren lekuko: horretara, euskararen transmisiobidea daukagu batetik, eta hizkuntza-jarraipide horren berorren eduki-mami arrotza bestetik. Erabateko gailentasuna duen erdal kultura eta ikuspegiaren (balore-pentsakerak eta jarrera-praxiak) baitako transmisiobidea opa diogu euskagintzari, inondik ere; bestela ez da ulertzekoa irakaskuntzan-eta gertatzen ari zaiguna aditzea. Eta, noski, itsutasunak ere bere neurriak ditu ilunbe honetan: azkenerako, eguneroko gizartegintzaren esanahi eta funtzioak begien aurrean dituzula, itsukeriak bakarrik itsutzen zaitu ezer ez ikusteko moduan. Bestela jadanik jakinaren gainean zaudc, nahiz eta maiz askotan gertaeraren zergatia formulatzeko pentsakera egokirik artean ez itxuratua eduki. Hitz batean: kulturaz eta pentsakeraz, erreferentziez eta ideologiaz erraïetaraino arrotzia (espainoldua edo frantsez-tua) dagoen euskara-proiektu bat daukagu abian jarrita. Eta ezikusia-rena egiteak ez digu deusetarako balioko, geroak ondo asko erakutsiko digun bezala. Geroa, ordea, gaurra da, eta has gaitezen betaurrekoak kentzen, biharko belaunaldien lotsagarri izan ez gaitezen.

EUSKARA, IDEOLOGIAK ETA ABERTZALETASUNA

Gogoeta honen izenburuko osagai bat ideologia denez, zilegi bekit elementu horren definizio labur bat zirriborratzea. Zeren eta, ideologia hitza aipatu bezain lite, termino honen funtzio bat nabarmentzen baita beste ororen gainetik. Eguneroko hizkeraren harian, horrela, ideologia kontzeptuak zentzu aski jakina eta mugatua du gure pentsamenduan. Alderdi edo proiektu politiko konkretuen harira murriztuko da ideologia hitzaren eremu semantikoa, gizarte-ildo bati dagokion estrategia zehatz bat izendatzeko.

Alabaina, ideologiaren funtzio zatikatzaile edo bereizgarri horren ondoan, ideologia kontzeptuak beste hamaika erabilera eta adiera ere baditu bere baitan. Eta, jakina, noraezekoa izango da ideologiaren eremu adierazgarri hori, hots, bere esangarritasunaren eremu hertsi hori, eguneroko hizkeraren hesi itogarri horretatik ateratzea hemen aztertu nahi ditugun auzi batzuk askatzeko.

Guri hemen ardura zaigun ideologia kontzeptuaren adiera oso besterik da. Hain zuzen ere, funtzio banatzailearen ordeztu, funtzio bateratzailea ezarri baitiogu bere gizarte-egitekoan. Zentzu horretan, herri-identitate eta nortasunaren ezaugarriak trinkotzen dituen elementutzat jotzen dugu ideologia abertzalearen zeregina. Ez da, beraz, gizarte-zati jakin bati dagokion ideologia-mota, herri-kolektibo oso baten erakuntzan eskuhartzen duen ideologia bateratzailearen funtzioa baizik.

Nola eraiki, izan ere, herri-proiekturik ideologia abertzalearen baitarik ez baldin bada? Ideologia abertzalari esker, nazionalismoaren izaera eta ezaugarriak sozializatu egiten dira, eta sozializazio horren gainean erutzen da aberri-gintzaren zutabe orokorra. Abertzaletasunik ez dago ideologiarik gabe, eta ideologia horren gizarte-zeregina funtsezko baldintza eta eskakizuna da. Egia da, noski, ideologia abertza-leak batasunaren indarrak ardatzen dituen heinean, bereizketaren funtzioa ere betetzen duela “besteekiko”; “gutasunaren” barrera batu egiten badu, kanpora bereizi egiten du. Aberriak, zorionez edo zoritxarrez, muga kulturalak ezartzen ditu oraindik; jakina, muga hauen izaera eta helburua izan ohi da sarri askotan makurra, ez bereizgarritasun izaera.

Nolakoa da guk euskaldun bezala garatu behar genukeen ideologia abertzalea? Funtsean funtsean, guk uste, bi nazionalismo mota nagusi gailendu dira azken mendeotan nazionalismoaren historian. Bata makurra, bestea askatzailea. Hona, labur eta zehatz, bakoitzaren zantzurik aipagarrienak:

a) Alde batetik, inperialismoaren edo nazio menderatzailearen ideologia azpiratzailea daukagu. Alegia, bere ondoko edo baitako nazio-identitateak errespetatu beharrean, haien irentsi eta zurrupatu egin ohi ditu bere hegemoniaren egarri asezinak jota. Eta ideologia mota honen paradigma Estatu-nazioaren ardatz historikoan eraikia izan da; dakigunez, aitzindaritze hori bere esku hartu zuena Frantzia izan zen. Baina paradigma berberaren emaitzak izan dira gero beste gehienak, denak ez esateko. Espainiako Estatu-nazioa, bistan denez, ez da salbuespena izan joera inperialista horren historia hitsean.

b) Beste alde batetik, berriz, nazio ukatuen ideologia daukagu: hots, mendeko abertzaletasunaren elementu sozializatzailea. Ideologia mota honen eginkizuna eta helburua txit bestelakoa izan da nazio-ara-zoen joan-etorrian. Izan ere, herri eta nazio eskubideak ukatzen dizkion Estatu-nazioari aurre egiten dio, eta gatazka-borroka horretan antolatzen du bere jardun politikoa eta kulturala. Hortaz, mendekoaren

ideologia abertzalea askatzailea eta demokratikoa den bezala, menderatzailearena inperialista eta zapaltzailea izan ohi da.

Atal honen ondorio gisa, hau aitortuko nuke bereziki: nazio ukatuaren ideologia ez dela beste nazio-identitateen zokoratzailea eta ukatzailea; aldiz, ideologia nazionalista nagusitasunetik eta hegemoniatik eratua dagoenean eskluientea izan ohi da. Honek, ondo asko dakigunez, bere muga geopolitikoan barruan itotzen ditu bere ezaugarri etniko eta kulturekin bat ez datozen nazio-nortasunak. Batera-kuntza eta monopolioa dira ideologia inperialista honen izate-arrazoiak. Homogeneizazioa. Hitz batean: totalitarismoaren eredurik burutuena, demokraziaren izenean bada ere.

Hizkuntza eta ideologia

Mintzaira ideologiaren gainetik al dago? Hizkuntza neutroa ote da aipatu berri ditugun ideologia-funtzio horiekiko? Hizkuntzaren gizartezaria ez ote da, bada, funtzio ideologiko batzuen ildotik sozializatzen? Alegia, ba ote dago funtzio ideologikorik hizkuntza eta gizartearen arteko lotura eta elkarrekintza dialektikoan?

Auzi hau gaingiroki bederen planteatzeko, zehaztasun batzuk egingo ditugu lehen-lehenik. Zehaztasunok hizkuntzaren kontzeptuari berari dagozkio. Zeren, usteak uste, mintzairaren definizio teorikoak eta ideologikoak eragin ukæzina baitauka problematika honen adierazpenean. Zer da hizkuntza? Horra, itauna. Eta, hona, laburbharrez, erantzun soildu bat.

a) Hizkuntza gizartegintzaren gainetik dagoen komunikazio-tresna ote da? Bestela esanik: gure mundo sinbolikoa, eta mundu horren baitako balore eta kultura-ereduak, gure iritzi-usteak eta irudikapenak, prelingustikoak ote dira? Nolabait esan, hizkuntzaren sozializazioarekin zerikusirik ez duten osagaiak ote dira eremu sinbolikoko sistema ideologikoak eta kultura-edukiak? Oraingoz, galderak metatu besterik ez. Goazen emeki-emeki, beraz.

b) Erantzuna ez ote da ikuspegi honen harian idoro beharko? Hau da: mintzaira gizartegintzaren ardatzeko elementu eratzailea da, eta pentsamenduaren eta sentipenen eremuko osagaiekin bat eginik ari da bere jardunean. Elkar lotura horrek, inondik ere, egundoko inplikazioak ditu gure bizitza sozialean: barne-lotura hori ezean, hizkuntza gauza guztien gainetik dagoen osagaia izango litzateke, nolabait ere neutroa; bestela, berriz, barne-lotura hertsia baten ondoriozko uzta-dura baldin badago hizkuntza eta elementu kultural eta ideologikoen artean (pentsakera, sentiera, bizipena...), orduan mintzaira gizartegintzaren barne-barneko faktore eratzailea eta osatzailea da. Eta bere izaera funtzio eratzaile eta osatzaile horren ezpalekoa izatekotan, berari darion eragin sentimentala eta kulturala, hizkuntz atxekimendutzat jotzen den lotura bortitz hori alegia, hiztunaren eta hizkuntz komunitatearen jardunean iltzanurik dago gorputz eta izpiritu.

Gure tesiaren argitan, hortaz, bigarren planteamendua da iritzirik sustraiuena, eta iritzi horrek irizpide batzuk markatzen dizkigu euskalgintzaren bilakaeran.

Euskalgintza eta ideologia politikoak

Orain arteko mintzoa kontuan hartzekotan, atal berri honetako abiaburua zera izango da: ideologia politikoak ez daudela alegia, esanak esan, mintzairaren prozesu soziokulturaletarik at. Eta euskalgintzaren ardatzean ideologia batzuk beste batzuk baino egokiagoak izango direla derrigorrez. Ikus dezagun, ordea, baieztapen hau nola aletzen dugun xehe-xehe.

a) Euskal Herriaren oinarritzko kultura-identitatea euskara dela uste duen alderdiak, teoriarik bederen, euskara bere egitasmo orokortaren muinean kokaruko du. Elementu zentrala izango da. Eta halaxe bide da gogo-bihotzei bagagozkie; besterik da, jakina, alderdion hizkuntz eta kultur praktika gero zertan hezur-mamitzen den. Euskararen tratamen-

du sinbolikoa aspaldikoa da euskal abertzaletasunaren historian. Eta euskararen zentraltasun hori egiteetan baino areago errito sinbolikoe-tan nabarmendu izan da.

b) Alderdi ez-abertzaleentzat, aldiz, euskararen ezinbesteko bizkar-hezur izaera hori ez da existitzen. Hauentzat euskararen auzia ez da nazio proiektuari atxekirik doan osagaia, fenomeno etniko-folklorikoa baizik. Egin dezagun kontu, izan ere, euren abiaburuko jarrera zera dela: mendez mende beren Estatu-nazioari esker, hizkuntza eta kultura nazionala lurralde eta etnia-herri guztietara hedaturik dutelako, ez da inolako kezka-iturri orain bigarren nazio-identitate bat eraiki nahi izatea. Dagoneko bai baitute, eta ez dute besterik behar euren nazio-nortasuna garatzeko. Egia osoa esateko, bigarren nortasun-soineko hau gogaikarri datorkie; egitez horixe erakusten dute, hitzez, zenbait-tek, soineko berria jatzeko gogoia agertzen badu ere.

c) Abertzaletasunak, dena den, ez du maizenik euskaltzaletasunik erakartzen eta sortzen, gorago esan berri dugunez. Abertzaletasuna, gauza jakina denez, bere jatorri erdaldunaz eta bere praxi historiko arrotzaz baldintzatua gauzatu da gurean. Nazionalismo klasikoarentzat behinik behin, euskaltasunaren aldarrikapen praktikoa, agerpen sinbolikoen eta ekintza etniko-folklorioetan urtu izan da nagusiki. Abertzaletasun honen ezpalekoentzat, aberri-konzeptua, izari politikoaren jokaerara murriztu izan da gehien batean; eta, horrenbestean, izari linguistikoa eta kulturala erdalduntasunaren harrobitik eraikia izan da. Eta gaur egungo nazionalismo hegemonikoaren eredia, funtsean, horixe bera da, militante mailako salbuespenak gorabehera. Hau da, euskal gizartean nagusi diren indar-erlazioen logikapean dihardu hizkuntzarekikoan eta kulturarekikoan. Eta, horren ondorioz, estrategia erre-gionalistaren gatibu dago bere euskalgintza. Erregionalismoaren izaera, ezerk baino hobeki, ezaugarri honek zertzen du: bere hizkuntza eta kultur politikaren ardatza Estatu-nazioaren logikapeko eduki eta funtzio nagusien arabera moldatzen du; zehazkiago adierazita, haren izaerako unibertso sinbolikoa egituratzen du, azpi-sistema gisa, gainazaleko "euskal" geruzaz horniturik. Eta geruza-itxura horixe da euskal

nazionalismo klasikoaren betidaniko eta egungo kultura politikaren zantzurik azpimarragarriena.

d) Abertzaletasun berriak, azken denbora hauean sortu eta garatu denak, euskararen izaria askoz ere lekune funtsezkoagoan kokatu du. Guztiarekin ere, eta nazionalismo klasikoaren urratsak errepikatuz, abiaburuko baldintza erdaldunen zama harlauza gogorra izan da honentzat ere. Orain ari da, kostata, bere burua euskalduntzeko ahaleginetan autokritikaren joera euskaltzaleei esker. Hitzetik egintzatarra pasatzeko ahalmen oparogago nabari zaio abertzaletasun honi, zaharri baino; inondik ere, oso oker ez bagaude behintzat, bataren eta bestearen interes politiko eta estrategikoen bestelako izaera erabakigarria gertatu da euskaltasunarekiko harreman horietan.

Abertzaletasuna da euskalgintzaren ardatza

Han-hemenka besterik irakurri eta entzun arren, abertzaletasunaren eta euskaltasunaren arteko barne-lotura erabat funtsezkoa da herri honen etorkizunerako. Dotorea da aniztasunaren bertuteak gorai-patzea, aniztasun horren zer-nolakoak abstraituz; baina gauza gertagarria da gizarte-egiturak gutxieneko trinkotasunik ez duenean hizkuntz eta kultura egitasmoa ezerezean amiltzea. Abertzaletasunaren ardatz-izae-ra, hain zuzen, zutabe hauean dakusagu. Ikus ditzagun banaka:

a) Lehenik eta behin, hizkuntzagintza, hizkuntza ere eraiki egiten baita gizarte-sozializazioaren baitako harremanetan, ez da fenomeno psikologiko eta pedagogiko hutsa. Alderantziz baizik: hots, hizkuntzagintza herrigintzari atxekirik dagoenez, praktika eta ideologia abertzaletaren eskuharmena erabakigarria izango da gure hizkuntza nazionalaren geroan.

b) Abertzaletasuna euskalgintzaren kontzientziaz homitu beharra dago, abertzale anitz oraindik ere erdaldunak badira ere. Ikastoletako guraso erdaldun askok asko egin du euskalgintzaren fabore. Beraz,

erdararik ere egin daiteke euskararen alde, baina betiere, jakina, norberaren konpromezu pertsonala saihesteko trikimailutan jardun gabe.

c) Abertzaletasun euskaltzaleak bere zereginaren bihotzean kokatzen du euskaltasunaren faktorea. Eta horixe da, izan, eredu eta jomuga: indar ideologiko eta politiko abertzalea euskararen interesen arabera antolatzea, nahiz eta norbera bizi deneko egoera soziolinguistikoren zer-nolakoa kontuan izan.

d) Abertzale erdaldunaren kontraizanak agerian jarri behar ditugu. Arras hedatua egon baita orain arte behinik behin, harako hura: alegia, oraíndik ere, gauden bezala gaudelako edo, fasealdi prelinguistikoak zurrizko arrazoibidea; orain indar politikoen indar-erlazioak alda ditzagun gure aldera, eta gero helduko da asebeteko gaituen fasealdi linguistiko-kulturala. Bestela esan, orain lehentasun politiko ez-linguistikoak, ondoren hizkuntzarekikoak garatzeko. Eta, jakina, planteamendu honen ustela zaharra bezain faltsua da: hizkuntza, izan ere, ez da herrigintzatik landa dagoen elementu mekanikoa, orain kendu eta gero sartzeko moduko zeozer, baizik barren-barreneko faktore eraikitzailea. Mintzairaren barnekotasun horrek praktika politikoari bere zentzu eta esanahi berezia eta ordezkazina damaio gizabanakoaren eta herriaren prozesu historikoan.

EGIA SAKONAK ETA ERGELAK EUSKARAREN GAINEAN

Jon Sarasuari esker jakin nuen artikulua-bilduma honen berri. Alegia, Mikel Azurmendik "El Diario Vasco-n" argitaratu zituenaz mintzo natzaizue: "¿Sin euskara no hay pueblo vasco?", "¿Es el euskara el patrimonio de los vascos?" eta "¿Hay que «luchar» por recuperar el euskara?".

Intelektual-irakasle organikoaren katea motzetik mintzo zaigu Azurmendi antropologoa. Egia sakonak botatzen dizkigu errenkaran bata bestearen atzetik, baina nagusi-boterearen egiak dira: Estatu-nazioaren egiak, zehazki esanda.

Bohrek, Pascalen eskutik, honelatsu planteatu zuen egia sakonen eta ergelen auzia behinola: "Egia arrunt baten kontrakoa errore ergel bat da, baina egia sakon baten aurkakoa beste egia sakon bat da". Azurmendi, soka motzetik ari zaigunean, egia sakonen iturritik mintzo zaigu; esan bezala, espainiar Estatu-nazioaren egia sakonean idoro baitu bere arrazoibidearen funtsa. Eta hiru artikuluetan barrera tonu horixe gailentzen zaio beste deus baino areago. Katea apur bat lasaitzen duenean, ordea, maiezterraren (euskal herri etnikoa) mirabe izateko prest dagoela dirudi; eta, horrela, bien zerbitzuan dagoeneko itxura-irrimintzioak egiten ditu. Baina, jakina, estrategia horretan dabilena, egia ergelen aldera lerratzeke arriskuan dago ezinbestez; gaitza baita,

ezinezkoa ez esateko, bi nagusiri tamaina bertsuan zerbitzatzea. Eta, itxura batean bederen, horixe bera gertatu bide zaio Azurmendiri ere.

Goazen, bada, Azurmendiren egia batzuk aletzera. Alcaren atzetik dagoen landarea, eta landarearen sustraian dagoen lur-ideologia, lur-azalera ekartzen saiatuko gara. Hurrenez hurren, honako auzigaioak jorratu gura nituzke bere testu-zatietan oinarrituta.

a) Herria ez da gorputza, hizkuntza ez da bihotza. Batak ez du zeri-kusirik bestearekin, eta bata bestetik bereiztean ez da fitsik hiltzen. Herriak bizirik dirau bihotzarik gabe. Hori eta horrenbestez, alda ditzagun hona bere lehendabiziko hitz-ideiak: "Sin embargo, la afirmación sobre la muerte del pueblo vasco de no recuperarse el euskara además de ser una premisa ideológica, es una proposición ciertamente falsa". Zergatik ari ote zen gezurretan Urepeleko poeta? Xalbador esentzialista eta erromantiko bat zelako ote da? Azurmendi, berriz, giza-zientzien argi ilustratuen izpiek argitzen ote dute?

Galderak galderen gainean. Baina ez dago zalantzarik: unibertsitateko irakasleak ase-beteko ihardespena emango dio zalantzabide honi. Hots: "Lo era ya para la tradicion vasca previa a Sabino Arana, lo fué para éste, lo ha sido para la primera tradición abertzale y lo sigue siendo hoy para una gran cantidad de vascos que no hacemos de la lengua euskara nuestra piedra de toque ideológica identitaria". Norbaitek ez baldin bazekien, orain badaki: euskara ez da asko eta askorentzat oinarritzko identitate-osagaia. Ez ote genuen, halere, jakina baino jakinagoa, aurkikuntza hau? Izan ere, lehendik espainieraz edo frantsesez bere nazio-identitatea eraikia daukanak soberan baitauka, ia soberan, nahi bada, bigarren herri-nortasuna.

Ez da, ordea, hemen amaitzen gorputzaren eta bihotzaren arteko zibilborreste-azua. Euskaltasunaren izaria horrelakoxea izan omen da gaur arte. Baina zer-nolakoa izango da bihar-etzi? Ikus dezagun Azurmendiren iritzia: "Hagámonos ahora la pregunta: ¿que pasaría si se diese una mañana en el que no haya vascos que hablen euskara pero que sí se sigan creyendo y llamándose a sí mismos vascos? Pues que

si los vascos desearan así, seguiría existiendo el Pueblo Vasco, de la misma manera que existe una Irlanda sin gaélico". Xalbadorrek irakatsi zigunez, "ez daizke bi nagusi batean serbitza". Alabaina, Azurmendiren antropologia kulturalak txertaketa anitzak eta konplexuak egiteko gaitasuna duenez gero, ez da eragozpenik "pagoa gaztainaren adaskez janzteko". Euskal fundamentalismoaren aurkako borroka honetan, sasi-unibertsalismoak teknika txit sofisticatuak garata ditu identitate-txertakuntza honetan gauzak zertan diren erakusteko. Euskararik gabeko euskal herria ere euskal herria izango omen litzateke. Ez genuke esango, noski, herritasuna hizkuntzatasunera murrizten denik, naziotasunaren tasunak hizkuntzaz haraindi ere badaudelako. Nolanahi ere, hizkuntza, herri-izacrarrekiko, kanpotik ezar daitekeen osagai aldagarria dela pentsatzea, hizkuntza-definizio mekanizistarik eta instrumentalistarik hutsalenean sinestea da.

b) XX. mendera arteko euskaldun gehienen herri-identitateak oinarri etnikoa izan du funtsean. Jakina jakinaren gainean pilatuz ari zaigu, beraz, Azurmendi: "No resulta nada paradójico observar que las muy diversas gentes vascas que nos han precedido en el tiempo y conservaron el euskara, manteniendo unida y viva su comunicación, lo han hecho independientemente de cualquier pretensión a ser Pueblo Vasco". Honezkerok, ezagun denez, Azurmendiren pentsakera-logika are nabarmenagoa agiten zaigu: hots, orain zer dela-eta bihurtu behar da atxekimendu etniko-linguistiko hura euskal kontzientzia politikoa? Katea motzean jarduteak ikuspegiaren laburra ezartzen dio gure antropologoari, ez "ikus" nahi atzo euskaldun izateko baldintzek ez dutela inolako zerikusirik gaur egungo euskaldun izateko egoerarekin. Ikusmira hori zabaltzen ez zaizun bitartean, nik neuk, ohar hau egingo nizuke: nagusi berria askoz ere jarrera bortitzagoan eta itogarriagoan gaineratzen zaio maizterrari. Bai, badakizu, harako Erregetza Absolutuaren osinetik jaiotako Estatu-nazioaren modernizazio eta homogeneizazioaren ezpaleko kontu horietaz ari gara.

Mintza gaitezen argi eta garbi. Orduan, diglosiaren estigma euskaldungoaren bizkarrezurra makurtzen hasia bazegoen ere, euskaldun

izateko aski bide zen euskal herrian bizitzea. Orain, aldiz, ezin gara euskaldun izan euskal herrian, herri hau Euskal Herri bilakatu gabe. Baretik bestera dagoen aldea, dakizunez, botere-egiturazkoa da, burujabetzari dagokion auzia alegia, eta zentzugabea da gaur egun euskaltasunaren aldarrikapena formulatzea jadanik igarotako baldintza historikoen eskutik. Azken finean, hizkuntzaren izari diakronikoa aintzat hartu gabe, ikuspuntu sinkronikoaren egoera soziolinguistiko-estatikoaz mintzo zara horrela pentsatzean. Eta dagoeneko jakin behar zenuen, zerbait jakitekotan, hizkuntzaren dimentsio soziokulturala, izatez, erro-errotik dinamikoa dela; aldian aldiko eta lekuan lekuko dialektika sozialaren arabera egituratzen dela bere bilakaera historikoa.

c) Beste leku hatean diozunez, hemengo hizkuntza eta kultura ordezkapena eta asimilazioa "negoziazio" eredugarria izan zen. Gizar-te-klase apartak omen genituen gure arbasoak, jauntxo azkarrak, guregurea zeharo galdu gabe bestearen tasunak integratzeko. Euskal-erdal sinbiosiaren erudia ez zen makala izan zure aburuz: "Más tarde, vasos que se identifican con España, tanto labriegos como comerciantes *jauntxos* asentados en la urbe, remodelaron profundamente aquella tradición cultural de sus ancestros pastores, injertándole (txerto abilezia, begien bistakoa da) una experiencia absolutamente singular: su estrategia fue una peculiarísima combinatoria de cultura oral y escrita, de interesada utilización de dos lenguas, una para configurar su cosmovisión agrícola y *ethos* doméstico, y otro para modelar cierta gran política provincial y estatal".

Elebitasunaren eta kulturbitasunaren bilakaera hau, zuk zeuk diozunez, ezin eredugarriagoa izan zen. Onez-onean burutua. Bi herritaldeen aldetik onartua eta bien garapen-osagarri: hau da, bi hizkuntza eta bi kulturen arteko elkarrekintza osagarria, menderakuntza eta gainezarpenik gabea, sistema diglosikoaren ondoriozko bereizkeria eta zokorapenik gabea, erdaldungoaren aldetikako hegemoniarik gabe. Argi eta garbi esanda, "una peculiarísima combinatoria de cultura oral y escrita". Zer gehiago nahi dugu, bada? Ez gara orain kontuak eska-

tzen hasiko hain borobila izan zen bi herri-kulturen arteko ezkontza ezta ikusita.

Pentsatzekoa denez, hemengo agintari, merkatari eta jauntxo "etniko" haiek ez bide zuten euren estatus etnikoan jarraitzeko gogorik. Tentagarriegia zen, inondik ere, Estatu-nazioak eskaintzen zien gizar-te-maila garaiagoa. Zer egingo zuten orduan, bada, hori eta horrenbestez? Negoziatu. Eta kitto.

d) Ez dakit zure iritziaren muina zein antropologia-eskolaren irakaspena den, oraindik ez naiz horren jakitun; zernahi ere, Azurmendi-ren esanetan identitate-estrategien alorrean oro da gertakizun gizakumearen nortasun-ibilbidean. Nork bere eskueran bide dauka zernahieredu garatzeko modua eta askatasuna: "Todo dependerá de su unánime voluntad y de su habilidad en dotarse de una estrategia identitaria; porque en asuntos de identidad todo esta abierto y no hay ningún obstáculo ontológico para que ni los vascos ni nadie no puedan ser cómo y lo que les de la gana ser".

Nahi duenak nahi duen herri-nortasuna garatzen du bere gogoak agintzen dionaren arabera edo. Hara, guk zorook, zer egin ez jakingo nazio-identitatearen arrazoiak zertan diren jakiteko, eta begira zertan zegoen giltzarriaren funtsa! Guztiarekin ere, gomendio bat Azurmendi: zergatik ez zoaz Irun eta Hendaia aldera horko hizkuntz eta kultur identitateen askatasun-aukerak apur bat ikertzera? Hor daukazu, izan ere, nahi baduzu, ikerketa enpirikorako laborategi bizi-bizia. Ez baitut uste bi herri horietako biztanleen nazio-identitatea haize-korronteen kontu hutsa denik. Eta hala izatekotan, berriz, Irunen ez du jotzen ipar-haizeak Hendaian bezalatsu; eta, aldi berean, Hendaian ez du jotzen hego-haizeak Irunen antzera. Zergatik ote? Non ote dago, beraz, behaztopa ontologikoa? Edota herri batean eta bestean, gizakume bakoitzak bere kabuz eta aburuz bere gogoko hizkuntz eta nazio-identitatea aukeratzeko orduan, zuk diozun aukera libre horretan alegia, batean zezenaren larruak liluratu ditu eta bestean oilarraren gando-rrak?. Ez ote da irudimen gehiegitsu horrelako ondorioak ateratzea?

e) Hirurogeigarren hamarkadaz geroztik Euskal Herriaren definizio berri bat ari omen gara taxutzen abertzaleok. Eta, zure iritzirako, euskal izatearen ezaugarri fundamentalista erantsi bide diogu interpretazio horri. Eta, dirudienez, bide makur horren ondorioz, erdaldun ez abertzaleen identitate-oinarria kinka larrian jartzen ari omen gara. Zure berbak dira: "Tal como esta noción se formula desde posiciones abertzales, impidiendo una política lingüística de euskaldunización de la población vasca a bastante corto plazo, es obvio que esta forzándose a los vascos que no son abertzales a alterar sus bases de identidad, haciéndoles interiorizar que son menos vascos, o culpables de la pérdida del euskara, o hasta generadores de una desigualdad lingüística y social".

"Eguzkia nora, zapiak hara". Izan ere, gure antropologoak, haizeboladen arabera betaurrekoak aldatu egiten dizkigu. Oraingoan, erdaldunak elebidundu eta kulturbidundu behar direnean, hauen identitate-zimentarriak bortxatu egiten omen ditugu abertzaleok. Orduan, aldiz, "hemengo" jauntxoek bitartekaritza euskaldun herri-identitatea larrutua izan zenean, esperientzia txit eredugarria gertatu zen: "una experiencia absolutamente singular", "una peculiarísima combinatoria de cultura oral y escrita". Baina, unibertsitateko irakasle jauna, zertan gara honenbestez? Orduan "negoziatu" egin zela eta orain ez? Kontsentsu kontua ote da, bada, hau guztia? Ez ote da hegemonia eta botere-harremanen ondorioa izango auzi honen muina? Ez ote da izango, zehatz bezain trinko esanda, botere hegemonikoaren mekanismo erre-alak (ez aginte autonomikoari darizkion itxurazko horiek) zure taldean bakarrik egotea; prentsarena, esaterako, eta azpisubjektu etniko arloteok erdaldunak euskalduntzeko ahalmenik ez edukitzea? Zernahi ere, hona oraingoz lasai zaitzakeen argibide bat: oraingo euskalduntze-prozesu honetan banaka batzuk besterik ez dira *euskalduntzen*, beste guztiak *euskaradunak* dira onenean. (Beste batean esplikatuko dizut termino horien arteko aldea; oraingoz, bakar-bakarrik esan, euskaldun hitzaren etimologiak ez digula auzia argitzen lagunduko). Orduko identitate-oinarrien ordezkapen behartuan, ordea, hizkuntzazkoarekin

batera kultura eta herri-ezaugarri guztiak sartzen zenizkioten euskaldunari zintzurretik behera, gure amak kapoiei mokoa irekita artaleak sartzen zizkien legez. Nork hitz agiten du orain eta hemen tortura psikologikoaz eta besteaz? Eta nork hitz egin behar luke, gutxieneko gizatasunean biziko bagina?

f) Gure arbasoek ez bazekiten, orain ongi dakigu antropologiaren azken orduko ekarpenak direla medio. Hiri-kaleko kultura-elite eta merkatarri burgesen eskutik heldu zitzaizen bizimodu duina egiteko aukera orduko baserritar arloteei. Non ote zegoen, bada, Estatu-nazio berriaren eraikuntzan buru-belarri sarturik zebiltzan eliteko gizarte-klase haien negoziazio-sena? Gizajo honek, arraia usteltzen hasten den eran, euskaldungoa ere hiri nagusietatik usteltzen hasi zelako ustea eduki, eta hara non, hiriok zer ekarpen onuragarria ekarri ziguten! Demaiogun hitza Azurmendiri: "Gracias a la cultura de las gentes urbanas de Bilbao y Donostia durante varios cientos de años, por ejemplo, ha sido existencialmente negociado en castellano y euskara el nicho ecológico baserritarra euskaldun; su cordura y habilidad política son un patrimonio del que debemos reclamarnos nosotros hoy".

Horrelatsu idazten du historia irabazlearen bandoak, eta gisa bere-tsuari jotzen du bandoa irabazlearen prentsak. Ez baita hori galtzailearen interpretazioa; irabazlearen ahotsa baizik. Baina goazen lekukotasun zehatz baten bila, gogoeta teorikoen arazoibideak albora lagata. Lekukoaren ahotsak, belaunaldi-sokaren euskal kontzientziak alegia, zera kontatzen digu. Alzagako euskaldun elebakar baten gorabeherak Donostiako hiri zibilizatuan; hots, euskaldungoarekin hain prestu jokatu zuen burgesiaren gizalegea agertzen zaigu pasarte honetan. Zera dio Alizia Stürtzek bere buruaz eta bere amonaz: "Me discriminaron desde pequeña. En mi casa jamás pude oír una palabra de euskera. Y es que mi amona materna, con la que me crié, obligada a principios de siglo a abandonar el caserío familiar de Alzaga para venir a trabajar de neskame a San Sebastián, fue despreciada por la estúpida pequeña burguesía donostiarra, comerciante y provinciana (aunque

con complejo de "cosmopolita"), quien le hizo sentir su inferioridad por no saber castellano. Mi amona, avergonzada, abandono el euskara para siempre y junto con el sus origenes, ese conjunto de aspectos culturales y emocionales que constituyen el eje de toda persona como ente individual y social"(Egin, 1995-IX-18).

Salbuespena ote da hor kontatzen zaiguna? Edota euskaldungoak bere gorputz-arimetan jasan behar izan duenaren oinarrizko lege? Nagusiaz eta maizterraz mintzatu gara euskaldungoaren eta erdaldungoaren arteko lotura-harremanak ezaugarritzatzeko azalpenbide bezala. Eta bistan dago zapalkuntzaren zauria ikaragarria izan zela: hasi hizkuntzazko eskubide guztien arbuiapenik higuingarrietik, eta euskal subjektuaren nortasun-identitate guztia erauzia izatetik iraganaz, auto-estimua osin beltzean barneratu zuen euskaldungoaren izaera.

Bukatu aitzin, testu labur honen mezu nagusia laburbildu gogoz, zenbait kontsiderazio egin nahiko nuke. Hasteko, Mikel Azurmendiren egia sakonak, bere izatea funtsatu bide duten Estatu-nazioaren egiak direla (Hegoaldeaz ari garenez, Espainiakoa izango litzateke hori). Eta azpimarratu gura nuke, egia sakon horren ezarpen historikoa besterik ez dela euskal herriko bi herri mugakide eta paradigmaticoen errealtate kulturala eta nazionala. Horretara, errealitate konkretu horri dario indar paradigmaticoaren argitan, hizkuntz eta kultur arazoaren ingurumarian egiten diren planteamendu gehientsuenak (atxekimendu-kontzientzia falta, industrializazio eta modernizazioaren eragina, etorkinen integrazio-arazoak...) aski funsgabeak izan ohi dira. Izan ere: Estatu-nazioaren matrizak moldatu baititu, erraietaraino moldatu ere, hain hurbil dauden eta, aldi berean, hain urrun dauden bi herri horietako herritarren kultura eta nazio-identitateak. Euskaltasunaren inguruan egin ohi diren hausnarketa gehientsuenak, horregatik, hots, prozesu historikoaren arragoa den Estatu-nazioaren faktorea "beste faktore" bat gehiago bailitza harturik, xehetasunen zingiran oinarritzen dira. Euskal pentsakera soziolinguistikoa, zoritxarrez, gainazaleko geruzetan galtzen da sarri askotan.

Bigarrenik, diodan, Azurmendiren ezpalekoen jarrera etikoa nabarmendu nahi dudala. Hain zuzen, Estatu-nazioaren hizkuntz eta kultura politika totalitarioa zuritzeko, euren aldeko dituzten hedabide ideologiko eta informatibo nagusiez baliatzeko duten koldarkeria izengabea. Dударik gabe, horrela erakusten digute hain sakratua hiede duten beren sena demokratikoa eta jarrera tolerantea; hau da, nagusitasunetik dihardunari men eginaz mendeko denari muzin egiteko joera.

Azkenik, maizterrari dioten begirune gupidatsua dela-eta, egia ergelen eremuan sartzeko gogo inkontziente hori. (Beti geratzen omen da norberaren subkontzientean jatorrizko identitate-elementuen oihartzunen bat). Beraz, euskal izate horren osotasuna beharrezkoa ez baldin bada ere delako vasco-espainola izateko, izan gaitezen hiritar moderno-irekiak guri dagokigun eran. Bide horretatik barrena, gainera, ez da irudi txarra garatzen besteen aurrean: bateko esentzialista etnikoen eta besteko erdal nazionalista porrokatuen arteko zubi gozotzat hartzen dituzte euren buruak. Mikel Azurmendiren hariko sasi-unibertsalistek ondo asko dakite paotxa zein alderditan dagoen, eta ez dute aukerarik galtzen larrean egiteko.

IDENTITATEA, ANIZTASUNA ETA EUSKARA

Izenburuko hiru osagaietara errendiarazi dut burutu dudan irakurketa. Irakurritakoak, berriz, bi liburu izan dira, mamiz eta zentzuz ikusmolde-eremu beretsukoak. Eta kidesan horretan funtsatu naiz biak kritika-saio berberean kokatzeko. Bata Gurutz Jáuregirena (horrela dator liburuan, eta horrela darabilt hemen) da: *Entre la Tragedia y la Esperanza*; bestea, aldiz, Joseba Arregirena: *Euskadi Invertebrada*.

Uste izatekoa zenez, bi liburuotan datorren gai eta mami gutzia ezin da mugatu hiru osagai horietara. Bada besterik ere orrialde horietan barrena. Eta tamalez, beste hainbat arazo teoriko bide bazterrean utzi behar izan dut hizpide ederrik sortarazten bazidaten ere. Hona horietako bat edo beste: "Europaren Batasuna" edo "Estatu-nazioen egungo bilakaera"; "Euskal arazoaren izaera endogenoa eta exogenoa"; etabar. Oraingoz, ordea, bego dagoen dagoenean kritika-jardun xume hau.

Nazio-identitatea

Zertan da, Gurutz Jáureguiri dagokionez, euskal nazio identitatearen egungo bilakaera? Politikorik baikorrenak ere nekez isuriko zuen iritzi baikorragorik: "En este sentido, los Estatutos de Autonomía vasco y navarro están demostrando su validez como instrumento efi-

caz para recuperar la identidad vasca". Euskaltasuna, Hegoaldean bederen, salbu dugula ondorioztatu beharko genuke mezu horri kasurik egitekotan. Hala ere, orrialde batzuk geroago itabartu egingo digu baieztapen borobila: "es evidente que la identidad vasca es un concepto que se halla todavía muy lejos de convertirse en una realidad tangible".

Hori da bere ustea. Ideologia abertzaleak, berriz, beste modu batera so egiten omen dio euskal identitatearen izaerari. Nola definitzen dugu abertzaleok identitate horren mamia? Zera dio Jáureguik gureki-koan: "la actitud de aquellos que remontan los orígenes y la existencia de una identidad *nacional* vasca a los mismísimos albores de la humanidad, asegurando que esta identidad se sustenta en una serie de elementos esenciales e inmutables". Esentzialismoarekin topo egin dugu; eta ez gara hasi besterik egin. Aurre-iradokizun esanguratsua da datu hau irakurle zuhurrarenzat.

Baieztapen hauen aurrean geure zalantzak ditugula esan beharko genuke; ez baikaude hain ziur euskal identitatearen osasun oparoaz. Eta lehendabiziko argibide batzuk emateko, iaz (1996) egindako ikerketa batean oinarrituko naiz. Hain zuzen ere, Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Politikoetako sailak egin zuen Euskobarometroa izeneko inkesta, eta horko emaitzak zeharo adierazkorrak dira. Hone-lazioen Euskaldunon Egunkariak emaitzak eman zituen egunean: "Euskaltasun sentimendua moteldu eta espainolismoa indartu egin da EAEn". Izenburu horrek nora garamatza? Ez dirudi, beraz, euskal identitatearen sentimendua hain errotua dagoenik gurean. Nolanahi ere, inkesta hauen emaitzak ere zalantzakorrak izan ohi dira. Nik esango nuke euskaltasunaren aldekoegiak izan ohi direla, euskarari buruzkoetan bezala: berez, inkestaren emaitzak hurbilago daude inkestatua-ren nahikundetik bere zinezko izaera eta errealtatetik baino.

Euskal identitatearen benetako izaera nondik-nora dabilen jakiteko, ez da irudi txarra Joxe Azurmendik bere "Espainolak eta Euskaldunak" liburuan egiten diguna: "Euskaldun ona, espainol eta frantse-

saren akzidente eta osagarri dena, da". Zeren, gorago aipatu dugun inkestan honako ondorioak irakur daitezke: "euskal herritarren sentimendu abertzalea moteldu egin da, eta euskaltasuna eta espainiartasuna bateragarritzat jotzen dituzte gehienek, hamar herritarretatik seik". Bateragarritasun hau itxurazkoa besterik ez da, izan: identitate hegemoniko espainolari erantzen zaion gainazaleko nortasun erdi-folklorikoa. Baina garraizkion inkestaren mezu - hariari: "Azkenik, lanean aurrikusten denez, nabarmen egin du gora Espainiako Konstituzioarekiko atxikimenduak eta Monarkiari buruzko balorazioak". Bistan denez, irakurle zuhurrari hitzak soberan.

Balore makurrenak gorantz doazkigu identitate-kontu hauetan. Ezarria daukagun erregionalismoak ez du Estatu-nazio espainiarraren balore menderatzaileak berrekoizteaz gain, euskal herri-nortasuna indartzeko ahalmen-indarrak. Eta, bidenabar esanik, balore eta paradigma dominante horien ezpaleko ikusten ditut bi liburuotako tesi nagusiak; aldeak alde, ideologia dominantearen nagusitasuna erabatekoa da bietan. Horregatik, hain zuen, aniztasunaren eta konplexutasunaren diskurtsoak, testuinguru honetan, ez du fitsik zurrizten. Azken finean, izan ere, ideologia empiriko horren izaera dominantea baita euskal errealitatea desitxuratzeko botereak daukan lanabesik berarizkoena. Botere kulturalaz eta sinbolikoaz ari naiz hemen; hain ondorio lazarriak eta hilgarriak dituen ezarpen horretaz.

Itzul gaitezten, ordea, zenbaiten kritika-lanabes bakarra den *esentzialismoaren* lelora. Esentzialismoaren eta erromantizismoaren auzia, ezin uka, gori-gori dago euskal "intelligentsiaren" esanetan eta idatzietan. Sasi-unibertsalismoaren ahotsa gero eta ozenago entzuten da herrialde globalaren garaiotan. Eta beldur naiz ez ote zaizkigun urtuko unibertsalismoaren itsaso zabal horretan. Hain justu, Arregik Clifford-en eskutik aipatzen duen zera horretan alegia: "universalismo que reduce las diferencias a meras apariencias".

Auzi honen inguruan hausnarketa zorrotza egin dugu oraindik orain Xabier Amuritzak. Ustezko unibertsalismoaren mugak non hasten

diren eta non amaitzen diren esaten digu; eta bere luzean, pasarte jakingarria dela esango nuke. Hona, beraz: "Hemen berehala hasten gara aberria erlatibizatzen. Nazionalismoa hemeretzigarren mendeko sukarra omen da. Erromantizismo politikoa gainditu egin behar omen da. Euskal Herriak bere itxitasun-txikitasunetik ireki, askatu, Espainiarekiko muzinetik sendatu, harreman toleranteak landu, balore unibertsalak garatu. Gure literatura modernoa honelako diskurtsoz, estiloz, ideologiaz josita dago. Geure txokotik at irekitzeak esan nahi du Madrilén txalotu gaitzela. Euskaldunen unibertsalismoa Madriletik pasatzen zela bagenekien, baina aro autonomikoak prestigiatu duen lepra intelektualak ez dakiena da hantxe amaitzen dela, zeren gorantz, Europarantz, inork ez digu jaramonik egingo". Diskurtso, estilo eta ideologia horiek ez ote dira, daramaten moztorra kendu ondoren, paradigma dominantearen adarrak? Txikitasunaren eta menderakuntzaren bide malkarretan ibiltzen nekatuak dauden ahotsak paradigma horietan aurkitzen ditu bere itxaropenak. Ez dauka erresistentzia-ahalmenik kontrakarrean ibiltzeko.

Zantzu guztien arabera, euskal identitatearen aldarrikapena lekuz kanpo dagoen jokamoldea da globalizazioaren aroan. Fundamentalismoaren bataioa emateko nahi adina intelektual eta politiko daude non-nahi. Eta erretolika "aurrerakoi" horren jarraian etor litezkeen adjektiboak ez dira agortuko "terrorismoaren" hitza azaldu arte. Diodan, bidebatez, Joseba Arregiren ekarpenean badagoela hitz honen inguruko pentsamendu landua: izan ere, euskal pentsakera modernoaren antologian gordetzeko gauzak idazten ditu euskal terrorismoaren gainean.

Batak zein besteak, hitz-jario beretsua darabilte gai honen inguruan. Hau da: euskal nazionalismoaren egokitzapen-ahalmen urria, garaian garaiko baldintzapenetan txertatzeko zurruntasuna, etabar. Eta nazionalismoaren gaitzak direla eta, besteaz hitzerdirik ez. Bestea ere, hots, Estatu-nazioaren nazionalismoa alegia, nazionalismoa izango omen da, baina ez da halakotzat hartua izango bi intelektualon jardunean. Gehienez ere auzi kontzeptual ziztrin bat izango litzateke ñabar-

dura horietan jardutea Arregik dioskunez: "pues creo que esa discusión no aporta conceptualmente nada a la discusión". Prozedura metodologiko horren bidetik, nazionalismoaren "karga" guztia mendeko nazio zapalduaren bekokian itsasten dute euren azalpen teoriko neutralen eremuan. Ez dago hitz bakar bat ere nazionalismo inperialistaren jokatibide historikoa aztertzeko.

Nola dakusate, horrenbestez, euskal izatearen kontzeptua pentsalariok? Hauxe da Jáuregiaren aburua: "el pueblo vasco sigue siendo un concepto ideal y por tanto inaprensible, un ente meramente metafísico". Esentziaren metafisikan bide gabiltza geure herri-nortasunaren aztarna bila. Guk ez bide dugu kontzeptu dialektikorik naziotasunaren egungo izaera dialektika historikoaren dinamikan hautemateko. Bego, horretan.

Alabaina, naziotasunaren izaerak izan badu historiarik, iraganik, eta iragan horretako izate-ondoriorik. Behinola Joseba Intxaustik Pierre Vilar historialariari egindako elkarrizketan zera zioen honek iraganaren izate horri buruz: "Un grupo nacional no es un objeto dado anticipadamente. Yo me atrevería a describirlo como un bloque de materia bruta propuesto al escultor. Eso no se «fabrica»: Se modela. En cada episodio creativo se encuentran en el vocabulario político las palabras «hacer la nación», «hacer la patria», «hacer país». El «hecho nacional» debe ser entendido menos como concepto que como proyecto. Una «nación» no es un objeto acabado, una figura estereotipada, una imagen definida. Sin embargo, no es un no-ser, una realidad por crear".

Bagara zerbait, nonbait. Eta izate hori etorri dator, ez betidaniko esentzia aldaezinaren prozesu estatikoan, baizik eta aldakortasunaren lege etengabea. Euskal Herriaren izaera aldian aldiko baldintzapen historikoen galbahetik igaro da, eta galbahe horren neurriak eta mugak erabat bestelakotu dute herri hau azken mendeotan. Baina, guztiarekin ere, nekez uko egin diezaioke herri batek bere historian barena ekoiztu duen ondare-izaerari, egungotasunaren errealtatean egun jaun eta

jabe diren balore eta paradigma dominanteen faboretan amore emateko. Ez gabilza izanaren bila, izandakoa izateko; halarik ere, ez dugu izandakoari muzin eginaz izan nahi. Ez behintzat izandako horretatik geure egungo errealtatea eraikitzeko kultura-identitate onurakorrik aurkitzen dugun heinean. Hain makurra izan ote da bada Euskal Herriaren historia atzera begiratzeko?

Historia euskaldunon alde mintzo dela uste dut. Eta egungo egoeraren aurrez aurre jartzean, kontraesanak bortizki lehertzen dira euskaldunaren bihotzean. Halere atzera ez begiratzeko ari zaigu esaten Arregi: "Pensar el nacionalismo en Euskadi hoy no puede consistir en reclamar derechos que pudieran corresponder a una realidad grupal homogénea (siempre teniendo en cuenta que las referencias grupales unilaterales se han roto, como hemos descrito antes), sino en reflexionar cómo desde los distintos puntos de partida plurales que existen realmente en la sociedad vasca, podemos avanzar, sin renunciar al enriquecimiento que la realidad supone, a la constitución de una sociedad dinámica, plural, diferenciada, autoconsciente, libre, (en todos los sentidos de la palabra)".

Egungo egoeraren egitura enpirikoan aurkitu nahi ditu Arregik herri-egitasmoaren zutabeak. Ez dago gaizki: errealtateak ez du barkatzen, eta ikasgai hori ondo ikasia daukagu euskaldunok. Alabaina, hori ez dago historiaren haria eta zentzua alde batera uzteko proposamenarekin lotua nahilaez eta halabeharrez. Aitzitik, egungoaren baldintzaren objektiboak gogoan harturik, iraganaren garapen historikotik datorren herri-identitatea bermoldatzeko proiektu politiko-kulturala, ez dago berez inolako esentzialismoaren ideologian murgilduta. Are gehiago: ez dakigu zergatik den egungoa iraganekoa baino eredu-garriagoa, eredu bila abiatua; eta Arregi, bistan denez, ideologia pragmatikoaren eredian buru-belarri sarturik dabil. Azken batean, nor bere ideologiaren sistema bere posizio material eta kulturalen arabera moldatzen duenez, ez da ikusten zergatik den "egokiagoa" ezarritako gizarte-errealtatearen onarpenari men egitea, iraganean gertatua kontuan izan gabe. Zergatik beidur hori gertatuari? Susmo txarrak sortzen

ditu planteamendu honek, eta hizkera aurrerakoiaren mozorroak ezin du erabat estali zinezko proiektuaren izaera menderatzailea.

Nazionalismoa, unibertsalismoa, modernitatea...

Esan dugunaren ildotik, Arregi eta Jáuregui oso kritiko eta kezkatu ageri zaizkigu euskal nazionalismoaren norabidearekin. Ikus dezagun, bada, nazionalismoaren kritika honetan nabarmentzen diren kontzeptuak eta kategoriak nondik nora dabiltzan. Nolako hizkera darabilten.

Euskal herriak zertan egin du porrot? Hona Jáuregiren ustea: "el fracaso del pueblo vasco en su intento de pasar del tribalismo a la modernidad, del parroquianismo a la universalidad". Gizarte eta politika-jokaera itxi eta uzkuurraren ondorio izan omen da hori. Eta kulturari dagokionez, ez gara hobeto ibili: "Esa actitud (xenofobia, autarquía) no supone sino la manifestación más patente de la debilidad y precariedad de esa cultura minoritaria, así como de su incapacidad para adaptarse aceptar valores culturales de carácter universal".

Geure zilbor-hestera so bizi gura. Geure txikitasunean murgildurik. Geure egoskorkerian amildurik. Zer egin, bada, egungo gizarte-molde berrietara egokitzeko premia larri horretan? Gomendioa Arregiri eskatuko diogu, gaitza ondo ezagutzen duela dirudi eta: "Es cada vez más difícil, menos necesario y menos conveniente definir los grupos encerrados en sí mismos, con fronteras absolutas para con otros grupos del entorno. Hoy los grupos sociales son más abiertos en todas las dimensiones: tanto en la dimensión de la estratificación social, como en la dimensión de la diferenciación cultural. Hoy no hay grupo que viva sólo de su propia cultura; ni exclusiva ni mayoritariamente. Hoy los grupos son necesariamente abiertos y participan en círculos asimétricos de horizontes culturales diversos".

Hizkuntzaz, kulturaz eta botereaz estatus etnikora kondenatu duten herri baten ajeak izango dira horiek. Bere buruaz jabe ez denaren ezau-garriak daude hor: ezin da bere menderakuntzak sortu dizkion muga

ideologiko-kulturaletarik atera. Baina "atzerapenaren" aje horiek zer dira neoliberalismoak sortu duen unibertsalismoaren ondoan? Zer dira Estatu-nazio inperialisten naziorteko politika ekonomikoak eragin duen sarraskia ikusita? Egun hauetan eskuratutako datuak dira honakook: "Gizateria osatzen dugun 5 mila milioietarik, 1.000 milioi aberastasunean bizi dira, 3.000 milioi probreziaren atzaparretan eta 1.000 milioi gosearen menpe" (Hein Dieterich). Globalizazioaren lorpen disdiratsu hauek ez dizkigute aipatu ere egiten, geure txikikerietan gaitzak hautemateko hain zorrotzak diren pentsalariok. Estatus etnikora makurtua dagoen herri baten osasuna ez da izango oso kementsua, baina, ikusten dugunez, unibertsalismoaren funtsean dagoen hegemoniak ez digu deus onik ekarriko giza duintasunaren erreinuan. Aniztasunarena zer ote da izatez testuinguru horretan, astero-astero hizkuntza bat desagertzen bada Unesco-ko azken albisteek dioten bezala? Kultur aniztasuna, hitz polita, nagusitasunetik behaturik.

Herri menderatukoa izateak balore-mailan besterik gabe bertutez josten ote gaitu? Menderatuak ere autokritikaren bidea erabiltzea beharrezkoa du, bere *egoan* gehiegi puztu ez dedin. Eta onargarria iruditzen zaigu kritikaren eragina. Are gehiago: noraezekoa. Alabaina, kritikaren mezuak bereizten dakizkienak, mezuaren izaera nolakoa den dakienak, laister sailkatuko dituz batzuk eta besteak dagozkien lekuan. Eta, zentzu horretan, beste harrera batez onartzen dugu, esaterako, egunotan Leonardo Bof-ek esan diguna. Geure baitarik irteteko alegia: "Euskal herritar batek, euskaldun izan baino areago, Lurreko herritarra dela gogoan hartu beharko luke. Euskaldunak, bere kultura eta kontzientzia bereziarekin, mundutarrok elkarrekin dugun ondasun sozio-ekonomikoaren babesle izan beharko luke. Erroak zaindu egin behar dira, baina besteekiko irekidura zapuztu gabe. Zuhaitza ez da soil-soilik bere erroetarik bizi. Enborra eta hostoak ere badauzka Unibertsorekin loturan egoteko". Bof-ek eskatzen digun unibertsalismoak, arrazoi osoz eskatu ere, ez dauka deus ikustekorik gure bi euskal intelektualon irekidurarekin. Harena giza elkartasunaren ideologian datza, hauena, oster, hegemonia mundialak ezartzen dituen balore eta interesetan gorpuzten da.

Unibertsalismoaren apologista hauek ez digute fitsik esaten termino horren barnean dagoen edukiaz. Ez digute kultur inperialismoaz hitz egiten. Eta, hain zuzen ere, hortxe dago auziaren muina, eztabaida honetan. Zer gertatzen ari da mundializazioarekin, globalizazioarekin, eta nahi den zabaltasun mugagabe horrekin? Hau da nire aldetik esango nukeena auzi honekiko: kultur inperialismoak modernitatearen estalkipean mozorrotzen dizkigu bere kultur-ekoizpenak, bai materialak eta bai "izpiritualak". Kontsumoaren zurrumbiloan sartaraztea da bere xede gorena. Eta, jakina, ekoizpen hauen baitako balore-ideologiak herrialdean herrialdeko ereduak lekunean kokatzen ari dira eraldaketa sakona sortaraziz. Bai jokabideetan eta bai erakundeetan; eta zer esanik ez mendekotasunean bizi diren herri-nortasunen kasuetan.

Kultur inperialismoaren kontzeptua taxutzeko ongi etor dakiguke honako pasarte hau. Honela diote: "el imperialismo cultural ataca, en nombre de la individualidad, a los compromisos y vínculos comunitarios y sociales, impulsa el corporativismo, facilita las salidas escapistas individuales, proyecta versiones que satanizan a los disidentes, mientras suaviza y oculta la violencia y opresión del imperialismo mundial y de los Estados-nación. El imperialismo cultural vehiculiza también las «progresías» hacia las reivindicaciones permitidas y el ocultamiento de los factores centrales y vitales del sistema de dominación. Por fin, el imperialismo cultural desvaloriza las lenguas nacionales propias considerando éstas como una opción individual más de los ciudadanos de ese territorio" (Antxon Mendizabal, Sagra López). Kultur inperialismoaren erraiak ondo baino hobeki azpimarratzen ditu testu-zati horrek. Eta irakurri ditudan bi liburuotan barrera nagusitzen diren tesiak, funtsean, kultur estrategia menderatzaile horretan gorpuzten dira. Horretarako aski da azken datua aipatzea: hizkuntz-jokamoldea zertan den alegia kultur inperialismoaren logikapean. Aukera pertsonalaren hizkuntz politika proposatzen digute hauek; batez ere Arregirik. Eta badakigu politika horren askatasun-sena non hasten den eta non amaitzen den: hegemonian, alegia.

Hizkuntz gatazkaren gorabeherak

Euskal Herriko hizkuntz egoeraren azterketa egiten dutenean, bai Arregik eta bai Jáureguik oinarri-oinarrizko kontzeptuetan kolpe huts egiten dute. Oinarrizkoa diogu, eta zuzen diogu: elebitasuna gora eta elebitasuna behera ari denak hauek ematen ez dituzten xehetasunak eman beharko lituzke kategoria horren barruan zehazki zer dagoen jakin ahal izateko.

Zein da beraz, honelakoetan, sasi-kontzeptu horren funtzio estalgarria? Izan ere, ez batak eta ez besteak ez dute inolako bereizkuntza analitikorik egiten elebitasunaren izaera bikoitza aztergai dutenean. Horrela, elebitasuna, zernahiri buruz ari direlarik ere, elebitasuna da, eta kitto. Ez da lehendabiziko aldia, alajaina! Elebitasunaren mozorropean bere hizkuntz estrategia ezkutatzen duen posizio hegemonikoak badaki ongi zertan ari den, zer nahi duen. Eta ez da hasiko elebitasun individualaren eta sozialaren arteko mugarrri teorikoak zehazten, bakoitzaren bideragarritasunak xehetuz. Lan hori hizkuntz komunitate menderatuaren ordezkariari dagokie, inori egokitzekotan.

Nola uztartzen dira bi elebitasun-maila hauek gizarte-dialektikaren harremanetan? Zein dago zeinen baitan, edo zein da zeinen mendeko? José M^o Sánchez Carrion-ek ezin hobeki zedarritzatu zituen biak, eta merezi du argibide hori hemen ematea. Honela zioen Txepetxek: “El bilinguismo individual, salvo casos muy excepcionales, está subordinado a un bilinguismo social, esto es, a una esfera de hechos lingüísticos colectivos”. Hori baretik. Eta bestetik, arestian esandakoaren harian, elebitasun sozial orekatu eta egonkorraren aldeko apologista hauek agiten duten demagogia dago. Zer dio honekikoan Txepetxek? Hara: “Como hemos escrito en otro lado el bilinguismo social es tan sólo una fase en el proceso de sustitución que señala la igualación momentánea entre una fuerza creciente y una decreciente”. Ez hori bakarrik. Elebitasun sozialaren makurkeriak are sakonagoak dira: “Para la comunidad lingüística *central* el bilinguismo social ha demostrado (por ejemplo en Québec, en Puerto Rico) ser un serio inconve-

niente que somete a una presión considerable a los hablantes y pone en peligro la propia integridad del idioma”. Bidenabar aipatzeko, egun hauetan Kataluniatik jaso dugun iritzia ekarri nahi nuke hona. Aureli Argeminen eleak dira: “Beraz, hemen, eta edozein tokitan, elebitasunaz hitz agiten denean, beti hizkuntza indartsuenak irabazten du” (1997/V1/8).

Elebitasun sozialaren apologistok, hizkuntz egoera hori zertan den jakiteko bururik nekatu gabe, gure herria betidanik elebiduna izan delako iritzia sinestarazi nahi digute. Elebitasunaren jatorria frogatzeko saiakuntza horretan Jáuregui aritu zaigu jo-ta-ke. Pentzatzekoa zenez, froga-lan horretan betiko “gurua” erabili du (Txepetxen hitzak dira: Mitxelena erabili egiten dute, eta erabili ere “como una especie de guru parroquiano para acabar a sangre y a fuego con cuantos disienten de que el maestro es el único digno de imitación”). Oraingoan ere, hain gogaiturik gauzkan pasarte horietako bat hautatu du Jáureguik, bere tesiaren sendotasuna egiaztatu asmoz. Zera dio: “Ahora bien, es quizás en la cultura en general y en la lengua en particular donde, desde tiempos remotos, se manifiesta de forma más clara la pluralidad de lo vasco. El euskera y la cultura euskaldun no son ni el único ni la única cultura de Vasconia. Como nos recuerda Mitxelena, «desde que disponemos de datos suficientes para sentar juicios con alguna seguridad, la zona de habla vasca es siempre reducida y ha venido estrechándose en los últimos tiempos; incluso dentro de la Vasconia tradicional, áreas alavesas, navarras y vizcaínas parecen estar ya totalmente romanizadas cuando, hacia el siglo X, la documentación empieza a hacerse relativamente abundante». Eta gaitzerdi, jakina, Jáuregui harako betiko leloarekin etorri ez izana: “Erdara ere hemengoa da, gero!”.

Zertarako darabil ideologia dominatzaileak jakintza historiko hau (jakintza ere boterearen eskuko umea da)? Paradoxa galanta da gero, alazankoa, Mitxelenarekin gertatua. Erreteriar maisuak zera esan ohi zuen, izan ere: bere historiari idatzi gabeko herria dela gurea, eta historia hori bestek egina dela. Orain, maisuaren jakintza eta ideiak erabiltzen dira, eta bera inor baino euskaldunagoa zen, Euskal Herriaren

kontra. Eta bigarren gauza azpimarragarria: euskal historiaren aurkako diskurtso horren zabalkundeak euskaltzaleak barne daude.

Mitxelena-ren itzal teorikoa eta ideologikoa zertarako nahi ote zuen bada Jáuregui-ek? Pentsatzekoa zen bezala, honelarako: "Por todos esos motivos, lo cierto es que el bilingüismo (o el trilingüismo, en su caso) constituye desde tiempo inmemorial una de las señas de identidad consustanciales de lo que históricamente se configuró como Vasconia o Euskal Herria"

Egia, ordea, oso besterik da jatorrizko eleaniztasun edo elebitasun kontu honetan, beste nonbait ere adierazia dugunez. Eta hemen ere, harritzekoa ez denez, elebitasun-kontzeptuaren oinarritzko bereizkuntzarik egin ez izanari egotzi behar zaio Mitxelena-ren errakuntza. Zeren eta, jatorri horren berri ematen diguten datuak ugaltu eta zehaztu ahala, gauzak gero eta argiago daude behinola Txepetxek adierazitakoaren harian. Bestalde, egunotan bertan argitaratu du Jimeno Jurfok bere "Historia del Euskera" deritzan liburua, eta hor ere gure hipotesiaren aldeko zantzuak oso nabarmenak dira. Irakur ditzagun, ordea, Jimenoren hitzok: "Deskubritu dugu Erdi Aroan zehar ia-ia nafar guztiak zirela euskaldun, arabiarrek hartutako herrietakoak izan ezik. Gaztelania, berriz, jakintza maila altuko jendeak baizik ez zuen ezagutzen; jende gehien-gehienek ez zekiten gaztelaniaz, beraz. Kontu hau ez da orain arte behar bezala azpimarratu eta espero dut behar bezalako eztabaidarako gaia izango dela aurrerantzean". Tuter a bera ere ez omen zen erabat arrotza izan euskaldunentzat "Ez zen inoiz gehiengoaren mintzaira izan, baina bazen pasadizoko jendea hitz agiten zuena, mandazainak esaterako" (El Diario Vasco, 1997/VI/17).

Nolanahi ere, argitara datozen datu berrion ondoan, nik neuk garrantzi handiagoa ematen diot arestian aipatu dudan Txepetx-en tesi-azalpenari. Argudio honetan oinarritzen du bere planteamendua: "Es posible que en el caso euskaldun el bilingüismo sea un fenómeno antiguo (Cf. Michelena, 1975, 114) «una de las especiales condiciones a las que ha estado sometido la evolución histórica del vasco ha sido la

de largos siglos de bilingüismo no limitado a las clases altas, que posiblemente no empezaron con los comienzos de la influencia romana)». Pero era un bilingüismo *individual*. Todos los datos que tenemos apuntan a que en el centro de la territorialidad euskaldun el *bilingüismo social generalizado* es un hecho moderno". Ez gabilta, noski, hizkuntz eta kultur jatorri "garbiaren" bila, baina onartezina deritzogu ideologia dominanteak ezarri nahi digun "historiari".

Hemengo kontuak bakarrik ote dira ordea? Ez, noski. Historiaren interpretazioa jakintza eta ideologia hegemonikoaren eskutik burutzen bada, antzeko gauzaren bat jazo zaie beste herri menderatuei ere. Ez dut adibide bat besterik aipatuko, baina aski esanguratsua: Kataluina ez baita izan gu bezain mendeko kultura-alorrean, baina han ere erroak sakonak ditu oraindik delako ideologia-era horrek. Jordi Solé i Camadors-en hitzok dira lekuko: "Elebitasuna betidanik izan dela adierazi, eta ideia hori gizartean edozein modutara, axolagabeki, hedatzea izan zen elebizaleentzat erantzukizun historikoari bizkar emateko modurik errazena". Gure artean horrelakoak erruz ditugu, eta ez bakarrik ingurune arrotzetan, euskaltzale eta euskalarien artean ere ez baitzaigu falta zur horretako ezpalik.

Hel diezaiogun orain beste auzigai bati. Joseba Arregiren eskutik helduko diogu. Arregi biziki kezkatua dago aberzale euskaltzaleak elebakartasunerako daukan joerarekin. Are gehiago: joera horretan totalitarismorako zantzuak somatu bide ditu. Ondorio kezka garri horretara heltzeko euskaltzale-andana baten tesi-azalpenak hartuko ditu gidari, hauen arrazoibidean dauden ezaugarri nagusienak azpimarratzeko. Izenak ere ematen ditu: Rikardo Arregi, Txillardeggi, Tejerina eta Garagorri.

Goazen, horrenbestez, "una pretensión totalitaria de la concepción de la sociedad" delako arrisku bizi hori zeruan den jakitera. Lerrokada aukeran luzeegia baldin bada ere, dagoen dagoenean aldatuko dugu hona hainbat ñabardura bidean ez gaitzeko. Era honetara mintzo zaigu Arregi: "Sin entrar a un comentario exhaustivo del significado de cada

uno de estos testimonios (Rikardo Arregi, Txillardegí...), sus contradicciones internas, y sus implicaciones, lo que quisiera resaltar es, de un lado, la existencia de una corriente ininterrumpida de pensamiento que vincula constitutivamente lengua y sociedad. Que ese pensamiento extrae una consecuencia monolingüizante de dicha conexión constitutiva. Que se aducen argumentos de ciencia, de la antropología, de la filosofía y de la sociología, para dar razón de dicha vinculación, desde la necesidad de ser de forma concreta y particular del ser humano, pasando por la lengua como condición y forma particular de acceder a la realidad, hasta la referencia social que supone la lengua, la relación indiscutible que existe entre grupo e identidad individual, y la tipificación ideal de todo ello en el estado-nación de la modernidad”.

Hizkuntzaren eta gizartearen arteko kidesasun eratazale hori da arazoa: hortik datoz, inondik ere, gure joera totalizatzailearen aztarnak. Alabaina, ez nuke nik esango Xalbador bertsolaria pentsamendu arriskutsu horren oinordekoa genuenik, zera bazioen ere: “herria da gorpuzta, hizkuntza bihotza”. Poetak ere konturatu dira herri-gizartearen eta hizkuntzaren arteko barne-loturaz, bata ez duela etorkizunik beste gabe, baina oharmen hori gaur egun onartezina irudizzen zaio Arregiri. Egund, nonbait, askotariko gizarte-moldean bizi gara, eta hizkuntzaren eta herriaren arteko barne-kidesasun hori urtu eta ezabatu egin da ezarian-ezarian. Horrela esplikatzen da, jakina, astero munduan hizkuntza bat lurpean desagertzea: hizkuntz eta kultur ariztasunaren inperioan, pentsamedu bakarraren erreinuan, hizkuntza gutxi batzuen eragin hilgarriak astero prestatzen du hizkuntz hilobia.

Askotariko gizarte-moldean bizitzeak hiztunarengan askatasun-aukerak omen dakartza. Ez dago garai bateko lotura-morrontzarik: herri bat, hizkuntza bat, kultura bat. Orain, zorionez, hiztun-norbanakoaren liberazio-aroan bizi gara, eta nahi duenak nahi duen eran finka ditzake hizkuntzarekiko hartu-emanak. Galdera batekin ekiten dio problematika berriari: “¿Qué significa ser libre ante la lengua? Tres cosas por lo menos. En primer lugar significa que la pluralización de mundos simbólicos alcanza al interior de las lenguas. Hoy no es posible.

aunque se repita siempre de nuevo e incluso a nivel universitario, proceder a la equiparación de una lengua = un mundo simbólico de sentido. (...) en nuestras sociedades modernas la lengua ha perdido el valor de eje estructurador de la identidad, en la medida en que el equilibrio y la relación entre los contenidos cognitivos y los contenidos normativos ha variado radicalmente. (...) Cada lengua cumple funciones sociales múltiples y distintas, y cumple para cada individuo también funciones diversas y distinguibles”.

Arregiren planteamendu hau ez da berea bakarrik, euskaltzale askoren ahotan hitzetik hortzera dabil dagoeneko. Funtsean hauxe da tesi honen argudio-ardatza: hizkuntzaz askotarikoa den gizarte-sistemaren baitan hiztunak hizkuntza hainbat kultura-identitate dituela eta, horregatik, garai bateko herria-gizartea-hizkuntza-kultura bame-lotura hori desegin egin dela. Horra zorioneko askatasuna. Baina, tesi hau, besterik gabe, hots, egin behar zaizkion zehaztapenak egin gabe, okerra eta faltsua da. Egia da hizkuntz aniztasunarena. Egia da kultur edukien ugaritasuna. Baina funtsaren funtsean, benetan ez da tesi honek erakutsi nahi digun eraldaketa sakonik gertatu hizkuntzak gainerako gizarte eta kultura instantziekin daukan lotura-harreman horretan.

Izan ere, zertan datza bada hainbesteko aldea? Egungo globalizazioaren ondorioz ezarri den aniztasun horrek ez baitu ukatzen ezertan tente baino tenteago darraien tesiak. Alegia: hizkuntzaren eta gizarte-kulturaren arteko bame-loturak lehenean darrai, orain hizkuntza baten ordeztu bi edo hiru izanda ere. Elebidun izateak, esaterako, ez du atxekimendu horren legea desegiten; egia da, jakina, hiztuna bi hizkuntza eta agian bi kulturaren erreferentziapean biziko dela, baina bi horiekin bame-lotura hori hortxe dago lehen bezalaxe. Zer gertatzen da, ordea, bitasun eta aniztasunaren mozorropean dabilen diskurtso-motarekin, diskurtso horrek hiztunak hizkuntza eta nazio kultura bakoitzarekin dituen harremanen izaera ezkututzen dizunean? Hau da, harreman horien izaera deskribatzen ez dizunean? Ez baitizu diglosiaz hitz egiten. Ez baitizu asimetriaz hitzerdirik esaten. Ez baitizu hegemoniaz fitsik esaten. Ez baituzu, hitz batean, dominazio-harremanez argitu behar lizukeena argitzen.

Baina, jakina, dominazio-harremanak dira jaun eta jabe egungo ugaritasunaren erreinu latz honetan. Eta Arregik begitan hartua daukan soziologia arauemailearen irakaspenak zemaht izanda ere, ezagutzarauen eta eduki-arauen arteko korrespondentzia dialektikoa beti bezalakoxea da. Mundu sinbolikoak ez baitira airean, metafisikaren hodeietan dabilzan izaki misterioitsuak; lurtean, gizarte-harremanen eguneroko jardunean, giza ekintzen kultura, balore eta sentipenetan gorpuzten baitira mundu sinboliko horiek. Eta jakin beharrekoa zera izango da: hizkuntza, kultura eta komunitate bakoitzaren oinarrian dauden mundu sinboliko horiek zer ordezkutzen duten askotariko gizarte-moldearen sisteman. Zeren botere ekonomiko edo politiko edo kultural xume eta apal baten ordezkariak baldin badira, hots, oinarritzat daukaten gizarte-egituran eta Estatu-aparatuan bestelako indarrak gailentzen badira, zertara murriztuko eta mugatuko da hiztunaren aniztasun sinboliko hori? Dominazioak eta hegemoniak egingo dute euren lana, eta gauzak utzi behar diren tokian utziko dituzte: egoera diglosiakoaren purgatorioan, herri-identitate emikoaren infernuan.

Pentsamenduaren aniztasunak berez ez dakar arazorik. Beti hor egon dira aniztasun horiek aldez edo moldez: ideologia politikoak eta sozialak ez dira atzo goizekoak euskaldunon artean. Zertara dator orduan Arregiren zehaztapen hau?: "Qué tiene en común el mundo simbólico, de saberes cognitivos y normativos, de bertsolaris como Sarasua o Iturriaga y el mundo simbólico de X. Lete o de mis hijos, por no citar el mío propio"? Badirudi euskaldungoaren kohesio nazionalerako eta sozialerako behatopagarriak izan litezkeela, horrela planteatuta. Baina auziaren gakoa ez datza euskaldunon arteko desberdintasunean, euskaldunok desberdin izateko dugun ukapenean baizik. Eta hori da bi pentsalariok, duten posizio hegemouikoaren ondorioz, argi eta garbi aitortu nahi ez dutena. Euskaldunok, nor bere aukeraren jabe delarik, ez dugu herri bezala, komunitate nazional berezi bezala, desberdintasunaren berdintasunean bizitzeko ez eskubiderik ez ahalmenik.

Beste gai bati lotuko natzaio segidan. Gurutz Jáuregiaren eskutik datorren gaija da: "vasquismoaren" estrategia. Zein da bere iritzia

estrategia honen ingurumarian? Inondik ere, dagoen irtenbide bakarra da baskismoaren estrategia hau; bestela ez dago modurik bateko eta besteko jarrera eta interesak uztartzeko. Ez bide dago beste biderik abertzaleak eta espainolak edo erregionalistak "herrigintzan" elkar hartzeko. Baskismoaren ardatzean elkartzen omen dira, edo elkar omen litezke, amankomuneko balore-jarrerak.

Kulturaren estrategia hau era honetara zuzitzen du Jáuregui bere liburuan. Bere abantailak eta onurak xehetzen dizkigu, abertzaletasnnarenak auzipean ipintzen dizkigun bitartean. Betoz, bada, zehaziapen horiek: "Al identificar lo vasco con lo nacionalista, el movimiento nacionalista vasco desplazó, y lo sigue haciendo todavía hoy, la médula espinal del pueblo vasco, cuál es el *vasquismo*. (...) El nacionalismo y el no nacionalismo (hau bai dela polita: "el no nacionalismo"; zergatik ez ote dio deitzen inperialismoa edo barne-kolonialismoa?) sólo tienen sentido si se sustentan en un concepto previo y mas básico, al que he denominado con el término de *vasquismo*. El vasquismo se constituye, así, en un elemento aglutinador, en un proyecto común, perfectamente compatible con las diferentes visiones o modelos, todos ellos perfectamente legítimos, planteados por nacionalistas y no nacionalistas".

Honela aurkezten zaigu kontzeptu "pre-politiko" batean oinarrituriko estrategia. Zer ote du, ordea, horrek dimentsio politikotik ez duena? Jáuregiaren aurkikuntza hau, kulturalismoaren estrategia alegia, auzi hauek bezain zaharra da. Nazio menderatuen arazoa gori-gori jarri den bakoitzean beti agertu izan dira kulturalismoaren irtenbidea proposatu dutenak. Estrategia horren formulazio teorikoa egindakoen artean aski ezaguna dugu Otto Bauer-en ekarpena: azken hondarrean, arazo nazionalaren despolitizazioa eragiteko bidetzat hartu izandakoa. Kulturaren liluramena gailenarazten duen bide honekin nazio oinperatuaren estatus politiko-nazionala lehenean utzi ohi da, sistema kulturaren halamoduzko gainegitura "berri" bat xedetzat harturik. Kultura, horrela, nazio-identitate osoaren ordezkotzat aurkeztu izan da, gaine-rako gizarte-egitura eta harremanak funtsean eraldatu gabe. Ez da

trampa makala naziotasuna hizkuntzaren eta kulturaren instantzietan ahitzen dela sinetsirik bizi denarentzat. Eta zenbat bizi ote dira? Gurean, behintzat, gehiegitxo.

Hain errotua dagoen jarrera baldin bada, eta onarpen hori euskalgintzaren gidaritzan ere arras sustraitua baldin badago, egin ditzagun hainbat zehaztapen. Ikus ditzagun bere ezaugarri nabarmenenak. Banan-banan, eta besteak beste, honakook seinالاتu nahi nituzke:

a) "Baskismoaren" kontzeptua maila sinboliko-etnikora lerraturik dagoen ideia eta praktika da; nazio auziaren dimentsio politiko-estrategikoa alde batera lagatzen duen "irtenbidea". Hasteko, beraz, kontraesan nagusia ez da aintzat hartzen.

b) Euskalgintzaren jardun-borrokari berez dagozkion esanahi-edukien eta balore-jarreraren muina eta funtsa erauzi egiten zaizkio. Beste modu batera adierazita: euskarak eta euskal kulturak gizarte-egitura eta harremanekin ezinbestez duen lotura-kidetasuna ezabatu egiten da. Eta hori egiteko, argudio-aitzakiatzat, kultura-alorraren autonomia defendituko da.

c) Jáureguiren baskismoa euskara larrugorritan lagatzen duen euskaltasuna besterik ez da azken hondarrean. Euskaltasun hori, izan ere, erdal kulturabakartasunaren sisteman gauzaturiko hizkuntz egitura artifizial eta sinbolikoa baita. Non dago hor giza jokamoldea arautzen eta bideratzen duen kultura-edukia? Kultura-instantziaren materialtasun oro, edo kultura-erreferentzien iturri nagusia, edo nazio-baloreen izarra hegemonikoa, erdaldungoaren mndu sinbolikotik datozkio. Gizarte-bizitza errearekin lotura-atxekimendurik gabeko euskaltasunean bizi da egun euskalduna, eta horixe opa dio nonbait Jáureguik aurretzean ere.

d) Hori guztia kontuan hartuta, kulturalismo honen kontraesanik nabariena hauxe da: premisa idealista hutsaletan oinarrituriko euskararen gizarte-normalkuntzaren proposamena egiten zaigu, asmo onez beharbada, baina bideraezina. Guztiarekin ere, hagitz amu irenkorra

suertatzen da euskaltzale askorentzat. Hizkuntzaren delako "autonomia" sonatuak miresle asko baitu gurean.

e) Planteamendu honetan gauzarik bitxia, halere, zera da. Hain zuzen, euskaltasunaren gauzapena prozesu politikotik aldentzeko aha-
legin suhar horretan, egiazki besterik gertatzen da. Baskismoaren
estrategia, izan ere, politikabide erregionalistaren betiko agerpen gar-
dena baita. Eta zentzu eta mami politiko hori estaltzeko erabilitako
mozorroa, berehala erortzen da; aski baita horretarako estrategia
horrek bere baitan daraman karga nazional espainolaz gaingiroki bede-
ren oharzea.

f) Baina goazen datu eta egoera konkretuak deskribatzera hau guz-
tiau errealtatean mamitua dagoela ikusteko. Eta Unibertsitatea auke-
ratuko dugu lan horretarako. Eta bertan lanean diharduten bi irakasle-
ren lekukotasunaz baliatuko gara baskismoaren euskaltasuna zentan den
ikusmiratzeko. Hasteko José Luis Orella Unzueri emango diogu hitza:
"Estos mandos se confiesan abiertamente vascos, aún más, algunos de
ellos hablan euskara siempre que pueden y se liberan de la impartición
de clases o de servir en la administración, para profundizar en el cono-
cimiento del «vascuence». Demuestran con su elocuencia que ellos
son vascos. Cuando van a las entrevistas televisivas o periodísticas, se
visten de dos ropajes característicos: el euskara y la democracia que
lucha contra la violencia (ultra)nacionalista. Fillos son los vascos. Ellos
son los vascos demócratas. Pero se les olvida decir que ellos son
nacionalistas españoles con todo derecho, y, además, nacionalistas
belligerantes, sin ninguna clase de derecho". Hori, batetik. Eta bestetik,
Laura Mintegiren iritzia jaso nahi dugu gai berberaren inguruan:
"Labor esateko bi dira gure unibertsitateak behar lituzkeen ezinbeste-
ko ardatzak: euskara eta euskal ikuskera. Daudenetan (egun ditugun
unibertsitateetan, esan nahi du) nekez lor genezake lehena, eta arrot
ezinezkoa da bigarrena lortzea". Bereizirik eta aparte dabilta euskara
eta euskal ikuskera. Herri-gorputzarik gabeko euskara dugu, dirudie-
nez, xede eta helburu. Tamalgarria zinez.

Bi autore hauen inguruko gogoetatxo hau amaitzeko azkeneko puntu bat harrotu gura nuke. Askatasun eske datorkigu Arregi euskalgintzako baratzera; Lizardik ez dakit nola ikusiko zukeen baratze hau, baina Arregik askatasunik gabeko lore-landarez josia ikusten du. Hizkuntz politika ofiziala du, besteak beste, kritikagai; bere alderdiko euskaltzaleekin ere, dirudienez, ez dator bat auzi honetan.

Pasartea, egia esan, luzeegia da aukeran. Alabaina, gaur egun indarrean dagoen planteamendu baten ordezkot gisa dakart hona. Joera honen mezua, hitz bitan, honetara mugatzen da: zergatik behartu hiztun-gizabanakoaren askatasun-aukera hizkuntzen arteko hautua egitera hark bere kabuz egin dezakeenaren gainetik? Hona hemen xeheki aletua hizkuntz ideologia neoliberalaren aldarrikapena: "Y por último, todos sabemos que la cruz de cualquier política lingüística es la utilización. Uno de los problemas básicos con los que se enfrenta la política del euskera es que la distancia entre el conocimiento y el uso es muy grande, que la distancia entre los rendimientos de aprendizaje y su traducción de uso es tremenda. (...) ¿Hasta qué punto el dejar de lado los aspectos subjetivos y de libertad en lo que a la lengua se refiere incide en que conocimiento y utilización se desarrollan de forma tan asimétrica? ¿Para que la distancia no sea tan grande, no será preciso que exista una mayor lealtad de cada individuo para con el euskera, y para que dicha lealtad se pueda desarrollar, no habrá que implicar directamente al individuo y su libertad en la política lingüística, en lugar de someterlo continuamente a suaves o no tan suaves presiones indirectas? (...) Estoy convencido de que en el mundo del euskera existen demasiados miedos a la libertad (...). Tomar en consideración muy seriamente lo que la libertad supone en las condiciones de las sociedades postradicionales es un elemento necesario para asegurar el futuro del euskera en libertad, a partir de ganar hablantes leales desde su propio convencimiento y desde su propia libertad, porque están dispuestos a elegir mayor competencia comunicativa para construir una sociedad más rica, más compleja, más diferenciada".

Ideologia neoliberalaren hizkuntz bertsioa hermentxe dago bere ezaugarri nagusiz taxutua. Egungo gizartekeran, aurrekoetan ez beza-

la, gizabanakoaren baitan txertatutako hizkuntz mekanismoak nagusitzen dira komunikazioaren alorrean. Ikusmolde honen alde jarduteko honako iturriok aipatzen dizkigu Arregik: soziologia interpretatzailea, interakzionismo sinbolikoa, fenomenologia soziologikoa... Dударik gabe, korronte teoriko hauen ekarpenak ez dira gutxiestekoak ikerketa mikrosoziologikoaren eremuan. Subjektuaren ekintza zehatzetan zorrotz hautematen ditu hainbat gertaera eta kasu. Baina kontua oso besterik da. Kontua da soziologia orokorraren oinarritzko irakaspen elementalak alboratzen dituela Arregik joera berri hauen itzalpean.

Gizarte-molde eta aroak gora-behera, inork gutxiuk uka dezake hemen Arregik ukatzen diguna. Inork gutxiuk ezeztatu baitu Durkeim-en harako tesi aski oinarritu hura; hots, gizakiak bere sozializazio-prozesuan barrena, gizartean nagusi diren kultura eta balore-ereduak barneratzen dituela nahitaez hainbat agente eta erakunderen eskutik, eta eredu jakin horien barnerapen horri esker, modu hegemoniko batez nagusi den giza-portaeraren *derrigortzea* ez duela halakotzat hartzen giza-subjektuak. Hizkuntz atxekimenduaren barneratze-mekanismo psikosoziala, beraz, *naturalizat* dauka hiztunak. Non dago, hortaz, auziaren giltza? Labur eta tinko esateko, honako egiaztapen enpiriko honetan: gizarte-fenomeno *naturaletan* datza ideologia eta psikologia hegemonikoaren izaera, eta gizarte-joera horrek *agintzen* diona ez du *aginduztat* hartuko pertsonak. Zergatik? Horixe delako hain zuzen *egoera naturala*.

Beste alde batetik so eginda, galdera hauxe egingo genioke geure buruari: baina pertsonen arteko hizkuntz komunikazioaren testuinguruan ez al da ba testuinguru horren inplikazioa eta eragina kontuan hartu behar? Fernandez-en egiak ezin ote ditu intelektualak bereganatu? Pierre Bourdieu-k zehatz-mehatz planteatzen digu auzi hau, eta bere formulazioaren argitan, ezin hobeto errepara dezakegu hizkuntz elkarrreraginaren funts-mamia. Horra: "Hizkuntz indarren arteko harremanak ez dira sekula aurrez aurre dauden hizkuntz gaitasunen arabera definitzen. Eta harreman horietako agente-eragileen pisua bakoitzaren kapital sinbolikoren esku dago, hau da, bere komunitatearen aldetik

aitortzen zaion indarraren esku. Inposizio sinbolikoak funtzionatuko badu, diskurtsoaren logika linguistikotik zeharo at dauden baldintza sozialak bete behar ditu". Hara, bada, gakoa: hizkuntz elkarrekintzaren dinamikan, hizkuntz aukerari dagokionez, hiztunen oinarrian eta atzean dagoen kapital sinboliko eta botere sozialaren determinazio dialektikoz *erabakitzen* da zeinek zein mintzaira erabili. Hizkuntzarik *normalena* aukeratuko dute biek; euskaldunak bere gogoaren aurka, eta erdaldunak bere komunitate boteretsuak damaion eta aitortzen dion hegemoniari esker.

Giza askatasunaren aldarrikapen abstraktua egiten digu Arregik hizkuntz errealtatearen egoera asimetrikoa eta hegemonikoa aipatu ere egin gabe. Abiaturuko baldintzak beretsuak dira nonbait andoaindarrarentzat. Sinestezina dirudi iritzi sustraigabe horiekin hizkuntz eztabaidaren plazara ateratzea, errealtate enpirikoari hainbat aldiz men egiten dion ideologia batez. Egoera enpirikoaren zentzu logikoaz ohartarazi nahi gaitu gauzak zertan diren ahantz ez dezagun; alabaina, oharmen hori erabat kamustu egiten zaio bi hizkuntz komunitate eta bi hiztun-ereduak aurrez aurre ipintzen dituenean. Teoria-iturri berrietara jotzeak ez dio ezertarako balio Arregiri, ideologia baitu etsai menderaezina bere gogoeta teorikoa burutzerakoan: ideologia dominante horrek ez dio gutxieneko hurbilpenez errealtate soziolinguistikoa ikusten uzten.

Arregiren jarrera, Txepetxen hizkeraz baliaturik, zera izango litzateke: "una adulteración tramposa". Gogora dezagun esaldi hau: "en lugar de someterlo continuamente a suaves o no tan suaves presiones indirectas?". Baina hau oso goxoa da berak hor zehar idatziak dituenak kontuan hartuko bagenitu. Erdal hiztuna, hiztun dominantea alegia, errealtate sozialaren aitortza osoa daukana, mendeko bihurtzen digu, presioa eta inposizioa salatuz. Zinez eta benetan, ordea, gauzak aizekoz aurrera eratuak eta egituratuak daude hizkuntz gatazkaren alderdi biotan. Eta euskaldungoaren eskubideak mamitzea, ezin da inoiz inposizioa izan, behinola Txepetxek ederki asko zioskun legez: "Pero articular la comunidad lingüística euskaldun no es una imposi-

ción sino una reposición. (...) Querer presentar esta dinámica como «imposición» es una adulteración tramposa que trataría de impedir que este pueblo se encuentre a sí mismo desde su sentimiento básico de tolerancia y respeto, y permitir que se siguiera destruyendo desde el resentimiento y el enfrentamiento inducido por quienes creen que su supervivencia política personal justifican la manipulación y falseamiento de la realidad y está por encima de los derechos nacionales colectivos” (Bilb(a)o y el Euskera, 62. or.).

ESTATU-NAZIOAREN ERAGINA NAZIO-EZAUGARRIEN ERALDAKETAN

Hizkuntza, nazio-kultura, herri-oroimena eta gainerako nazio-osagaien izaera estatikoa da, edota gertakari historikoez hartaturik, izaeraz eta zereginaz aldakorrak dira? Galdera korapilotsu bezain zirrargari honi erantzuten ahalegintzen da Poulantzas, eta neurri batean edo bestean, bere ihardespena ez dabil noraezean. Besterik izango da gure lan honetan Parisen bizitako soziologoaren tesi nagusia behar bezala adierazia izan den jakitea: ez daukagu ahaleginik egin ez dugunaren kontzientzia txarrik, baina ez da nahikoa izaten hori beti honelako jardunetan. Beude, nolana ere, ahalegin-saiok, haren izpiritu emankorraren lekuko, izpiritu hori lardaskatua izan baldin bada ere.

Hizkuntza, historia eta osterantzekoaren izaera-aldaketa.

Estatu-nazioaren izaera nazionalaz mintzo garenean, Poulantzasen aburuz, ezin dugu betidaniko nazioaren irudi natural eta estatikoa eduki. Gauza jakina da mundu mailako merkatu eta kapitalen eraginez Estaduen arteko harreman ekonomikoak eta politikoak eraldatzen ari direla. Guztiarekin ere, ezin da pentsatu, hori eta horrenbestez, aztergai ditugun Estatu-nazioon izaera nazionala gehiegi aldatuko denik: askok eta askok, oker ez bagaude, izaera hori kinka larrian ikusi ez badute ere, eraldaketa sakonen bidean hauteman dute, eta ez dirudi

hori horrela denik. Eta hain zuzen, izaera berezi hori da behar hainbat aintzat hartzen ez dena. Ikus dezagun, bada, zergatik den horrela.

Luzamendutan ibili gabe, honako hauxe da Poulantzasen tesiaren mamia: nazioaren oinarritzko osagai diren horiek (hizkuntza, historia, lurraldea ...), kapitalismoaren aroan arras bestelako zentzua eta esanahia hartzen dute beren baitan. Baina hori zergatik? Hona, laburzu-rean adierazia, eta bere hitzetan emana: "osagai-elementu horien zimentarrian dauden espazioa eta denbora-matrizak arras bestelakoak dira nazio modernoaren ereduari". Matrizeko eraldaketa hori dela eta, hizkuntzak, esaterako, bestelako eraikuntza-eredua bereganatzen du; orobat gertatzen da Estatuak, batetik, eta lurraldea eta historikotasunaren artean, bestetik.

Estatuak eta nazioaren arteko uztardura hori ordea ez da azalduta geratzen tesi horren garapenean. Arazoak lehengoan dirau: hemen ere "barne" merkatuari buruz egiten diren galdera bertsuak egin baitaitezke. Zer zor zaio alegia bi alderdi horiek bat bakarrean lotuko dituen orapilo-toturari? Zergatik, une historiko batetik aurrera, lehen ez bezala, nazio-ezaugarrien sistemari agertzen diren osagai horiek funtzionatzen dute beste modu batera Estatu modernoaren itxuraketan? Gauza agerria baita, hizkuntza bezalako elementuen estatus-funtzioak errotik bestelakoak izango direla Estatu kapitalistaren testuinguruan. Ez dute inolako antzik izango Estatu feudaleko estatutu eta autonomiarekin. Oroz gain, eta gizarte egituraren instantzia nagusienetan, homogeneizazioaren joera historikoa nagusituko da modernizazioaren joan-etorrian.

Gaur egungo Estatuak eta nazioak buruzko teorigileen artean, Poulantzasen usterako, elementu nazionalen gutxiespen nabarmena dago. Ikuspegi horren planteamendua era honetara zirriborratzen digu greziarrak: nazio elementuak (hizkuntza, kultura...) historiari gaineko esentzia aldaezinak baldin badira, azken boladak kapitalismoaren joerak (hots: kapitalaren eta merkatuaren mundu mailako baterakuntza azkarra) Estatu-nazioaren gainbehera-atarian egon gitezkeela pentsarazi dio zenbaiti.

Inork gutxi ukatzen du, dena dela, Estatuaren eskuharmena nazio modernoaren (Estatu-nazioaren, alegia) taxuketa-egituraketan. Horrek zera esan nahi du, besteak beste: nazioaren osagaiak erro-errotik bere interes eta estrategiaren arabera moldatu eta txertatu dituela gizarte egituren harremanetan. Bere monopolio-ahalmenak nazioaren betidaniko elementuen itxura eta egitura zeharo bestelakotu egin ditu. Gertaera horretan oin harturik, honako baieztapen borobil hau egingo digu Poulantzasek: "Nazio modernoa, gisa honetara, Estatuaren produktu bat bailitzan ageri zaigu: bere elementu eraikitzaileak Estatuaren eskuharmen zuzenaz eraldatuak izan dira espazioa eta denboraren antolakuntza materialean". Zentzu honetan, nazio modernoa eta Estatu bat datoz, Estatuak bere baitara egokitzen baitu nazioa, eta nazioa Estatuaren ezaugarrietan hezurramitzen baita.

Totalitarismoaren berdintasuna.

Egungo nazionalitateen egoera larria sumaturik, sarri askotan planteatu izan da hauek Estatu bilakatzeko duten beharrezana. Ez datoz bat gainera iritziak auzi honetan: euskaldunon artean bertan alde nabarmenak ditugu euskal nazioa eraikitzeko Estatu-aparatuaren egokiera gogogai dugunean. Batzuek aldeko gara: gure tesiaren arabera, izan ere, nekez, oso nekez gainera, eraiki daiteke inolako nazio burujaberi, naziotasun horri botere-aparatu sendo eta irmo bat erantsi gabe. Beste askok, besterik uste dute, eta Estatu-aparatuaren alderdi makurrak azpimarratu izan dituzte horrela jarduteko. Ez nituzke nik neuk, horratik, alderdi makur horietako batzuk bederen, inolaz ere gutxietsi nahi. Halaz guztiz, auzi honetan ere, hobe izango dugu, balizko hobearen aldean hain ona ez den hautabidea egitea.

Gutako batzuek hori uste baldin bagenuen, ez genbiltzan bide okerretik; horixe da behintzat Poulantzasek ikustarazten diguna. Bide okerretik ibiltzekotan, Estaturik gabeko herriak ibiliko dira: "Estaturik gabeko nazio bat kapitalismoaren aroan bere tradizio eta historia galtzeko zorian dagoen nazio bat da; Estatu-nazio modernoak (herri men-

deratuen) tradizioa birrindurik uzten baitu, eta tradizioa ezezik, baita nazio menderatuen historia eta memoria ere". Zentzu honetan ulertu behar omen dira, guretzat hain mingarriak izan ziren Engelsen hitz mingotz haiek: kapitalismoaren aroko nazio irentsi hauek "historiarik gabeko herriak" zirela alegia.

Nazio-ezaugarrien artean guri oroz gain interesatzen zaiguna euskararen eta euskal kulturaren esparru sinbolikoa da. Munta handiko kontua dugu, bada, eskuartean duguna. Zeren, iritziak iritzi, euskaldunok jakin behar genukeena, eta ahalik eta zehazkien jakin ere, zera baita: noraezekoa ote dugun bada Estatu-aparatuaren beharra gure mundu sinboliko eta linguistikoa behar bezala garatzeko eta eraikitzeko. Eta ez nuke hemen, noski, erretolika sakonetan abiatu nahi, baina, ez nuke ere orobat, hizkuntz arazoari dagokion auzitxo bat planteatu gabe utzi nahi. Eman dezagun, esaterako, Estatuaren auzi honek baduela zer ikusirik seguruenik hain eguneroko kezka-iturri dugun euskararen erabilerarekin. Eta galdera, nolazpait ere, honelatsu egin dezakegu: litekeena ote da gurea bezalako hizkuntza baten erabileramekanismoen behar adinako gizarte-txertakuntzarik izatea Estatuari darion botere-eraginik gabe?

Goiko galdera horri erantzuteko orduan Poulantzassen hipotesia erabiliaz, ezin erantzun dakioker, sarri askotan egin ohi den legez, nahikunde soilaren ahotik. Estatu-nazioak, hemen ikusten ari garenez, gainerako nazioen, bere mendeko dituen haien, iragana eta oinarri-ezaugarriak ezabatzeke berezko joera du. Eta hori, beti, baldin eta haseratik beretik, edo geroagoko borroken bidez, botere-esparruak eta erakundeak ez baldin badira parez pare ezarri (Belgika, Suitza...). Horrela ez izatekotan, eta aldeak alde (Frantzia adibidez, Espainia baino nazio-suntsitzaille trebeagoa izan da, asimilazio-akulturazioen mekanismoak erriimo eta sakonera ezberdinetan ezarri izan dituelako), erregionalismoaren aurrez aurre gaude. Estatu hauek, indarrean dauzkaten estrategien arabera, mendeko herri-kultura eta hizkuntzak "bereago" edo arrotzago sentituko dituzte. Hego Euskal Herrian, adibidez,

Estatu menderatzaileak bere ondasun eta ondareztat hartuko ditu indarrean daukan legerian.

Estatu-nazioaren homogeneizazio-baterapena den isuri horretan idoro behar omen da totalitarismoaren esanahi sakona. Ezberdintasunak deseginik historikotasunak (berea eta bere mendeko nazio-etnien izana eta izaera) totalizatzen ditu Estatu-nazioak. Batzuen iragana ezabatzen du berea gailentzeko. Eta bere historikotasun eta lurraldetasuna sakralizatuz, totalitarismoaren hazia jadanik ereina dago.

Nicos Poulantzasen gidaritzapean ikusmiratuko dugu gai hau. Autore hau izan baitzen, zoritxarreko bere beriotza goiztiarra baino lehen, Estatu-nazioaren inguruko teoria tradizionalak jorratu zituen. Teoria-ikuspegiok, gainera, marxismoaren baitako korronteetan garatuak izan ziren, eta meritu handia izan zuen greziarrak horko zenbait tesi ortodoxo auzipean jartzean.

Batasun ekonomikoaren tesi-oinarria izan da ikuspegi gailendu horien betidaniko sostengu teorikoa. Barne-merkatuaren inguruko dialektikan taxututako lur-batasuna alegia. Merkantzi trukapenaren joan-etorriko harremanek barne-mugak gainditu eta dialektika ekonomiko-sozial horren kanpo-mugarrietan ezarriko ziren betirako Estatu-nazio berrien muga politikoak.

Horiek horrela, nazio modernoa, Estatu modernoa bezalatsu, merkantzi kapitalaren ondoriozko sorkuntza izango litzateke. Kapitalismoaren sorrerako merkantzi burgesiaren eskutik buruturiko prozesu gatazkatsuen emaitza. Alabaina, eta beti ere Poulantzasen irizpideetan funtsaturik, ez da hori Estatu-nazioaren zer-nolakoak bere osotasunean argitzeko balio dezakeen eskema egokia. Batetik, eskema hori, arras alderdikoia da, eta bestetik, nazio modernoen sorrera-garapenak esplikatzeko, argibide izan beharrean, behaztoparri da.

Poulantzasen ustez, merkantzi trukapenaren dinamikak ezin du azaldu nazio modernoen zergati sakona. Ezta, orobat, "barne" merkatuaren beharrak eragindako ondorioztat ere. Izan ere, eta hementxe

datza gakoa, ez digu argitzen argitu beharko ligukeen auzi hau: zergatik mugarriztatzen da merkantzi batasun hori nazio mailako itxituraren baitan? Barne-merkatuaren baterakuntza bai, oso ongi; baina zerk definitzen du "barnetasun" hori? Zeri zor zaio, bestela esan, lur-eremu propio horren sorrera eta finkapena, "barnealde" jakin bat eta "kanpoalde" zehatz bat mugarri izanik? Izan, mugarri horiek, bestelakoak izan zitezkeen, beste nonbait kokatuak; baina ez, hain justu, nazio-mugen mugetan errotuak jaioko dira Estatu-nazio berrien egiturak.

Poulantzaren iritzirako, irizpide ekonomikoen koordinada horiek, erreferentzia-ihesaren betekizuna dute azalpide teoriko horren elaboreazioan. Izan ere, ikuspuntu horren oinarrian beste elementu empiriko eta positibista hauek hautematen ditu berak: hala nola, nazioaren erakuntzarako oinarritzko osagaitzat jo izan diren elementuak. Bat edo beste aipatzeko, hona erakuskari bat: amankomuneko lurraldea, hizkuntza bakarra, enbor bereko tradizio historiko eta kultural beretsua...

Eta nola uztartu izan dira alde bateko faktore ekonomikoen prozesua eta besteko faktore nazional osatzaileon sistema? Poulantzasek dioenez, nazio-osagarrion kategoria-izaera berezkitzat edo hartu izan da: historiaz gaineko esentzia-muinen betikotasun agortezina izango balitz bezala. Ikuspegi tradizional horren arabera, hortaz, nazio moderno eta Estatu modernoa bat datozeneko lotura-egokitasuna honetan datza: Estatuaren sorrera eragin zuten faktore ekonomikoek bat egiten dute nazioaren oinarri-osagaiak diren ezaugarriekin (hizkuntza, lurraldea...).

Metamorfosia

Zergatik dira, honenbestez, nazio-osagaiok hain bestelakoak Estatu-nazioaren baitan egituratzen eta zertzen direnean? Historia, lurraldea, hizkuntza, tradizioa eta gainerakoak, Estatu honen mende, izaeraz eraldatu direla esan dugu. Inoizko Estatu feudalean, edota ondorengo Estatu aurrekapitalistan bertan, nazio izatearen zutabeok halamoduzko

autonomia eta nortasun berezian uztartzen ziren. Ez zuten alegia barne-aldaketa berrituz honen beharrik orduko esparru-itxitura politiko-etan bizitzeko. Ez zegoen kapitalaren eta boterearen erdirapen xurgatzaile honen irenspen-indarririk: Estatu-nazioan, hain zuen, Estatu horren identitate-kulturarekin bat ez datozen etnia-nortasun guztiak arrotzak bezala hartu izan dira. Hartuak eta birrinduak, ordezkapenaren segari esker.

Historia-espazioak totalizatu nahi dituen Estatu-nazio honek genozidioaren politika ezarriko du bere mugen barruan: "Horrela, 'gorputz arrotzalzat' joak izan diren elementuak erauzteko jarduera da genozidioarena; eta hori bere lurralde eta historiaren barruan, elementu arrotz horiek bere espazio eta denboratik at jaurtikiz". Abiaturuko baldintza hauetan bizi dira, hortaz, Frantziaren edo Espainiaren mugapean bizi diren etni-nazioak. Eta hauen artean genozidio horri aurre egiteko asmo-jardunik bizten denean, eta asmo hori Estatu zapaltzailearen logikapean kokatzen ez denean (erregionalismoaren politikan alegia), hizkuntza eta kultura propioak garatzeko eta sendotzeko xedea nagusituko da nazio-borroka horretan. Bere historiak jabetu nahia ageriko da; bere memoria lantzeko premia.

Azkenik, baina ez azken, Poulantzasen gogoia hizkuntza eta Estatuaren arteko lotura horretan, delako "hizkuntza nazionalaren" barne-aldaketa berritza ikertzeraz abiatuko da. Soziologo honen ustez historian ez du izan parekerik hizkuntzaren "iraultza" honek: frantsesa edo espainola orain aurreko aldian ez bezalako hizkuntzak ditugu, arras bestelakoak, eta ez soilik bere oinpeko etni-mintzairak errotik atera eta pikutara bidali dituztelako. Hori ere bai, jakina. Baina ez hori bakarrik. Eta bidenabar aipatzeko, zera gogorarazi nahi genuke puntu honetan: hizkuntzalaritza-joera guztien eta hizkuntzaren soziologiaren barruko ikuspuntu gehienek aurka, gizarte-egituren iraultza berrituz honek hizkuntza ofizial-estandarren barne aldeko taxuera semantiko-ideologikoa hankaz gora jarri duela. Horretan dago behinik behin Poulantzas.

Hizkuntza ere, gainerako nazio-osagaiak bezalatsu, Estatu-nazioaren bizkarrezurrean barneratu da, eta barneratu ahala, eredu-molde horretan haragi-hezurtu. Hemen, nolabait esateko, hizkuntzaren nazio-kuntza izango litzatekeen prozesua mamitu da; edo eta, alderantziz, hala nahi bada: nazioaren elekuntza. Baina nola adierazten digu Poulantzasek metamorfosi-prozesu horren zer-nolakoa? Demaiogun, beraz, hitza, eta bere hitz hauen bitartez amajera, Estatu-nazioaren eta nazio-osagaien arteko metamorfosiari: “Laburbilduz, hizkuntza bakarra, nazio modernoaren elementu eraikitzaile gisa, ez da beretzat edo hartutako hizkuntza baten hautua eta erabilerari, baizik eta Estatuaren bidezko hizkuntzaren bersortze lan baten aurrez aurre gaude hemen. Nazio modernoaren hizkuntza ofizialarekin egiten den hizkuntz inperialismoa ez dagokio soilik hizkuntz erabilerari (gainerako etni-minutzairak baztertzea, adibidez), baizik delako hizkuntza nazional horren egituraketan bertan presente dago politika horren eragina”.

BOTEREAREN HIZKUNTZA: LEKUKOTASUN BATZUEN AHOTSA

Botere kontzeptua orohar eta hizkuntz boterea bereziki begiz jo eta bere zedarriztapen-arrazoiak finkatzeko orduan eztabaida amaigabeak sortzen zaizkigu. Besteak beste, Parsonek aitortu bide zuen antzera, botere-kontzeptuak ez du zor zitzaion erropenik erdietsi gizarte-zientzien garapenean. Kontzeptuaren epistemologi korapiloetan sartzeko asmorik gabe, diogun, euskaltzaleoi ere biziki gaitza egiten zaigula bat etortzea beronen aitzin-gibelak hautematerakoan. Ikuspegi metodologiko askoren mirabe izan ohi gara, batzuek metodologi isuri batzuetara emanagoak besteak baino. Batzuk analitikoak, besteak deskriptibo-estatistikoak, edota funtzionalak edo dialektikoak. Zenbat buru...

Abiaturuko auzi metodologikoen arteko aldeak hor daude, eta hor segituko dute seguruenik. Ez dugu zehatz-mehatz jakingo hizkuntz boterearen kategoriak zer-nolako eremua estaltzen duen, zeri dagokion. Alabaina, ez dugu zalantza handiegirik izango ordea auzi jakin honen ondorio materialez. Hizkuntzen nondik norakoa aldian aldiko botere-mekanismoen arabera higitu da, eta datu hau inork gutxik ukatuko dizu. Nabardurak gorabehera, hizkuntzen patua aztergai dugun kategoria honen argitan planteatu nahi dugu. Eta lan horretarako, bide-lagun jakitunak hautatu asmo dugu: ez al dugu hutsik egingo irakurlearen jakinminean aukera hau egiterakoan?

Lehen-lehenik kolonizazioaren eskarmentuan oinarrituriko irakaspen bat aldatuko dugu hona. Fishmanen eskutik aldatuko ere, egungo egunean nazioarteko hizkuntza garaileen ohorea hain "garbia" ez dela frogatzeko. Honela mintzo zaigu judu-amerikarra:

"Los triunfos del inglés, español y portugués en el Nuevo Mundo son un triunfo del poderío físico, del control económico y del poder ideológico. Ninguno de éstos es en sí lingüístico, pero las lenguas que resultan estar asociadas con tales fuerzas y desarrollos pueden suponer una serie de ventajas a sus habitantes, mucho mayores que las de los que no hablan estas lenguas" (*Sociología del lenguaje*, 162. or.).

Gaur egun nazioarteko hizkuntzen merkatuan jaun eta jabe dugunaren historia beraz ez zaio zor ingelesaren barne-izaera kementsuari. Espainieraren historia beste hainbestekoa izan da, eta frantsesarena zer esanik ez: Afrika aldeko herrialde frantsesuen historia ez baita izan zibilizazioaren urrezko orrialderik idaztekoa. Jakina, Fishmanek hor dioen bezala, botere-hizkuntzon komunitatea abantailaz horniturik ageri zaigu bere mendekoen kaltetan. Boterearen pertsonalizazioa daukagu hemen, segun eta zein hizkuntzako hitzun izan, hitzun honen estatus soziala bestelakoa izango baita gizarte-hierarkiaren egituran.

Harako lehen gramatikari espainiar hark zioen gisan, espainiera eta inperioa orpoz-orpo ibili dira azken mendeotan. Inperioen eskutik barreiatu dira, barreiatu ere, nazioarteko hizkuntza garaileak; mintzaira *francatza* hartu izan diren horiek oroz gain. Eta ezer gutxi dauka guzti horrek, dakigunez, hizkuntzaren berezko barne-kemen sinbolikoarekin: ez al genuke, aldeak alde, egitate objektibo horren argitan gehiago jokatu behar, sari askotako boluntarismoaren miresle izan beharrean? Auziaren muina ez da noski, ezin izan ere, besten ankerkerietan ikasbiderik hartzea. Bai, ordea, hizkuntzen bizi-iraupen eta hedapen-borroketan barneraturik dauden konstante batzuk begiz jotzea.

Espainiera (espainiera diogu, ez gaztelera; ez baitira etorkiz eta izaeraz kondaira berberaren jabe; hura Estatu inperialista baten oinordeko, hau nazio-etnia natural baten enborreko) ahotan hartu dugunez, jarrai gatzaizkion hartutako bidetari. Kolonialismoaren garaietako hizkuntza menderakuntza mintzairaz landako faktoreen eraginez burutua baldin bazegoen, gauzak ez dira funtsez deus ere aldatu lurralde haietan. Horren lekukotzat dakargun aipu hau ezin adierazgarriagoa da: izan ere, delako botere-mekanismoen eta hizkuntzen arteko lotura erabatekoa baita. Zera dio, beste gauza batzuen artean, Alberto Escobarrek Peruko egoera dela bide:

“De cualquier modo, podemos concluir que esta lengua (espainieraz ari zaigu hemen) ha sido, por excelencia, el idioma de quienes han poseído y/o detentan entre nosotros el poder político, sea en forma directa o delegada. (Corlar, 1968) mientras que las lenguas de origen americano —que no han alcanzado ningún status oficial— ahora al igual que antes corresponden a los sectores subordinados, a los grupos de poder local, en contacto con los centros de dominio de las ciudades y vinculados al ambiente costero y urbano” (*Lingüística y política in “El reto del multilingüismo en el Perú”* 19. or.).

Elebitasun eta kulturbitasunaren zergatia, iritzi aski hedatuen kontra, ez da inolako ondare-altxorren aurkikundea. Zergati hori zenbat eta sakonago miatu, orduan eta ageriago jarriko zaizkigu hemen nabarmendu zaizkigun boterearen mekanismook. Noraezekoa izango da, gurean bezalako egora batean egonik, hizkuntz plangintzaren oinarribaldintzak definitzerakoan mekanismo hauek zertan diren jakitea. Hemengo testigantza hauetan zera azpimarratu dugu oroz gain: hots, gizarte egituraren baitako indar soziopolitikoaren arabera erabakitzen dela hizkuntzen joan-etorri historikoa. Horra, bada, gure galdera: zernahiko hizkuntz plangintza delarik ere, ondo jakiteko kontua izango da hizkuntz normalakuntzaren plangintza boteregune egokietan planteatua dagoen jakitea, ezta? Ezen, osterantzean, ez al dago alde zurreratikako porrotaren hazia erainda berpizkundearen baratzean?

Azken hitza, hitz jakituna, Jin Cummins-i kendu nahi diogu. Gutxi bezalako formazio psikosoziala dauka irlandar-kanadiar honek hizkuntz plangintzaren alor honetan. Gutxi bezalako eskarmentua: Irlandako bere haurtzaroko oihartzunak geroko bere ikerketabide joriaren osagai sentimentala izan dira, heldu den lekura heltzeko. Bihoaz, beraz, hizkuntz berreskurapenaren ildoan botere-instantziak duten egitekoa argitzen diguten hitz zaiiduok:

“Agintean dagoenak bakarrik bideratu ahal izaten zuen eta izan ohi du normalean, esandako horrexegatik, era bateko edo besteko hizkuntz plangintza: berak arautu izan du hortaz, historian zehar, zein hizkuntza zein funtzionarako indartu eta horrela, bide batez, ekonomia eta politika alorreko aginpidea nola sendotu” (**Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina-2**, 11. or.).

Fishmanen eskutik ikusi dugu koloniakuntzaren barrena ezarritako hizkuntzen hedapena ez zela “zibilizazio sena gardenaren” poderioz hezurmamitu. Hizkuntzen garapen-ahalmena ez dela, alegia, berezkoa: euskarri eta sostengu estralinguistikoen kariaz burutu dela inperio-hizkuntzon egungo errealitatea. Bigarrenik, kolonia ohi baten gaurko zoria aletu digu Escobarrek. Eta, damurik, Peruko herriaren koloniakuntza-aztarnak inoiz baino bortitzago islatzen direla aditu diogu egungo sistema soziolinguistikoan. Hizkuntzen estatus-egitura menderakuntza haren uzta hitsa bailitzan gailentzen da bertako kultura eta hizkuntzen artean. Eta, azkenik, botere-mekanismo ahalguztidun hauen eragin-indarra neurtu nahi izan dugu hizkuntz plangintzaren filosofian. Horretarako, Cummins-en irakaspenaz baliatu gara.

Ezin amaituko dugu, plangintzaren auzigai hau dela eta, euskaldunontzat kezka-iturri den itaun hauxe egin gabe. Ba ote dugu, edota izango ote dugu, ikusiak ikusita, behar adineko eskumenik akulturazio luze eta sustraitu hau iraultzeko? Beste modu batera esan behar balitz, ba ote dago botere-indarrak euskalduntze bikoitz hau (hizkuntzarena eta kulturarena) zimentarri bermagarrietan eraikitzeko? Bego hor gal-

dera. Erantzunik izango al du! Eta ez ginateke konformatuko ahozko ihardespenearekin, jakina. Egitezkoa beharko dugu, hitzezkoaz gain, geroak ere herri honen berri izan dezan.

KLASE NAGUSIRIK GABEKO HIZKUNTZA-NAZIOEN ZORIA

Pentsakera sozialistaren tradizioan nazio arazoak ez du begirune eredugarririk izan. Halaz guztiz ere, ortodoxia gogorraren haritik ateratzen diren jarrera batzuk aipa daitezke. Lehenik, Leninen asmo zintzoak, asmo horiek ezerezean geratu bazien ere. Bigarrenik, tradizio austromarxistaren barnean pentsalari batzuek nazio arazoari halakoxe irenbeste duin bat eman nahi izan zioten, nahiz eta duintasun horren izaera kultur autonomiara mugatu.

Otto Bauer dugu, besteak beste, etni-nazioen auzia nahiko sakon ikertu zuenetakoa. Metodologia historizistaren arabera jardun zuen bere egitekoan, nazioaren izaera historikoa eta materiala nabarmendu nahirik. Marxista austriar honek, hala, nazioen bizi-iraupena eta iraungipena klase nagusiaren ikuspuntutik aztertu zuen, eta, egia esateko, iradokitzaileak egiten zaizkigu euskaldun bezala. Ikus dezagun, bada, nazioen patua eta klase nagusi-gorenen nazio-estrategia zein neurritaraino dauden elkarri atxekiak.

Nazioaren kontzeptua kultur komunitatearen definiziopean eraikitzen du Otto Bauerek. Aldian aldiko oikoizpen-ingar eta gizarte-harremanen prozesuan klase bat gailentzen da kultur komunitate horren gidaritza zuzentzeko. Klase honi, klase dominantea deituko dio: nolazpait ere, esan dezagun, gainerako gizarte sektore guztien gain bere hegemonia ezartzen duen gizarte-klaseaz mintzo garela. Eta Baueren

iritzian, hain justu, klase horixe bera da nazioaren eraikuntza ahalbi-deratuko duena. Ondorioz, klase mota hau ez duen etni-nazioa, bere hizkera-moldez esateko, "historiarik gabeko nazioa" izango da.

Klase nagusi-gorenaren historia honetan, lehenik, nobleziaren nazio-papera nabarmenduko digu austriarrak. Honen aurreko klase batzuetan ez baitu sumatuko inolako nazio-egitasmoaren zantzurik soilena ere. Demagun, adibidez, nekazari-artesauen kontzientzia historikoa: hauen baitan ez da biztuko inolako batasun nazionalaren joera-indariarik eta sistema feudalaren berezko autonomia zatikatuan egitura-tuko da gizartearen eraketa-sarea. Bestelakoa da nobleziaren nazio-hautua: dakigunez, klase menderatzaile honen aroan emango dira hizkuntz batasunaren lehen urratsak. Datu historiko honen egiaztapen enpirikorako eredurik ez da falta nahi izanez gero; baina, paradigma-ren balioa duen Frantzia oroz gain nabarmentzen da baterakuntza poli-tiko-kulturalaren gama zabalean.

nekazari-artesauak	ez	ez	ez
noblezia	hastapenak	hastapenak	hastapenak
burgesia	garapena	garapena	garapena
langileria	hedapena	hedapena	hedapena

Otto Baueren planteamentu teorikoa, gaineko irudi honetan zertu-rik dagoen legez, honakoa da. Alegia, langileria (gogoan hartu mende honen haseran gaudela) izango da azken-azkenean, zinez eta benetan, kultura nazionala erabat eta osoki gizarte nazionalaren klase-maila guztietara hedatuko duena. Burgesiak ere, bere klase interesen mende-

ko, ez baitu modurik izango kultura nazionalaren garapena gizarte-
indar guztietara helarazteko hain justu ere. Artez eta zuzen, hitzok
darabiltza bere tesiaren sostengu: "Sozialismoak esan nahi du herri
osoaren eskuharmena nazioaren kultur komunitatean, nazioaren guz-
tizko autodetermiuazioa, nazioaren gero eta bereizketa izpiritual naba-
riagoa". Arestian esan berri dugunez, ordea, berak ez zuen horrelako
ametsik ezagutzeko aukerarik izan.

Nolanahi ere, eta guri euskaldun gisa benetan axola zaiguna hauxe
da, bi eratako nazioak definitu zituen Bauerek. Alde batetik, "historia
duten" nazioak daude, eta bestetik "historiarik gabeak". Historidunak,
gorago aipatu dugun zentzuan, klase menderatzailearen jabe dira, eta
hainbestean, irudian ikus daitekeenez, Estatu, kultura eta hizkuntza
nazionalaren jabe. Historiarik gabeak, aldiz, klase dominanterik gabe-
ko nazio menderatuak izan dira (Bohemiako adibidea jarriko digu
horren lekuko), eta gabezia horren ondorioz, Estatu, kultura eta hiz-
kuntza nazionalik gabeak.

Oto Bauerek ez du, haatik, Engelsek egin zuen moduan, historiarik
gabeko nazio azpiratuen patua behin betirako galaraziko. Izan ere,
bere aburuz, klase nagusi- hegemonikorik izan ez duten herriok ez bai-
taude halabeharrez edo iraungipenera kondenaturik. Ezen txekiarrak
bezala, "historiarik gabeko nazioa izateak ez baitu esan nahi halako
batean ahalmen hori lor ez dezakeenik. Kapitalismoaren garapenak,
bai Europa erdialdean bai Balkan-herrietan, ez baitakar berari itsatsi-
rik herrion asimilazioa, baizik eta 'historiarik gabeko' nazioen suspe-
traldia".

Eztabaidagarriak dira austriar marxista honen zenbait ideia eta
azterketa. Ez da hori ordea hemen, euskaldun nazioaren historia hitse-
an, gehiena axola zaiguna. Zer pentsa ugari sortzen digu gure buru-
muinetan bere tesiak: hots, klase nagusi-gorenik gabe ezin dela, ez
Estaturik eraiki, ez kultura nazionalarik garatu, eta ez hizkuntza nazio-
nalik ezarri. Gure artean batek baino gehiagok uste izan du, eta uste
du, nik zoritxarreko ustea dela esango nuke, bihar-etziko klase nagu-

siak (langileak, alegia) aterako duela herri hau bere suntsipen nazionaletik. Ez noski gogorik falta zaidalako edo. Ez irriki ez dudalako. Desnazionalizazioaren gorriak ez duelako itxaropen-biderik irekitzen, jatorriz eta etniaz hain bestelakoa den langile-klasearen nazio-egitasmoa, euskal nazioaren eraikuntzarako oinarri sendoa izan litekeenik pentsatzeko.

HIZKUNTZA-ZEINUA IDEOLOGIAREN ALTZOAN

Ezin esango dut, ageriko gauza denez, filosofia marxistaren baitan tradizio handiko ikerkuntza urratu denik hizkuntzaren inguruko gora-beheretan. Ez da hala. Bada, ezpairik gabe, tradizio joriagoa duenik hor barrena, eta emaitzak berez mintzo dira alor horretan. Dena den, bere labor-zurrean eta urrian, izan da pentsalari marxistarik alor horretan ere, gaiari alde edo moldez atxeki zaionik. Ekarpinak, halere, ez dira oparoak, eta ezin ere izan, hizkuntzaren papera ez baita gehiegi balioetsia izan marxismoaren lerro teorikoan.

Ekarpenaren uztari fruitu-ale bat dario oroz gain; eta ale bakan hori hizkuntza eta ideologiaren arteko harreman dialektikoaz mintzo zaigu zenbait autoreren lumaz. Autore horien artean, bestalde, gure artean ere hainbeste aldiz ahotan hartua izan den Nicolas Marr dugu, hizkuntza auzigaitzat harturik jardun zuen eta. Has gaitezen, bada, berarengandik.

Aski entzunak eta irakurriak dira, gai hauen inguruan dabilenarentzat, Marren harako tesi zalantzagarrri haiek. Alegia, hizkuntzaren izaera klase-ezaugarriez taxaturik egongo litzatekeenekoa; hau da tesiarren alderdi bat. Eta bigarren alderdia gainegitura deritzanari dagokio: bere iritzian, izan ere, hizkuntza estatusa egitura ideologiko honen baitako sistema baita. Geroago, 1950. urtean, eta hau ere orobat arras eza-

guna da, Stalinek eskuhartuko du eztabaida filosofiko-linguistiko honetan. Ez dugu hemen autore honen ondorio-zerrendarik aipatuko; baina, auziaren zertzeladatxo bat izendatzekotan, zera esango genuke. “Marxismoa Hizkuntzalaritzan” izeneko bere lanean erro-errotik ukatuko du Marren tesi hizkuntza eta gainegiturari buruzkoa; orobat egingo du klase eta hizkuntzaren arteko ustezko loturarekin ere, hizkuntzaren berezko autonomia aitortuz.

Orain artekoak behin eta birritan entzunak eta irakurriak bagenituen ere, ez da horrelakorik sumatzen beste autore pare batekin. Gezurra badirudi ere, Marren aurreko lana dugu “Marxismoa eta Hizkeraren Filosofia”: liburua Voloshinov-en izenarekin bakarrik argitaratu bazen ere, Bachtin-en izala ukazina da eskola-korrante honen harian.

Obra honen barruan ideologiaren teoria eta semiotikaren arteko lotura nabaritzen da gai nagusi gisa. Ideologia den oro zeinua da: “zeinurik gabe ez dago ideologiarik”. Bi pentsalari hauentzat ideologiaren eremua eta zeinuaren eremua gai berbera dira, nolabait esateko. Izan ere, zeinu oro balorazio ideologikoaren mendeko baita: ideologikotasun guztiak, bada, balio semantikoa dauka bere baitan. Hori eta horrenbestez, ikuspegi honen argitan, ideologia zeinuetan datza, komunikatzeko darabiltzagun zeinuetan bain zuzen: “kontzientzia kontzientzia izango bada eduki ideologikoz (semiotikoz) hornitu behar da, eta guztiori gizarte-elkarrekintzaren prozesuan soil-soilik”.

Zer-nolako loturaz kateatzen ote dira, horretara, ideologia eta hizkera? Bachtin eta Voloshinov-en arabera hizkuntz zeinu orori gizarteko balioztapen-karga jakina dagokio. Lotura horri zor zaio izan ere zeinu ororen iharduera ideologikoa izatea; esaterako, klase sozialei bagagozkie, esan beharko litzateke, klase bakoitzak darabilen hizkerari bere balioztapen-zentzua erantsiko liokeela. Ez dago beraz erabateko adostasunik klase jakin batek darabilen

hizkera eta gizarteak orohar darabilenaren artean. Dena dela, ez du horrek esan nahi amankumuneko hizkera-elementurik ez dagoenik hizkuntz kode horien artean.

Hizkuntz kode jakin-mugaruotan, adibidez, klase nagusi-botere-tsuak darabilen hizkuntz kodearen baitan, halakoxe balioztapen-ingar berezia sumatu zuten autoreok. Beste horrenbeste esango genuke guk, adibidea aldaturik, nazio-gatazkaren inguruko mintzo-jardunari buruz. Ez dezagun ahanzi, auzi honen kontzeptu-zentzuari dagokion eremu semantikoa, arras bestelako zentzuz eta esanahiz erabiltzen ditugula hainbat eta hainbat termino (nazioa, eskubidea, historia, Estatua...) guk geuk eta auzo-estatuetakako ideologia nagusiek. Alderdi honetatik, beraz, ukazina da autore hauen egiaztapen enpirikoa.

Bachtin eta Voloshinov-en ekarpen honetan, ordea, ez da esaten mintza-jardunaren funtzio ideologikoa begien bistan dagoenik. Funtzio hori, inondik ere, gehinetan ez dago begien aurrean, ez betarrien adigai.

Diskurtso-testuan barrena itsatsirik dagoen zentzu ideologikoa ez da, eta hementxe datza koska, literalki atzeman daitekeen zerbait. Arras bestelakoa da ideologia teorikoaren bame funtzio ikustezina. Nolabait esateko, ikustezintasun horren izaera berezia honelako zerbait da: delako izaera ideologiko hori, hizketa-jardunaren bame, alde aurretik jakintzat ematen den zer edo zer izan ohi da. Hitzak edo testuak ez darama, horrenbestez, inolako markarik bere bekoskoan, mezuaren izaera ideologikoa seinalatuz.

Auzi honetan argibiderik aterako badugu, ideologiaren izaera berezi hori hartu behar dugu ondo gogoan. Aipatu dugun ikustezintasuna, adiezintasuna, izan ere, zeran datza: testu-diskurtsoari buruzko irakurketa ideologikoa den neurrian, hizkeraren izari ideologikoa atzeman ezina bilakatzen da. Bestela esan, hizkera ideologikoak ezin du bere izakera daraman mezua "ideologikotzat" identifikatu. Ez zaio bere buruari harrika hasten, arrunki adirazteko.

Testu eta mintzo oro ideologiazko ehunez josia dago zeinu linguistikoei esker, baina nekez atzeman daiteke hizkuntz zeinuaren ideologikotasuna. Zer gertatzen da hizkuntz zeinuaren itxura natural horren pean mezu ideologikoa hain ilun ezkutatzeko? Eman ditugu arrazoi batzuk. Badira, ordea, beste batzuk ere. Eta jakingarria deritzot Volosinovek eskaintzen digun beste arrazoibide honi: zentzumenari hain zaila baldin bazajo hizkuntz zeinuaren eduki ideologikoa hautematea, zentzumen horren jabe den ideologia nagusi-menderatzaileari zor omen zaio mozorrotze-ahalmen hori. Eta, jakina, ideia nagusi horiek zeinu ideologikoan bertan txertaturik omen daude: "Bizitzaren baldintza arruntean, zeinu ideologikoari atxekirik dauden kontraizanak ezin dira erabat azalera agertu, ezen ideologi zeinua jadanik ezarria dagoen ideologia menderatzailea baita. Ideologia menderatzailea beti ere atzerakoia denez gero, hainbestean, aldeztetik ezarria dagoen fluxo dialektikoaren joera egonkortzen du, atzoko egia indarberrituz eta gaurko egia bilakaraziz. Eta hauxe da, izan, zeinu ideologikoaren zeharpena eta distorsio berezia sortarazten duen arrazoia ideologia dominantearen barrunbean".

Irispen adierazgarria izan lezake, nik uste, formulatu berri dugun tesi horrek, egia izatekotan. Ohargarriena zera da: sistema ideologikoa edo gure pentsakera-ereduak zeinu linguistikokoaren baitan hezurramiturik daudela, eta egoera hori pentsabide dominante-hegemonikoaren arabera moldatzen dela. Ezin beraz, lehenenak eginda ere, testu-elearen zentzu ideologikoa atzeman, abiapuntuko ikuspegiari, hizkera, dagoen dagoenean, naturalizat eta neutralizat hartua izan baldin bada. Horra gakoa. Ez da ikuspegi zuzena, Volosinoveri bagagozkio bederen, hizkeraren zeinu linguistikoa alde batetik tratatzea, eta ideologi mezuen nondik norakoa bestetik ikertu gura izatea. Hizkera bera, eta, horrenbestez, hizkerari darizkion termino-kontzeptuak ipini behar dira auzipean, auziaren inguruan desadostasunak daudenean. Horregatik esan izan da, eta ez arrazoirik gabe inondik ere, auziaren eztabaida askotan esatari-idazle menderatua bere arerioaren eremu seman-

tiko-ideologikoan aldez aurretik garaitua dagoela. Eztabaida hasi aitzin, alegia. Eta ez, jakina, delako arerio hori bera baino dialektika joriago baten jabe delako, baizik eta hizkera-lanabesa bere eskutik daukalako.

AURKIBIDEA

AITZINSOLASA	7
EUSKALTZAINDIA EDO CORPUS PLANGINTZAREN BIDEGURUTZEA	13
Bihar-etziko euskara: euskañola	14
Gaitzaren azal-ñabardurak eta gaitz-erroak	17
HIZKUNTZ ERABILERAREN AZTURAK	21
Hizkuntz interakzioa	21
Hizkuntz praktikaren giltzarri ezutuak	22
Hizkuntza jakitezak ez dakar berez erabilerarik	24
Hizkuntz ohitura ez da kontzientzian oinarritzen	25
Hizkuntz erabilera-arauen mugariak	26
DIGLOSIAPEKO HEZKUNTZA ELEBIDUNA	29
Gizarte-molde diglosikoa	30
Irakaskuntza diglosikoa	32
MAMIA ETA ITXURA EUSKALGINTZAN	35
HIZTUNA HARREMAN SOZIOLINGUISTIKOEN ERAMAILE	43
Egitura pertsonala	45
Egitura funtzionala	45
Botere egiturak	46
Amaitze aldera	47

HIZKUNTZAREN BALIO SINBOLIKOA, KOMUNIKATIBOA ETA JURIDIKOA	51
Euskararen balio ideologiko-sinbolikoa	53
Euskararen balio komunikatiboa	56
Euskararen balio juridiko-formala	59
Azken burutapenak	61
KULTURAREN AUZIGAIA SISTEMA-TEORIAREN ARGITAN ...	63
Kultura sistemak	65
ELEBITASUNA, KULTURBITASUNA ETA GIZARTE-AHALMENA	69
Kultura-kontzeptuaren adiera eta esanahia	71
Elebitasuna, gure herrian, kulturbitasuna da	73
Gizarte-boterearen araberako kulturbitasuna	77
HIZKUNTZA, LENGOAIA ETA ERREALITATEA	79
Ilukuziozko ekintza	80
Euskara eta Euskal Herriko errealitatea	82
HIZKUNTZA ALIENAZIOAREN ZER-NOLAKOAK	85
Alienazio mota bi	86
Hizkuntza alienazio soziala	86
Hizkuntza alienazio nazionala	89
Hizkuntza alienazioaren historia eta eragileak	90
EUSKALDUNON ALIENAZIOA HIZPIDE	93
Euskaltzaletasun alienatua	94
Euskal kulturaren zer-nolako	95
Benetako alienazioaren iturria	97
EUSKALTASUN MOTAK ETA MAILAK: ETNIKOTASUNA, ABERTZALETASUNA ETA ESPAINOLTASUNA	101
Euskaltasun etnikoa	103
Euskaltasun abertzalea	105
Euskaltasun espainolista	109
Euskaltasunaren berezko gizarte-praktika	111

EUSKARA, IDEOLOGIAK ETA ABERTZALETASUNA	115
Hizkuntza eta ideologia	117
Euskalgintza eta ideologia politikoak	118
Abertzaletasuna da euskalgintzaren ardatza	120
EGIA SAKONAK ETA ERGELAK EUSKARAREN GAINEAN	123
IDENTITATEA, ANIZTASUNA ETA EUSKARA	133
Nazio-identitatea	133
Nazionalismoa, unibertsalismoa, modernitatea	139
Hizkuntz gatazkaren gorabeherak	142
ESTATU-NAZIOAREN ERAGINA NAZIO-EZAUGARRIEN ERALDAKETAN	157
Hizkuntza, historia eta osterantzekoen izaera-aldaketa	157
Totalitarismoaren berdintasuna	159
Metamorfosia	162
BOTEREAREN HIZKUNTZA: LEKUKOTASUN BATZUEN AHOTSA	165
KLASE NAGUSIRIK GABEKO HIZKUNTZA-NAZIOEN ZORIA	171
HIZKUNTZA-ZEINUA IDEOLOGIAREN ALTZOAN	175